goiena
Zu hemen zaude.

2020-01-10 EGUBAKOITZA / 843. ZENBAKIA / 20. URTEA
DEBAGOIENEKO DOAKO ALDIZKARIA GOIENA.EUS TOKIKOM

Inklusioa posible izan dadin, arineketan

Izaskun Landaidari elkarrizketa (Emakunde)

Beñat Rezusta pilotaria.

Aitor Zabaleta auto pilotua.

Aitor Ugarte mendi lasterkaria.

Garazi Estebez txirrindularia.

DEBAGOIENEKO KIROL SARIAK 2019

HERRITARREN SARIRAKO HAUTAGAIAK GERTU BOTOA JASOTZEKO

'Goiena.eus'-en bidez aukeratu daiteke DKSen Herritarren Sarirako irabazlea. Lehiaketako sari banaketa ekitaldia urtarrilaren 28an, Bergaran, Seminarixoan / 34

ARGAZKIAK: JOKIN BEREZIARTUA, 'CANALFEDME.ES', JOSU ESTEVEZ, FELIX SANCHEZ, XABIER URZELAI, 'DESNIVEL.COM', IMANOL SORIANO ETA GOIENA

Maialen Axpe atleta.

Mikel Aristi txirrindularia.


Mikel Linazisoro eskalatzailea.

Oihana Kortazar mendi lasterkaria.

Oihana Aldai futbolaria.

Uxue Oses eta Maddalen Etxegarai pilotariak.

Emakume bat Markiegi dendatik irteten, erosketak eginda. JOSU BILBAO

Urtarrileko beherapenak martxan Debagoienean

Dagoeneko beherapen sasoian murgildu dira Debagoieneko komertzioak. Urtarrilaren 2an hasi eta hil bukaeraren ondoren ere jarraituko du merkealdiak bailarako zenbait komertziotan. Orain arte beherapenen hasiera bikaina izan dute gehienek

Naroa Urien DEBAGOIENA

Dagoeneko beherapen sasoian murgildu dira Debagoieneko komertzioak. Urtarrilaren 2an hasi eta hil bukaeraren ondoren ere jarraitzen du merkealdiak bailarako zenbait komertziotan.

Gabonen ostean produktuen prezioak merkatu egin izan dituzte azken urteetan merkatariek, urtarrileko beherapenen sasoiari hasiera emanez. Errege egunaren ondoren hasten ziren historikoki beherapen horiek, baina azken urteetan, Gabonetan edo urtea hasi bezain laster hasi dute merkealdia dendariek. Bertako merkataritzarako, edozelan ere, urtarril hasiera oraindik "garai garrantzitsua" dela eta "salmenta gehiago egiten diren egunak" direla azpimarratu dute hainbat dendarik.

Beherapen goiztiarrak

Aurten, "inoiz baino lehenago" hasi dira beherapenak. "Gabonetan ere hainbat beherapen" eskaini dituztela eta urtarrilaren 2an hasita "beherapen sasoi oficiala" hasi zutela aipatu dute Arrasateko merkatariek. Izan ere, "gaur egun, urte osoan zehar, *black friday* edo bestelako egun bereziekin, urtarrileko beherapenak apur bat ahulduta" daudela azaldu du Markiegi dendako Jorge Markiegik. Hala ere, nahiz eta urte osoan zehar maukak eta beherapen bereziak izan, "jendea oraindik urtarrileko beherapenei begira" egoten dela azpimarratu du Chic dendako Irma Juaristik.

Jakak nagusi

Neguan jakek leku berezia izaten dute armairuetan, baina prezioak garestiak izaten dira sarritan. Hau ikusita, urtarrileko beherapenen zain izaten dira asko. "Txaketa asko saltzen ari gara. Kalitate handikoak dira eta jendeak merkealdia aprobetxatzen du hauek erosi ahal izateko", azaltzen dute Markiegi eta Juaristik. Gainera, merkatariak baikor azaldu dira aurtengo urteari begira. "Ohikoa den bezala hasi dira beherapenak, baina aurtengo aukera bikainekin harrera hobea izatea espero dugu". Bestalde, Juaristik azaldu du "lehen txanpa indartsua" izaten ari dela eta "neurriak bukatu baino lehen erosketa asko" egiten direla. Hala ere, "gauzak aldatu" eta "salmentak batzuetan trabatuta" geratzen direla adierazi du Markiegik.

BEHERAPENEK OTSAIL HASIERA ARTE IRAUNGO DUTE BAILARAKO ZENBAIT KOMERTZIOTAN

Erosleei dagokienez, "beherapen garaia baino lasaiagoa den beste une baten erostea" nahiago duenetik hasita, "Gabonetan gogotsu beherapenen zain" egoten deneraino dago. Azken hauentzat bukatu da itxaronaldia; izan ere, hemen dira beherapenak.

Debagoienak %8,02ko langabezia tasarekin itxi du 2019. urtea

Ibarreko abenduko langabezia tasa %0,4 jaitsi da, urte bereko urtarrileko datuarekin alderatuta

Naroa Urien DEBAGOIENA

2.436 langaberekin amaitu da 2019a Debagoienean, eta tasa %8,02koa da. Modu horretan, urtea amaitzeko bailarako langabezia tasa zertxobait jaitsi da urtarrileko datuarekin alderatuta. Izan ere, urtarril amaieran 2.559 langabe zeuden erregistratuta; 123 gehiago.

Balantzea eginez, Debagoieneko herri guztietan jaitsi da langabe kopurua 2019ko lehen hilabetearekin alderatuz, Aramaion izan ezik. Debagoienean %0,4 jaitsi da, 123 langile gehiagorekin. Aramaion, aldiz, %0,13 igo da. Gorabehera handiak egon dira urtean zehar, baina urte hasieran baino langabezia tasa txikiagoarekin bukatu dute 2019a debagoiendarrek.

Datu baxuenak, udan

Ekaina izan da bailarako hilabeterik hoberena langabezia tasari dagokionez. Eguraldi onak eta batzuen denbora libreak dakartzan lanpostu berriek eragina dute Debagoienean ere. Arrasatek, Aretxabaletak, Bergarak, Eskoriatzak, Leintz Gatzagak, Elgetak eta Oñatik urteko datu hoberenak udan erregistratu zituzten. Antzuolak eta Aramaiok, aldiz, otsailean.

Datu altuenak urte hasieran

Urtarrila izan da bailarako hilabeterik ilunena langabezia tasari dagokionez. Udako lanpostuak bukatu eta iraila hastean ere gogor igotzen da langabezia tasa Debagoienean. Beraz, nabari daiteke udako lanpostu horiek sarritan ezegonkorrak direla. Aretxabaletak, Arrasatek, Bergarak, Eskoriatzak, Leintz Gatzagak eta Oñatik urteko datu altuenak urtarril eta otsail artean erregistratu zituzten. Elgetak eta Aramaiok, aldiz, irailean.

Hego Euskal Herriko datuak

Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban langabeen kopurua %0,34 hazi da urte amaieran. 385 langabe gehiago zenbatu dira eta, guztira, 114.162 langabe daude Euskal Autonomia Erkidegoan. Nafarroan ere gora egin du langabe kopuruak eta gaur egun 33.198 herritar daude lan gabe.

Gipuzkoak du langabezia tasarik baxuena, %6,19koa; %0,94 jaitsi da. Ipar Euskal Herrian ere jaitsiera izan da, baina oso apala, %0,07koa INSEEren arabera.

Langabezia

Herria	Langab.	%
Antzuola	60	%5,40
Aramaio	15	%1,98
Aretxabaleta	229	%6,66
Arrasate	1.093	%10,47
Bergara	531	%7,35
Elgeta	41	%7,11
Eskoriatza	151	%7,43
Leintz Gatzaga	4	%2,90
Oñati	327	%6,01
GUZTIRA	**2.436**	**%8,02**

ITURRIA: ESPAINIAKO ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA

2019an hiru pertsona hil ziren ibarreko errepideetan

Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak eta Trafiko Zuzendaritzak aurkeztu duten trafiko ezbeharren gaineko behin-behineko txostenaren arabera, EAEko errepideetan gertatutako istripuek 51 hildako eragin zituzten 2019an; 2018an baino bederatzi gehiago.

Gipuzkoan 19 lagun hil ziren 2019an, horietako hiru Debagoienean: motor-gidari bat Leintz Gatzagan ekainaren 7an, auto-gidari bat Antzuolan ekainaren 26an eta auto-gidari bat Aretxabaletan urriaren 20an.

Ikastetxeetara bideratutako *Don't be dummy! Zuk ez duzu ordezkorik* prebentzio-programaren 2019ko balantzea ere aurkeztu zuten. EAEko 42 udalerritako (6 Araban, 18 Bizkaian eta 18 Gipuzkoan) 138 ikastetxetara iritsi da, baita Debagoienera ere, eta ikasle ugarik hartu dute parte.

Duela urte biko urte hasieran Arrasaten egin zuten lehen elkarretaratze baten irudia. XABIER URZELAI

Aldarrikapenak adostuta, kalera irteteko dei egin du Agijupens-ek

Debagoieneko Erretiratu eta Pentsiodunen Tokiko Elkarteen Gipuzkoako Elkarteak (Agijupens) hausnarketa egin du, bi urteotako agerraldi eta ekimenen eta egungo egoeraren gainean, aldarrikapenak "eguneratu eta bateratzeko"

Eneko Azkarate Laspiur ARRASATE

Urtarrilaren 15ean beteko dira urte bi erretiratuak astelehenero kalean protestatzen hasi zirela, pentsioen etorkizunaren ziurgabetasunarekin kezkatuta. 2018 hasieran, Bilboko agerraldiak egin ziren berehala ezagun, oso jendetsuak izanagatik. Gutxika-gutxika, pentsiodunak herririk herri ateratzen hasi ziren. Baita Debagoienean ere. Eskualdeko pentsiodunek astelehenerako elkarretaratzeak deitu dituzte berriro ere, 12:00etan.

11 elkarte batzen ditu Debagoieneko Agijupens-ek: Arrasateko Toki Argi, Musakola, Abaroa eta Uribarri, Bergarako San Joxepe, Oñatiko Pake-Leku, Aretxabaletako Basotxo, Eskoriatzako Olazar, Antzuolako Landatxope, Elgetako Xalbadorpe eta Leintz Gatzagako Toki Eder. Guztira, 8.000 bazkide batzen dituzte 11 elkarte horiek. "Noraino gauden ados edota zeintzuk diren lehentasunak jakitea komeni zitzaigun pentsioen aldeko mugimenduan kokatzeko eta komunean duguna identifikatzeko eta nabarmentzeko", dio Pilar Etxanizek, Antzuolako Landatxope elkarteko kide eta Debagoieneko Agijupens-eko idazkariak. Erretiratu gehien batzen dituen kolektiboa izanik ere, Agijupens ez da pentsiodunen aldarrikapenen alde lanean dagoen bakarra. Beste batzuen artean, Duintasuna eta Oneka –emakumeena– elkarteak ere badabiltza borrokan.

Mugimendu zabala

Kontuan izanda "pentsioen aldeko borrokak azkenaldian hartu duen garrantzia" eta zabalak direla jubilatu eta pentsiodunen mugimenduaren baitan agertu diren informazio eta iritziak, "ez beti bat datozenak", Agijupens-ek bere iritzia eman gura izan du. "Asko eta askotarikoak gara, gauza ugari partekatzen dugu eta, baina pentsatzeko, errealitatea aztertzeko eta soluzioak proposatzeko era ezberdinak ditugu". Nolanahi ere, gaurko eta etorkizuneko pentsioen defentsan bat egiten dugu".

HAUSNARKETA EGIN DUTE ESKUALDEAN DAUDEN PENTSIODUN ETA ERRETIRATUEN ELKARTEEK

Atzera begira, "nahikoa ez bada ere", lortutakoaren balorazio positiboa egiten du Agijupens-ek: "Mobilizazioei esker, lortu dugu gaia alderdi politikoen agendan eta haien diskurtsoetan presente egotea. %0,25eko igoera bertan behera geratu eta bi urtez KPIaren araberako pentsioen igoera lortu zen, pentsio txikienena hobetuz. Sostengarritasun faktorea 2013ra arte atzeratzea ere bai". Pilar Etxanizek uste du agintari politikoek ez zutela espero "horrelako mobilizazio bat hasiko zenik, ezta denboran mantenduko zenik ere". Bestetik, nabarmendu du lorpenen artean, aurretik elkarretaratzeetan eta manifestazioetan egon ohi ez diren erretiratuen jarrera aktiboa eta haien "eskubideekiko kontzientzia" hartzea. Etxanizek dio denendako esperientzia ona izaten ari dela eta azpimarratu ditu emakumeak: "Askorendako lehen aldia izan da pankartan jartzen, Donostiako manifestazioetan parte hartzen…".

1.080 euro, "progresiboki"

Agijupens-ek batzen dituen tokian tokiko 11 elkarteek adostu dituzten aldarrikapen nagusiak ondorengoak dira: pentsioak KPIaren arabera gaurkotzea eta legez bermatzea; sontengarritasun eta birbalorazio faktoreak ukatzea; pentsio txikienak gehien igotzea, eta erritmo onean, eta 1.080 euroko gutxiengo pentsioa progresiboki lortzea, kopuru hori modu hertsian planteatu gabe. "Pentsioa, gure ustez, kotizatu den denbora eta kopuruarekin lotu behar da, baita gutxiengo soldatarekin ere", diote.

MOBILIZAZIOAK "BEHARREZKOAK" DIRELA IRITZITA, PARTE HARTZERA GONBIDATU DITUZTE BAZKIDEAK

Horretaz gain, diote Diru Sarrerak Bermatzeko Errentak (RGI) bazterketa sozial arriskuan dagoen orori laguntzeko balio behar duela, izan langilea, enplegu gabekoa, erretiratua… eta pentsioa ez dela gauza bera. Alarguntasunari dagokionez, diote askotariko iritziak dituztela nork eta zenbat kobratu behar lukeen kontuan izanda. Hala ere, "aho batez" onartu dute pentsioa nahikoa ez bada Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta berehalakoa izan behar dela. Era berean, Debagoieneko Agijupens-ek uste du "40 urteko kotizazioa nahikoa" dela, aurretiko erretiroa deskontu gabe jasotzeko. Eta gutxiengo kontribuzio-pentsioa gutxiengo soldataren parekoa izan behar lukeela, "gutxienez kotizazio-urte eta kopurua" betez gero. Bestetik, adostu dute pentsio "sistema publikoa nahikoa" izan behar dela "sistema pribatua erabili behar ez izateko". Honekin lotuta, inbertsio-plan pribatuen desgrabazioa ez dute onartzen eta uste dute diru-sarrerei "behin bakarrik" aplikatu behar zaiela PFEZ.

Mobilizazioetan parte hartu

1.200 euroko –edo beste kopururen bat izanda ere– gutxiengo soldataren aldarrikapena "lan munduari" dagokiola diote, "sindikatuei". Onartzen dute kopuruak eragina duela gutxiengo pentsioan, baina, pentsiodunen mugimenduaren parte direnez, "aldarrikapen hau eta azaldu daitezkeen beste hainbat ere", ez dituzte lehentasunen artean, baina diote: "Ez dugu esan nahi ezin ditugunik bultzatu".

Bat egiten dute mobilizazioekin, helburuak ez direlako lortu eta "beharrezkoak" direlako, nahiz eta Debagoieneko erretiratuen elkarteko "zuzendaritza batzorderen batek" ez duen "kaleko manifestazioa berea egiten". Eta kontuan hartzeko puntu batzuk zehaztu dituzte: "Leloak eta manifestazio buruetako pankartak unitarioak izatea, eta konpartitzen ditugun edo orokorrak diren aldarrikapenenekin". Horregatik, elkarteetako kideak animatu dituzte mobilizazioetan parte hartzera.

Euskal presoen eskubideen alde

Sarek eta Bakegileek deituta, bi manifestazio egingo dituzte bihar, zapatua, euskal presoen eskubideen alde; Baionakoa 15:00etan hasiko da eta Bilbokoa, berriz, 17:00etan; Debagoieneko herri guztietatik autobusak egongo dira Bilbora joateko

Eneko Azurmendi ARRASATE

Bilboko manifestazioa *Orain presoak* lelopean egingo dute eta 17:00etan abiatuko da, Casillatik. Baionakoa bi ordu lehenago abiatuko da, Errepublika plazatik, eta pankartak *Ez dezagun historia errepikarazi* esaldia eramango du. Bilbokoaren mezua Rosa Rodero ETAren biktimak eta Asun Lasa GALen biktimak irakurriko dute.

Orain Presoak dinamikak manifestazioaren harira kaleratutako oharrean azaldu du urteetako sufrimenduari eta konfrontazioari amaiera ematea "guztion ardura" dela: "Gizartearena, elkarteena, erakunde politiko eta judizialena eta, jakina, Espainiako eta Frantziako gobernuena". Dinamikak "ausardia eta erabakitasuna" eskatu die botere politiko eta judizialei, "urrats gehiago egiteko; urgentea da".

241 euskal preso daude egun

Sarek emandako datuen arabera, gaur egun 241 euskal preso daude, 208 Espainiako espetxeetan eta gainontzekoak Frantziakoetan. Horietatik, 21 "larriki gaixo" daude eta lauk 70 urtetik gora dituzte.

Euskal preso debagoiendarrei erreparatuta, zortzi daude kartzelan eta bat ihesean.

Joseba Erostegi 'Eltzikorta'

1997ko uztailaren 1ean atxilotu zuten antzuolarra, eta hogeita hamar urteko espetxe-zigorra ezarri zioten. Egun, 66 urte ditu eta Herrera de la Manchako (Ciudad Real) kartzelan dago.

Ines Zubia emazteak azaldu duenez, "indartsu" dago, eta osasun aldetik ere ondo. "Azken probetako emaitzak onak izan dira. Gainera, aurten, 2020an, etxean edukitzea espero dugu".

Garikoitz Garcia

Aretxabaletarra 2010eko urtarrilaren 9an atxilotu zuten, Portugalen, eta hogei urteko kartzela-zigorra ezarri zioten. Egun, 41 urte ditu eta Picassent-en (Valentzian) dago.

"Gogor dago, animatuta, eta aurrera egiteko prest. Momentuz, ez dauka murrizketarik eta irteera data 2030eko ekainerako dauka jarrita. Gradu aldaketarik ere ez dauka, oraingoz", azaldu du Amaia Garciak, arrebak. "Legea betetzea eskatzen dugu, eta beste preso batzuei aplikatzen zaien lege bera gure senideei ere aplikatzea", gaineratu du.

Josu Arkauz

1991ko martxoaren 20an atxilotu zuten eta 115 urteko zigorra ezarri zioten. Egun, 62 urte ditu eta Murtziako espetxean dago. "Tristeena da martxoan 29 urte bete behar dituela kartzelan, eta oraindik ez daukala irteera datarik. Ez digute ezer esaten. Urteak aurrera doaz, eta ez dago aldaketarik", dio Ramon Arkauzek, anaiak. "Eskuinaren diskurtsoak ez du batere laguntzen. Funtzionarioak eta langile guztiak aurka ditugu, eta kartzeletako giroa ez da ona. Gabonetan ere egun garrantzitsuetan komunikazio guztiak eten dizkiote. Halako detaileek islatzen dute kartzelan bizitzen ari den egoera".

Unai Parot

Arrasatearra 1990eko apirilaren 2an atxilotu zuten, eta 4.797 urteko espetxe-zigorra ezarri zioten –40 egingo ditu espetxean–. Gaur egun, 61 urte ditu eta Puerto de Santa Marian dago, Cadizen. Senideek ez dute adierazpenik egin gura izan.

Marixol Iparragirre

Eskoriatzarra 2003an espetxeratu zuten, eta, 2010ean egindako epaiketan, 20 urteko zigorra ezarri zioten.

Egun, 58 urte ditu. "Frantziako Estatuan 20 urteko kondena bete ondoren utzi zuten Espai-

"Araudia euskal presoei aplikatzea eskatzen dugu"

JOSEBA AZKARRAGA SAREKO BOZERAMAILEA

Sare euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen aldeko plataformako bozeramailea da Joseba Azkarraga (Gasteiz, 1950).

Zergatik da garrantzitsua hilaren 11ko manifestazioa?

Irakurketa bikoitza dauka: batetik, milaka pertsona prest daude, ideia politikoetatik aparte, presoek jasaten dituzten eskubide urraketak salatzeko. Bestetik, inportantea da Gobernu berriak ikustea gure kalearen isla, urtez urte aldarrikatzen ari dena espetxe-politika hau amaitzeko. Horrez gain, euskal instituzioek mantendu duten jarrera ere aldarrikapen horien aldekoa da.

Zein aldarrikapen nagusi izango ditu?

Urte asko pasa dira ETAk armak baztertu zituenetik, eta bada garaia espetxe-politika aldatzeko. Gatazka honen irtenbidean parte aktiboa izan behar dute presoek. Beraz, hiru helburu ditugu: urrunketaren politika bukatzea; larriki gaixo dauden presoak askatzea eta euskal presoei aplikatzen zaizkien salbuespen politikak bukatzea. Espetxean sartzen direnetik irteten direnera arte lehen graduan daude. Eskubide urraketa konstantea da hori.

Legea betetzea da, azken batean, eskatzen duzuena, ezta?

Hori da. Ez gara tratu esklusiborik eskatzen ari. Espetxe araudia euskal presoei aplikatzea da eskatzen duguna, Gobernuak bere legedia aplikatu dezala, alegia. Legea modu berean aplikatu behar zaie preso guztiei, eta ezin zaie eskatu orain arte egin dutena baino gehiago egitea, baldintza beretan egoteko.

Oraindik 241 preso daude Euskal Herritik urrun.

Duela zortzi urte 700 zeudela esango du batek. Baina irten direnak zigorra guztiz beteta irten dira. Ez da egon neurri berezirik zigorra humanizatzeko.

Ondorio asko dakartza urruntze politikak, gainera.

30 urte dira urruntze politika abiatu zenetik. Preso hauen ia %60ren senideek guztira 2.000 kilometro inguru egin behar dituzte 40 minutuko bisita bat egiteko. Beste gehienek, 1.000 kilometro inguru. Horrez gain, oso txikiak diren 115 bat haurrek distantzia horiek egin behar dituzte aita edo ama edo biak bisitatzeko. Mendeku garbi baten ondorioa da hori.

J.A.

"EZ DA ALDARRIKAPEN POLITIKO BAT; GIZA ESKUBIDEAK DAUDE JOKOAN, ETA HORIEK UNIBERTSALAK DIRA"

ETA desegin zenetik ia bi urte pasatu dira. Zenbat aldatu dira gauzak ordutik hona?

Oso gutxi. Zertxobait gerturatu dituzte hogei bat preso, baina bakarra ere ez Euskal Herrira. Oro har, oso urrun mantentzen dituzte. Larriki gaixo dauden presoek kartzelan jarraitzen dute, eta hiltzear daudela askatzen dituzte. Gizagabetasun izugarria da hori. Pedro Sanchezek 2018ko ekainean adierazi zuen espetxe-politika aldatu egin behar zela ETA desagertu ondoren, baina hitz horiek ez ditu ekintza bilakatu. Emakumezko presoen kasuan, gainera, urrun egoteaz gain, sakabanatuta daude, bakarrik. Hori ere bada beste aldarrikapenetako bat. Kontzentratu ditzatela espetxe berean, eta etxetik ahalik eta gertuen.

Sanchezen Gobernu berriak emango al du aurrerapausorik?

Eskuin muturrak presio inportantea egingo duela garbi dago, baina konfiantza eduki behar dugu hitzak ekintza bilakatuko direla. Edozein kasutan ere, gu ez gara geldi geratuko eta aldarrikatzen jarraituko dugu, gizartea aktibatuz, eskubide urraketa hauek amaitu arte.

Bukaera hori gertu ikusten duzu?

Giza eskubideak errespetatzeari buruz ari gara eta honek ezin du luzaroan jarraitu. Baikorrak izan behar dugu.

Larri gaixo dauden presoak kaleratzea da beste eskakizunetako bat.

21 dira gaur egun, eta gaixotasun oso larriak dituzte. Ez dauka zentzurik kartzelan mantentzeak, etxetik ehunka kilometrotara, gainera, legeak etxeratzeko aukera ematen du eta.

Zer esango zenioke manifestaziora joateko zalantzan dagoen horri?

Ez da aldarrikapen politiko bat. Giza eskubideak daude jokoan, eta horiek unibertsalak dira, baita presoenak ere.

Bilbon urtarrilean egindako manifestazioetako bat. FLICKR

niaren esku. Egun, Avilako kartzelan daukate. Momentu honetan Marixol epaitu gabe dago eta bere aurkako akusazioak polizia-etxeetan emandako testigantzetan oinarritzen dira", dio Larraitz Iparragirre ahizpak.

Xabin Usandizaga
Oñatiarra 1997ko uztailaren 3an atxilotu zuen Guardia Zibilak, Oñatin. Egun, 60 urte ditu eta Kordoban dago. "Animatuta dago, indartsu. Izan ere, uztailaren 28an aterako dela esan diote, eta pozik dago, hunkituta. Burua hemen dauka dagoeneko. Gu ere pozik gaude, noski. Oraindik zaila egiten zait aita hemen irudikatzea, baina ederra izango da. Erabat aldatuko zaigu bizitza", azaldu du Maider Usandizaga alabak.

Joseba Arregi
Oñatiarra 1992ko martxoaren 29an atxilotu zuten eta 36 urteko espetxe-zigorra ezarri zioten. 74 urte beteko ditu martxoan, eta Alacanteko Villena espetxean dago. "27 urte daramatza kartzelan, eta kalean egon beharko luke jada; adina ere ez diote errespetatzen. Guk prentsa bidez jakin genuen Asturiasera lekualdatuko zutela eta bost egunen ostean jakin zuen berak, guk esanda. Ofizialki orain jakinarazi berri diote Asturiasera aldatuko dutela", adierazi dute senideek.

Angel Telleria
Oñatiarrak bi urte eta erdi daramatza kartzelan, Guanajuaton (Mexiko) atxilotu zutenetik. 1981eko Maria Josefa Garcia poliziaren hilketa leporatzen diote. Egun, 63 urte ditu eta Estremeran dago, Madrilen. "Aldarte aldakorra dauka. Batzuetan, ondo dago; beste batzuetan, okerrago. Baina indartsu mantentzen da. Egoera antzekoa da guztiontzat, eta tristuraz bizi dugu, gauzak aldatzen ez direla ikusita", dio Kontxi Telleriak, arrebak.

Alberto Plazaola
2015eko martxoaz geroztik ihes-laria da oñatiarra; izan ere, Frantziako espetxean betetako zigor urteak ez zizkiotela kontuan hartu ikusita, ihes egin zuen.

Autobusak Debagoienetik
Antzuolakoa geltokitik irtengo da, 15:15ean; Aramaiokoa, 15:00etan, biribilgunetik: Aretxabaletakoa, Eroskitik 15:15ean –Ernairena 15:00etan–; Arrasatekoak, Garibaitik –11:00etan egun osokoa eta 15:00etan arratsaldekoa–; Bergarakoak, goizekoa 11:00etan geltokitik eta arratsaldekoak, 15:00etan Osintxu eta Angiozartik eta 15:15ean geltokitik; Elgetakoa, 15:30ean, plazatik. Eskoriatzakoa 15:00etan eta Gatzagakoa 14:45ean –biak geltokitik–. Oñatikoak, 10:00etan eta 15:00etan, unibertsitatetik.

DEBAGOIENETIK AUTOBUSAK ANTOLATU DITUZTE BILBOKO MANIFESTAZIORAKO

'ELTZIKORTA' AURTEN ASKATZEA ESPERO DUTE SENIDEEK, ETA UZTAILEAN ASKATUKO DUTE USANDIZAGA

Bailarako enplegu azoka otsailean egingo dute

Otsailaren 13rako eta 14rako antolatu du Mankomunitateak Debagoieneko Enplegu Azoka. Eskualde mailako ekimena Garaia Parke teknologikoan egingo dute; enpresek eta lan bila ari diren pertsonek euren burua ezagutzera emateko aukera izango dute

Maialen Santos DEBAGOIENA

Enplegu Azoka enpresen eta langabezian daudenen topagunea izan dadin nahi du Debagoieneko Mankomunitateak. Bertako lehendakari Maite Antonek azaldu moduan, enpresek –eta erakundeak– euren "negozio ereduak" azaltzeko baliatuko dute otsailaren 13an eta 14an egingo den azoka; eta negozio eredu horiek garatzeko zein profiletako pertsonen beharra duten zehaztuko dute. Bestetik, lan bila ari diren pertsonek enpresen aurrean euren hautagaitza eta profila azaltzeko aukera izango dute: "Talentuak eta aukerak bat egiteko gunea izango da azoka", laburbildu du.

Hala, stand ezberdinetan kokatuko dira azokan parte hartuko duten enpresak, eta bertan garatuko dituzte jendearekin hartu-emanak, Koldo Azkoitia Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentziako arduradunak adierazi duenez: "Bertan egingo dituzte gerturatzen direnekin elkarrizketak, zuzen-zuzenean". Gaineratu duenez, enpresek euren balio proposamenei buruzko aurkezpen txikiak egiten jardungo dute, "etorkizuneko langileak" erakartzea helburu. Eta curriculumak jasoko dituzte, gainera.

20 parte hartzailetik gora
Dagoeneko 20 erakundek eta enpresak baino gehiagok azaldu dute azokan parte hartzeko nahia, Azkoitiaren hitzetan. Halere, izen-emate epea zabalik dago oraindik; Debagoieneko Mankomunitatera deitu behar da.

Azokaz gain, beste egun batzuetan ere egingo dituzte ekintzak. Urtarrilaren 27an enpresei zuzendutako tailerra egingo dute Mankomunitatean. *Talentua nola erakarri* ikasteko aukera izango da bertan, eta enpresek euren aurzkepenak modu egokian nola garatu beharko lituzketen azalduko dute. Horretaz gain, pertsonei zuzendutako tailerra ere egingo dute, norberaren burua enpresaren aurrean nola aurkeztu ikasteko. Herri ezberdinetan egingo dute hori, otsailaren 3an Oñatin; 4an Bergaran; eta 5ean, azkenik, Arrasaten. Izena emateko, Mankomunitatera deitu behar da. Datorren astetik aurrera, bestalde, *www.debagoiena.eus/enpleguazoka* webgunea zabalduko dute, informazio gehiago eskura egon dadin.

Debagoieneko Mankomunitateko ordezkariak, azokaren aurkezpenean. M.S.

Pasa den azaroa ezkero aldarri zuzen batekin Elorregin dagoen komuna. JONE OLABARRIA

Komuna Elorregin, behar eta eskaera aspalditik

Erabiltzaileen aspaldiko beharra da Elorregiko autobus geltokiko komuna, eta, azken urteetan hainbat eskari egin diren arren, oraingoz ez dute erantzun "zehatzik" izan. Konponbide bila, Oñatiko Udalak 2020ko aurrekontuen partida bat bideratu du

Jone Olabarria DEBGAOIENA

"Aspaldiko beharra eta eskaera" da Elorregin komun bat egitearena. "Herritar askok, bidaia luzeen ostean, Elorregin itxaron behar dute eta komunera joateko beharra izanez gero ez dago aukerarik. Izan ere, batzuek aparkalekuaren atzean dagoen makaldia erabiltzen dute euren beharrak egiteko, dena narras utzita, baina benetako irtenbidea da behar duguna". Horrela adierazi du Elorregiko auzoalkate eta *Sanprubus*-eko arduradunak, Jon Mujikak.

"2017. urtean jada eskaera bat egin genuen Oñatiko, Bergarako eta Arrasateko udaletan. Orduan, Oñatiko Udaletik Gipuzkoako Foru Aldundira bideratu zuten gaia, baina Aldunditik ez ziguten konponbiderik eman". *Sanprubusa* zabaldu ostean ere, 2019an, sinadura bilketa bat egin zuten komuna eskatuz.

Bi astean 1.600 bat sinadura batu zituzten, eta sinadura horiek Oñatiko eta Arrasateko udaletara bideratu zituzten: "Lehen kasuan, erantzun formal bat jaso genuen, gaia bideratuko zutela esanez, baina, Arrasateko Udalari dagokionez, idatzizko erantzunik ez dugu jaso. Telefonoz esan zidaten oñatiarrek gehiago erabiltzen dutenez haiei zegokiela komunaren kontua, baina, bestela, ez dugu idatzizko erantzunik izan".

Auzotarren eta erabiltzaileen eskariez gain, pasa den azaroan *Komuna noizko? WC ya!* lelopean komun bat agertu zen Elorregiko autobus geltokian; ordutik hona bertan mantendu den eskari zuzena, hain zuzen ere.

Oñatiko aurrekontuetan

Pasa den abenduan onartu zituen Oñatiko Udalak 2020. urteko aurrekontuak eta horien baitan 20.350 euroko partida bat Elorregiko komuna eraikitzera bideratu zuten. Udaletik adierazi dutenez, "Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun Departamentuari dagokio Elorregin komuna jartzea, baina, hainbatean eskaria egin arren, ez soilik legealdi honetan, baita aurrekoan ere, ez dugu erantzun baikorrik jaso".

Arazoari irtenbidea "eman beharra" azpimarratu dute, eta, herritar askoren eskaera izanik, aurtengo aurrekontuen partida bat bertara bideratzea erabaki zen: "Oñatiko Udalaren aurrekontuetatik 20.350 euro Elorregiko komunetara bideratu diren arren, Arrasate eta Bergarako udalekin elkarlanean egin nahiko genuke hau".

Arrasaten elkarlanerako "prest"

Arrasateko Udalean galdetuta, komunaren beharra azpimarratu dute eta elkarlanean aritzeko "prest" daudela azaldu du Anuska Ezkurrak: "Arrasateko aurrekontu parte hartzaileetan herritarrek eskatutako zerbait da Elorregiko komuna, herriko beste hainbat gunetan bezala. Hortaz, oraindik aztertzeko dago lehentasuna zeri eman behar zaion".

Ezkurrak adierazitakoaren arabera, aurrekontuetako partida bat bideratu dute herriko gune ezberdinetan komunak eraikitzeko, baina oraindik aztertzeko daude beharrak eta horien arabera finkatuko dituzte lehentasunak.

Bergara, mugatik kanpo

Elorregin Bergara, Arrasate eta Oñatiko mugek bat egiten duten arren, autobus geltokia eta aparkalekua hartzen dituen eremua Oñatiren eta Arrasateren lurretan dago, eta Bergara muga horietatik kanpo geratzen da. Gauzak horrela, Bergarako Hirigintza Sailak azaldu duenaren arabera, ez du Elorregiko komunen eraikuntzan parte hartzea aurreikusten, Arrasateko eta Oñatiko lurretan dagoelako.

Dena den, hiru udaletatik gogorarazi dute Elorregiko komunen eraikuntza eta mantentzea Gipuzkoako Foru Aldundiak egin beharreko lana dela.

"OÑATIKO UDALAREN AURREKONTUETAN 20.350 EURO BIDERATU DITUGU KOMUNETARA"

"AURREKONTU PARTE HARTZAILEETAN ESKATU ETA PREST GAUDE ARRASATEN ELKARLANERAKO"

Hasi dira 2020ko 'Goiena gida' bailarako etxeetan banatzen

Debagoieneko komertzioen eta zerbitzuen gidarik osatuenaren 18.100 ale banatuko dira aurten

J.O. DEBAGOIENA

Paperean argitaratutako *Goiena gida*-ren 18.100 ale banatuko dira aurten bailarako etxeetan, hiru ediziotan banatuta: Oñati; Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Aramaio; eta Bergara, Antzuola eta Elgeta. Debagoieneko komertzio eta zerbitzuen gidarik osatuena eta eguneratuena da *Goiena gida,* eta, azken urteetan bezala, Internet bitartez kontsultak egiteko aukera ere eskainiko da, *Goiena.eus/gida* helbidera sartuta.

Mugikorretarako prest

Mugikorretan ere jarri nahi izan dute fokua, eta, hain zuzen, Goiena Komunikazio Taldeko zuzendari komertzial Mireia Larrañagak azaldu duenez, "mugikorretik kontsulta bat egiten duzunean, zuzenean bertara deitzeko aukera dago. Aspalditik hori eskaintzen genuen arren, gaur egun guztiz beharrezkoa da, *Goiena.eus*-en sartzen diren erabiltzaileen %65 mugikorretik sartzen baitira".

2020ko gidak dagoeneko prest. J.O.

Zerbitzu osoa

Negozioen telefono eta helbideak eskaintzeaz gain, bestelako eduki batzuk ere jasotzen ditu gidak, hala nola 2020ko egutegia, bailarako herrietako jaien egutegia, intereseko beste telefono batzuen gida bat, guardiako farmazien egutegia, zaborren bilketarena ere bai, eta, duela bi urtetik, Debagoieneko desfibriladoreen kokalekuak ere ageri dira.

GUTUNAK

Esker ona

ITZIAR ARANBURU
PILAR MARTINEZ ABARRATEGIREN SENIDEEN IZENEAN
ARRASATE

Abenduaren 19an gure ama Pilar Martinez Abarrategi joan zitzaigun. Bizitzaren azken uneak etxean pasa zituen, lasai, goxo, gu geu, bere senideok, ondoan zituela, maitasun, babes eta berotasun giroan. Hutsune handia utzi digu benetan.

Hori guztiori, neurri handi batean, posible izan da Arrasateko osasun zerbitzuetako profesionalen laguntzagatik. Bereziki aipatu nahi ditugu Tirso Sagarminaga lehen mailako arreta zerbitzuko medikua eta Felix Garcia zerbitzu bereko erizaina. Zenbat bisita etxera! Gure amak izan dituen osasun arazo guztien aurrean erakutsi duten profesionaltasun, gertutasun eta begirunea benetan eskertzekoa da. Ez bakarrik amarekiko, familia guztiarekiko baizik.

Debagoieneko ospitalean ingresatuta egon zen denboran, plantako ekipo osoari eskerrak eman nahi dizkiogu, bertan jaso duen tratua oso egokia izan delako.

Azkenik, heriotza iritsi aurreneko egunetan, Etxeko Ospitalizazioko ekipoaren ekarpena jaso dugu. Gure etxera gerturatu diren profesional guztiei eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu; bereziki, Jesus medikuari eta Ariane erizainari. Hasieratik bukaerara arte arreta ezin hobea izan du amak, batetik, eta inguruko senide guztiek, bestetik. Amaren eta etxekoen nortasunak ezagutuz, goxotasuna eta enpatia erakutsiz, aholkuak emanez, gu lasaitzen ahaleginduz, azken bidaia modu duin eta lasaian egin zezan lagunduz.

Bihotz-bihotzez mila esker guztiei.

Behin-behineko bizitzak

ION ALBIZU GONZALEZ
ARETXABALETA

Batzuek bizitza maileguan dugu, bizimodu prekarioa: azken finean, behin-behinekoz bizi baikara. Eta azalduko naiz.

Azken hilabeteetan, urteak esango nuke, narratiba faxisten gorakada bizitzen ari gara, ultraeskuindarrena. Lehen politikoki okerra zena orain esatea baimenduta dago. Eta esaten da.

Eta zein da narratiba hori, zeintzuk mezu horiek? Edo, hobeto esanda, nori zuzenduta daude?

Bada, maileguz bizi garenoi. Behin-behineko eskubideak ditugunoi.

Emakumeak; homo/les/trans/+; etorkinak; pobreak…

Edo txarragoa: imajinatu etorkina, emakumea, lesbiana eta txiroa zarela. Sutara.

Baina ez lasaitu hainbeste, ez da bakarrik identitate kontu bat. Faxismoak ere badaki, besteak beste, gorriek eta separatistek traba egiten dutela. Beraz, zailagoa oraindik, aurrean esandako ezaugarri guztiak elkartu eta… bingo.

Horregatik guztiagatik, gizon zuria bazara, hemengoa, heterosexuala, aberatsa, moderatua edo eskuindar samarra, eta independentista ez bazara, urduritasun puntu bat bakarrik komeni zaizu. Albo-kalteak gertatu daitezkeelako, batik bat.

Baina, kontrara, horietakoren bat –behintzat– bazara, pentsa ezazu zure bizitza maileguan bakarrik dagoela, maileguan bakarrik duzula.

Are gehiago, haiek nahi ez duten hori guztia –edo ia guztia– bazara, oso urduri jartzea gomendatzen dizut. Ni, behintzat, halaxe nago.

Eskerrik asko guztioi!

MARIA ARANZAZU URIARTE
ARRASATEKO ERREGE KABALGATAKO BATZORDEAREN IZENEAN
ARRASATE

Arrasateko Errege Kabalgatako Batzordeak eskerrak eman gura dizkie hauei guztiei: Udalari, Udaltzaingoari, Obretako Brigadari, Lurraldebusi, Gurutze Gorriari, Eroskiri, Laboral Kutxari, La Caixari, Kutxari eta kabalgatan parte hartu duten herritar guztiei.

Horiei guztiei esker, beste urte batez, ilusioa banatu dugu umeen artean eta Iturbide egoitzan daudenen artean.

Eskerrik asko denoi!

Zuhaitzak mugitu egiten dira

JOSU GARITAONANDIA
'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN ARDURADUNA
BERGARA

Anders S. Barford-ek eta Andras Zlinszky-k, Aarthus unibertsitateko maisuek, esan dute zuhaitzak mugitu egiten direla, eta ez haizeagatik bakarrik.

Tridimentsional modernoekin neurtuta, zuhaitzen enborrak zentimetro bateko gorabeherak izan ditzakeela bi eta sei ordu arteko zikloetan.

Guk uste duguna baino antz handiagoa dute zuhaitzek gizakiekin; baina mugimendu honek ez die balio suteetatik salbu geratzeko: 2019an 2018an baino lau aldiz lursail gehiago erre ziren Espainiako erreinuan.

Datu kezkagarria da, kontuan izanik gizakiok zuhaitzik gabe ezingo ginatekeela bizi; beharbada, horregatik egongo da errotuta zuhaitz bat ipintzea gure etxeetan Gabon jaietan.

Ondo dago ohitura bezala, baina egoerari buelta emateko denok hasi beharko genuke bazter guztietan zuhaitzak landatzen.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HANDIK ETA HEMENDIK

Inbestidura

ONINTZA ENBEITA
HTTPS://LABUR.EUS/DAWSC
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Harrigarria da duela ez hain aspaldi bizi izandakoak zein urrun gorde ditzakegun gure memorian. Izan zen garai bat inbestidura saioak bertatik bertara bizi izan nituena, baina orain lainotutako oroitzapenak baino ez zaizkit gelditzen. Aste honetan beste batzuei begira egon naiz, eta flipatu egin dut. Flipatu, inbestidura saioan gertatu direnak ikusita. Izan ere, han nengoenean izugarria iruditu zitzaidan politikariek politika bizitzeko daukaten modua, eta, orain, gauzek okerrera egin dutela dirudi. [...]

Lehen ikusi genituenak gutxi ez, eta orain bizkarra ematen dute gustatzen ez zaien norbaitek berba egiten duenean, aretotik ospa egiten dute hitz egiten ari denaren arabera, euren txanda iritsi bitartean oihu egiten diete hizketan ari direnei. Eta horrela etengabe.

Harrigarria da hain edukazio maila baxuko jendeak zein goian daukan bere burua. Sorbalden gainetik begiratzen digute besteoi, gutxitzat botatzen gaituzte, dugun diruaren arabera neurtzen gaituzte. Ez da bakarrik faxistak direla, ultraeskuinekoak direla, gorroto gaituztela... ez izatearren, edukaziorik ere ez dute.

Post gehiago 8. orrialdean.

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA

ZABALIK

IRAITZ AGIRRE ARANGUREN

Kaleko hormek diotenean

Ezohiko puntualtasunaz heldu nintzen lagunarekin hitzordua egindako lekura. Ingurura begira nengoela, kalearen beste aldean ikusi nuen kartel erraldoia zeharka. *Déjà vu* antzeko bat izan zen, urteak neramatzan-eta horrelako bat kaleko hormetan ikusi barik. Gerturatu eta ehunka aurpegi horien argazkiei begira gelditu nintzen.

Ehunka euskal herritarren irudi, izen-abizen eta herriak. Patxadaz hartu nuen, ezagun egiten zitzaizkidanak kokatzen saiatuz eta zerrendara azken hamarkadetan batutakoen gaztetasunaz asaldatuz. *Collage* hari begira, dagoeneko berau osatzen ez dutenengatik poztu nintzen; asko, gainera, asko izan dira eta. Ez dira jada 564, gure plazetan kantatu dugun bezala; ezta 246 ere, azken egunotan batek baino gehiagok agur esan baitio espetxeari. Bat eta bi eta hiru gutxiago, gutxienez. Eta zenbakiak beldurgarriak izan arren, are handiagoa da kopuruak argazkietan hartzen duen dimentsioak sortzen duena.

ARGAZKIAK IRAGANARI LOTURIKO SOKAK DIRELA IRAKURRI DIOT LAGUN BATI SARE SOZIALETAN

Hitzordura puntual zetorren laguna batu zitzaidan hormak zioenari begira jarri eta ariketan laguntzera: *Begira hau. Begira bestea. Garai historiko eta politiko ezberdinetako atxiloketen genealogiak osatu daitezke honi begira. Denok ere aurrera goaz, e? Ez, ez diot oraindik gutuna idatzi. Hau bakartuta dute emakumezkoen espetxean. Erreportaje interesgarria eman dute asteon. Larunbatean Bilbo edo Baionara? Eta gero zer? Zenbat urte esan duzu? Hainbeste? Gu ere esperientzia metatzen ari garen seinale.*

Argazkiak iraganari loturiko sokak direla irakurri berri diot lagun bati sare sozialetan. Horrela izango da, gainera. Baina kasu honetan, argazkiek orainaldiz eta errealitatez betetako zaplazteko dosi bat jasotzeko ere balio dutela esango nuke. Izan ere, udal-ordenantzen gaindi, eskerrak kaleetako hormek espetxe politika bidegabea salatu eta bidera irtetera gonbidatzen gaituzten oraindik.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE

HANDIK ETA HEMENDIK

Bizipoza

JOSEBA BARANDIARAN
'TTAP'-EN ARGITARATUA

Zortzi hizki. Hitz bakarra. Zerk damai? Aukera ugari. Ziur, gauza txikiren bat dela. Goizeko muxu hori. Kafetegi ttipi horretako kruasana. Goizeko ogi usaina. *Egunean Behin*-eko partida. Alabaren goizeko ”egunon, amatxo/aitatxo!”. Maiteenen irribarre konplizea. Ingelesez nola esaten zaio? *Joy of life?* Gazteleraz? *Alegría de vivir?* Nonahi egon liteke. Nonahi topa. Norbere hizkuntzan sarriago.

Izango da osasunak ematen duela uste duenik. Izango da osasuna ezinbesteko, baina ez nahiko, jotzen duenik. Baina osasunaz harago dago gakoa: penak, konpartituta, arinagoak direla. Gaixotasuna ere, konpartitua, eramanerrazagoa den legez. Bakardadea bera gaitza izan daitekeelako. Taldelan horren onuraren frogak izan, badirelako.

Dokuweb bat dakarkizuet. Ez gara ikusi zaharrak; Bilbon (ere) aurkeztu ziguten. Bisitatu *Bizipoza.eus* web orria. Danobat –ez al da izen ederra?!– Group taldeak bultzatua omen. Hainbat jende topatuko duzu hor, kolore, tamaina eta izaera ezberdinekoak. Gaixoak batzuk, bereziak guztiak. Eta bizipoza darienak. 30 taldetik gora ikusiko dituzu Sanfilippo, Down, Ume Alaia, Kale Dor Kayiko, Oporrak Bakean, Chernobilen lagunak… anitzak izenetan, are aberatsago izanetan. Guztiak Bizipoza elkartean batuak. Kolore ugari, ostadar bakarra.

Gutxirekin asko egin daiteken erakusgarri. Dirua baino gehiago, denbora, ardura, arreta, maitasuna, begirada zein garrantzizko diren erakusgarri. Poza ez baita bizipoza. Poza ttantta bat da, zaparrada. Bizipoza euri ura, geuri ura. Egarria asetzen diguna. Ezinbestekoa.

Post gehiago 7. orrialdean.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA
www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma, Amaia Martinez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Maila politiko eskasa izan du inbestidura saioak"

MIKEL ARREGI RADIO EUSKADIKO BERRIEMAILEA MADRILEN

Eneko Azkarate Laspiur ARRASATE

Mikel Arregi kazetari mondragoetarrak 2015eko irailetik dihardu Madrilen Radio Euskadiko, bereziki, eta Euskadi Irratiko berriemaile. Azken egunotako Espainiako presidentearen inbestidura bertatik bertara jarraitu du.

Egun hauetako zurrunbilo informatiboa intentsuenetakoa izan da?

Gogorra izan da. Gabonetan, 24an, 25ean, 31n eta 1ean jai izan dut eta Arrasaten izan naiz. Gainerako egunetan Madrilen, nahiz eta egunak neuzkan jai hartzeko.

Gogoan duzu beste uneren bat informazio aldetik horren estua izan dena?

Madrilera etorri naizenetik, oso urte gorabeheratsuak izan dira. Bost urte ez ditut bete oraindik eta bost legealdi ezagutu ditut. Mariano Rajoiren sasoia ahaztu zaigu, baina hura ere izan zen oso bizia informazioaren aldetik: hauteskundeak, Kataluniako prozesu subiranista, zentsura mozioa... Berez, une historikoak dira, kontatzeko interesgarriak, baina gogaikarriak ere badira, deskonektatzeko astirik ez duzulako.

Kazetari arrasatearra, oraingo astean, Madrilgo etxean. M.A.

Eskumako alderdien presioengatik, Pedro Sanchezen inbestidura kolokan ikusi duzu egun hauetan?

PSOEk oso argi zeukan haien taldeko inork ez zuela alderdiaren kontrako botorik emango eta ez zela gertatuko *Tamayazo*-rik. Rafael Simancas sozialisten talde parlamentarioko burua bera arduratu da horretaz. Bestelakoa da beste alderdi batzuek, txikiek, bereziki, jaso duten presioa.

Ze nabarmenduko zenuke eztabaida saioetatik?

Eskumako alderdiek, bereziki PPk eta Voxek, izan duten jarrera beligerantea, batez ere, EH Bildurekiko, eta baita Pedro Sanchezen eta Kataluniako independentisten aurka. Antzezpen puntua ere izan dute hainbat hitzaldik, telebistarako eginak bezala. Horretaz gain, atentzioa eman dit ze sakonera txikiko edo ze maila eskaseko interbentzio eta eztabaida politikoa izan dugun, zelako proposamen gutxi egin diren. Legealdira begira, oso kezkagarria da. PP eta Vox lehia bizian daude eta ez dute hanka azeleragailutik altxatuko. Eta Ciudadanos ere, bere irrelebantzian, saiatuko da proposamen propagandistikoak egiten; Espainiako udaletan EH Bilduren aurkako mozioak aurkeztea, esaterako.

Erabakigarria izan da ERCren jarrera.

Bai, eta nabarmenduko nuke Gabriel Rufian. Erakutsi du akordioetara heltzeko gaitasuna. Sakontasun politiko handia ikusten diot. Akordio inportantea da ERCren eta sozialistenen artekoa.

Ze iruditu zaizu EH Bilduren eta EAJren bozeramaileen parte hartzea inbestidura saioetan?

Puntako bozeramaileak dituzte Madrilen EAJk eta EH Bilduk. Aitor Esteban ezaguna da eta haren lana aitortua da, baina EH Bilduk erakutsiko du legealdi honetan orain arte izan duena baino protagonismo handiagoa. Sozialistak kaltetzeko EH Bilduren aurka eskumak hasitako kanpainak mesede egingo dio EH Bilduri.

EAJren protagonismoa ahultzea ekarriko du horrek.

EAJk Madrilen daukan ospea eta eragiteko ahalmena EH Bilduk ez dauka oraindik, baina epe ertainera bi alderdien arteko lehia areagotu egingo da. Pablo Iglesiasek esan du EAJ bezain garrantzitsua izango dela EH Bildu Espainiako gobernagarritasunean.

Euskal Herriko politikan izango du eraginik?

EAJk erakutsi du abilezia PSE-EErekin duen akordiora Ahal Dugu ere erakartzeko. EAEko eta Espainiako gobernagarritasuna PSOE, EAJ eta Podemos ardatzetik pasako dela ematen du.

ITURRI ONETIK

Iñaki Urdangarin eta Cristina Borboikoa, Aramaion

Iñaki Urdangarin –kartzelan den Felipe VI.a Espainiako erregearen koinatua– Aramaioko Azkoaga auzoko jatetxe baten izan da Gabonetan, emazte Cristina Borboikoarekin eta beste senitarteko batzuekin batera. Asentzio eta Untzilla inguruetan paseatzen ere ikusi dituzte. Izan ere, kartzelatik irteteko lau eguneko baimena zuela-eta Gasteizen eta Arabako beste toki batzuetan egon dira. Gasteizen ikusi ditugu hedabideetan. Aramaion ere izan dira.

ALBISTE IZAN ZEN

2005-01-14

Galdeanok ireki zuen sagardo denboraldia

Hastear da Sagardo denboraldia Astigarraga eta Hernani aldeko sagardotegietan eta Debagoieneko sagardo berria ere dastatzeko aukera izango da aurki. Duela 15 urte, Igor Gonzalez de Galdeano txirrindulari gasteiztarrak ireki zuen Aramaioko Iturrieta sagardotegiko 2005eko sagardo denboraldia. Liberty Seguros-en Manolo Sainzekin azken urtea eginda, urte hartan hartu zuen erretiroa arabarrak.

GOIENA

HAU BE BADOGU!

Begiradak, Kongresuan

Asteko gaia izan da Pedro Sanchezen inbestidura sare sozialetan:

@KoldoTellitu: "Jendeak gaur jarraituko du inbestidura-bozketa futbol partida bat balitz bezala? VAR beharrezkoa izango da?".

@GoizaneT: "Inbestidura nabil ikusten eta ez dakit ondo barre egin edota negar egin. Zelako nagia dena".

@imbeizama: "Egun batean gaztea zara, eta hurrengoan gaupasero guztiekin gurutzatzen zara Kongresuko inbestidura saiora zoazela".

@nperezi: "Konstituzioa ezin da izan herrientzako kaiola".

Udaleko eta Aztikerreko ordezkariak, kalean jarriko diren panel informatiboen aurrean. XABI GOROSTIDI

Iritsi da TAO sistema berriaren hezurdurari ekarpenak egiteko ordua

Sistema berriaren hasierako proposamena postontzietan dago. Urtarrila ekarpenak egiteko fasea izango da –herrian erroldatuta ez daudenek ere egin ditzakete–, eta, ostean, ausaz aukeratutako herritar talde batek egingo du azken proposamena

Xabi Gorostidi ARRASATE

2020an forma hartuko du Arrasateko erdigunean aparkatzeko TAO sistemak (OTA), eta "2020 amaierarako edo 2021 hasierarako" martxan egotea da Udalaren aurreikuspena. 2018ko apirilean aho batez onartu zuen udalbatzak Mugikortasun Plana, eta bertan, TAO sistema erdigunean aplikatzea jasotzen zen. Horren ostean, hainbat bizilagunek kexa bidez eskatu dute sistema berria aplikatzen hastea –Munar, San Andres eta Bizkaia etorbidekoak, besteak beste–.

Parte hartze prozesua

Sistema berria herritarren ekarpenekin eta parte hartzearekin osatzea da Udal Gobernuaren nahia, eta Aztiker enpresa adituaren laguntzarekin parte hartze prozesu bat diseinatu du. Herritarrei etxera bidali zaien planteamendua behin-behinekoa dela gogorarazi nahi izan dute, hori herritarren ekarpenekin osatu nahi dute eta. Eguaztenean egindako agerraldian eman zuten parte hartze prozesua aditzera –Udaleko alderdi politiko guztien babesarekin– eta hiru fase izango ditu: lehen fasea urtarrilaren 13tik 17ra izango da eta bi helburu izango ditu: informazioa zabaltzea eta ekarpenak batzea.

Informazioa zabaltzeko panel informatiboekin hornitutako gune ibiltariak jarriko dituzte herrian –lekuei eta ordutegiei buruzko informazioa beheko zatiduran dago– eta bi eztabaida saio publiko egingo dituzte: hilaren 14an Etxaluzen eta hilaren 16an udaletxeko osoko bilkura aretoan –biak 18:30ean–. Eztabaidei ekin aurretik, Bidein enpresak egin eta postontzietara bidali den hasierako proposamenaren azalpen grafikoak egingo dituzte.

PROPOSAMEN HAU BEHIN-BEHINEKOA DA; ORAINDIK PARTE HARTZE PROZESUA EGITEA FALTA DA

Ekarpenak urtarrila amaitu arte egin ahalko dira, hiru modu hauek erabiliz: gune informatiboetan; Etxaluzen, BAZen, Kulturaten edo Kiroldegian jarriko diren postontzi finkoetan; eta *www.arrasate.eus* webgunean. Ez da derrigorrezkoa izango Arrasaten erroldatuta egotea, ezta adinez nagusi izatea. Hala, kasu honetan, beste herri batzuetatik Arrasatera lanera datozenek ekarpenak egin ahalko dituzte zuzenean eragiten dien gai honetan.

Ausaz aukeratutako herritarrak

Behin ekarpenak batuta, horiek hasierako planteamenduarekin bateratzen ahalegintzea izango da hurrengo zeregina. Horretarako, ausaz aukeratutako herritar talde bat osatuko dute, 20-25 lagunekoa, gutxi gorabehera. "200 herritarri gutun bat bidaliko diegu datorren astean. Adin, sexu eta auzo aniztasuna ahalik eta hoberen ordezkatzen dituen lagin bat izango da, eta, orokorrean, gutuna jasotzen dutenen %10ek erabakitzen dute parte hartzea; beraz, 20-25 lagun arteko taldea osatzea espero dugu", azaldu du parte hartze prozesua dinamizatuko duen Aztiker enpresako Susana Martinezek.

Hiru lan-bilera egingo dituzte otsailean zehar eta bertatik azken proposamen bat irtengo da. Herritar hauek egingo duten lana eskertzeko, Udalak "detaile bat" edukiko du ausaz aukeratutako horiekin.

Lantalde horren txostena Hirigintza Sailera bideratuko da, egokitzapenak egiteko. "Ostean, ordenantzak egin beharko dira, pleguak atera, esleipenak egin... prozesuak 2020 amaierara arte iraungo du", azaldu du Juan Antonio Urdangarinek, Hirigintza Saileko buruak.

Hiru guneko sistema

TAO sistema herriko hiru gunetan ezarriko dute. Zero gunea deiturikoa da handiena –1.085 aparkaleku– eta azpigune hauek hartzen ditu barne: Ferixaleku-San Frantzisko, Otalora, Garibai, Zarugalde –Bizkaia etorbidea barne– eta Munar. 1 guneak 407 aparkaleku ditu eta Arimazubi eta Uribe guneak hartzen ditu barne. 2 gunea San Andres auzoan kokatzen da eta 746 aparkaleku ditu. Hauei guztiei Biteriko eta Laubideko aparkalekuak gehituz gero –137 eta 165 aparkaleku, hurrenez hurren–, 2.540 aparkaleku zenbatu dituzte hiru gune horietan.

Musakolan, Altamiran, Txaetan, Erguinen eta Santa Teresan, berriz, ez da TAO sistemarik aplikatuko.

Bost arrazoi eta hainbat datu

Eguazteneko prentsa agerraldian bost argudio aipatu zituen Ubarretxena alkateak, TAO sistema ezartzearen alde: mugikortasun paradigma berrietara egokitzeko, aparkalekuak ordenatzeko, bizilagunei eskariak aintzat hartzeko, erdigunea herritarrentzat izateko eta bizi estilo jasangarriagoa edukitzeko.

Aldaketa behar hori hainbat datu emanaz argudiatu zuten. Arrasaten 22.019 biztanle daude, eta 13.196 ibilgailu; adinez nagusikoak 18.562 direla kontuan hartuta, gidatzeko adina duen pertsona bakoitzeko 0,71 ibilgailu daude. Batez beste 1,5 ibilgailu daude etxebizitza bakoitzeko, eta erabilera datuek gora egin dute azken urteetan. 2007an, adibidez, herri barruan ibilgailuekin egiten zen desplazamendu kopurua 2,98koa zen pertsonako; baina 2016an, datua 3,4koa zen. 2007an biztanleen %38,6k

Tarifa eta tasak

APARKALDIEN TARIFAK

1 Tarifa EXPRESS	2 Tarifa ARRUNTA	3 Tarifa ALDI LUZEKOA
15 min. 0,20 € **30 min.** 0,40 €	**15 min.** 0,20 € **30 min.** 0,40 € **60 min.** 0,90 € **90 min.** 1,35 € **120 min.** 1,95 € **150 min.** 2,75 € **180 min.** 4,45 €	**Goiza 9:00-13:30:** 2,00 € **Arratsaldea 16:00-20:00:** 2,00 € **Eguna 9:00-20:00:** 4,00 €

EGOILIAR TXARTELAK

ARRUNTA	BEREZIA Gune historikoko egoiliarrentzat hobaria
Lehena 50,00 €/urteko **Bigarrena** 75,00 €/urteko	**Lehena** 40,00 €/urteko **Bigarrena** 60,00 €/urteko

OHARRA: PREZIOAK HASERAKO PROPOSAMENEKOAK DIRA, EZ DIRA BEHIN BETIKOAK

ITURRIA: ARRASATEKO UDALA

ibilgailu pribatua erabiltzen zuten herri barruan mugitzeko eta 2015ean, aldiz, %46k. "Herriko CO2 isurketen %32 trafikoak eragiten du, industriak baino ehuneko bi gehiago".

Ordutegiak eta gastuak

Hasierako proposamenak astelehenetik ostiralera arteko funtzionamendua ezartzen du. Honek eduki ditzakeen gastu posibleak ere kalkulatu dituzte, urtean 400.000 euro bueltakoak. Horrekin gastu hauek estaliko lirateke: parkimetroak jartzea, seinaleztapen horizontalak eta bertikalak jartzea, sistema kudeatzeko lokala eta langileak –bost pertsona ingurukoa– eta mantentze-gastuak.

Onuradunak eta kaltetuak

Lehen planteamendu honek onurak dakartza egoiliarrentzat. Erdialdean, San Andresen eta Uribe aldean dauden 2.540 aparkalekuetatik 1.220 (%48) eurentzat izatera pasako dira, eta denbora asko aurreztuko dute aparkalekuak bilatzen. Horrez gain, etxebizitza bakoitzetik bi egoiliar lizentzia atera ahalko dira. Kaltetuen zerrendan, lehenak TAOrik gabeko auzoak dira. Hirigintza Saileko teknikariek aurreikusten dutenez, TAO sistema aplikatzerakoan asko zailduko da Musakolan eta Txaeta inguruetan aparkatzea.

Beste kaltetu batzuk beste herri batzuetatik Arrasate erdigunera lanera datozenak izango dira. Udalaren estimazioen arabera 5.000 pertsona inguru dira, egunero erdigunera lanera edo zerbitzuak baliatzera datozenak. Zortzi orduz lanera datozen horiek aldi luzeko aparkalekuak erabili ahalko dituzte soilik, eta proportzioan nahiko gutxi dira: guztira, %10,9, eta erdialdea barne hartzen duen 0 gunean %7,3. Horrez gain, kanpotik datozen horiek eguneko lau euro ordaindu beharko dituzte –hileko 80 euro–. Herriko sarreretan disuasio aparkalekuak jartzea aurreikusten duten galdetuta, zera erantzun zuen EH Bilduko Aitor Zubiagak: "Arrasatera lanera datozenentzat aukera bat izan daiteke. Batzordean aipatu izan dugu, baina, momentuz, ez dago barne; orain eska dezakete nahi dutenek".

Datorren asteko hitzorduak

Gune informatiboak

- **Urtarrilak 13:** Kiroldegian, 10:00etatik 13:00etara.
- **Urtarrilak 14:** Etxaluzen, 17:00etatik 20:00etara.
- **Urtarrilak 15:** Kulturaten, 17:00etatik 20:00etara.
- **Urtarrilak 16:** Arrasateko Udaletxeko arkupean, 17:00etatik 20:00etara.
- **Urtarrilak 17:** Azokan, 10:00etatik 13:00etara.

Eztabaida publikoak eta azalpenak

- **Urtarrilak 14:** Etxaluzen, 18:30ean.
- **Urtarrilak 16:** Udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 18:30ean.

TAO motak eta kokalekuak

Biteriko Etorbideko aparkalekuak. X.G.

Express Gehienez 30 minutuz aparkatzeko guneak izango dira, 09:00etatik 20:00ak arteko ordutegiarekin. 2.540 TAO aparkalekuetatik 117 (%4,6) dira *express* erakoak. Hauek dira ezarri dituzten guneetako batzuk: Biteri etorbidea –irudiko bi lerroak–, Garibai etorbidekoa –taxien pareko lerroa eta autobus geltokitik biribilgunera doana–, Otalora Lizentziaduna –Taupa taberna pareko lerroa–, Maisu Arano kalea, Munar –Nebraska tabernako plazatxoak– eta Uribe etorbidea –Udala plazako biribilgune alboan–.



Otalora Lizentziaduna kaleko bi aparkaleku lerro. X.G.

Arrunta Gehienez, hiru orduz aparkatzeko guneak izango dira, 09:00etatik 13:30ak arteko eta 16:00etatik 20:00ak arteko ordutegiarekin. 570 aparkaleku dira guztira (%22,4) eta hauek dira ezarri dituzten guneetako batzuk: Uribarri Etorbidea, Loramendi kalea, Zarugalde kalea –Muxibar eta Udala Plazako biribilguneen artean–, Otalora Lizentziaduna –irudiko bi lerroetan eta hortik eta Maalako biribigunera arte–, Araba Etorbidean, Doctor Bañez kalean, Nafarroa Etorbidean, Alfontso VIII kalean eta Kontzezinon.

Jose Luis Iñarra kaleko aparkalekuak. X.G.

Aldi luzekoa 09:00etatik 13:30ak arteko eta 16:00etatik 20:00ak arteko funtzionamendua dute, eta goizez, arratsaldez edo 24 orduz aparkatzeko balioko dute. 278 aparkaleku dira, guztira (%10,9) eta hauek dira ezarri dituzten guneak: Otalora Lizentziaduna kaleko lerro bat –Muzibarko biribilgunean hasi eta Santa Barbara aldera lerratuta dagoena–, Jose Luis Iñarra kalean, Alfontso VIII kalean, Doctor Cordoba y Oro kalean eta Loramendi kalean. Erdigunea barne hartzen duen zero gunean %7,3 dira.

Munar inguruko aparkalekuak. X.G.

Egoiliarrak Arrasaten bertan erroldatuta daudenendako izango dira aparkaleku horiek: 1.220 dira, guztira, TAO aparkaleku guztien %48. Edozelan ere, ezin izango da edonon aparkatu. Hiru gune daude herrian –erdialdea, Uribe eta San Andres– eta gune bakoitzean, berriz, azpiguneak daude. Hain zuzen ere, egoiliarrek erroldatuta dauden azpiguneko aparkalekuak erabili beharko dituzte: egoiliarrenak, aparkaleku arruntak eta aldi luzekoak –azken bi horiek, ordutegi mugarik gabe–.

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
Kontxi Lazkano - Pedagogoa
Ion Astigarraga - Psikologoa
Diagnostikoa - Orientazioa • Psikoterapia: umeak, gazteak eta helduak • Laguntza eskolarrak
Arreta goiztiarra • Logopedia • Ikasketa teknika eta ohiturak
Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 140/18

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

arbolapeta
arrasate
beinke

Obra hasteko baimena maiatzean jaso arren, lanak ez dira oraindik hasi. XABI GOROSTIDI

114 etxe esleituta eta lanak 8 hilabetez geldi

63 salmentarako dira eta 51, aldiz, alokairurako. 2017ko azaroan Gobernuak eta Visesak adostu zuten alokairukoak esleitzeko Udalak kupo bat ezartzea; hori ez da egin, eta Arrasateko EAJk "harriduraz" hartu du Udala kontuan hartu gabe esleitzea

Xabi Gorostidi ARRASATE

Debagoieneko Ospitale alboan dagoen *putzuko* etxebizitzak ez aurrera ez atzera egon ziren 10 urtez, eta 2017ko azaroan egoera hura desblokeatzeko akordioa lortu zuen Udal Gobernuak Visesarekin; Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren menpe dagoen enpresa publikoarekin. Akordio horretan 184 etxebizitza publiko egitea jasotzen zen, bi fasetan: lehen fasean 114 etxe –bi bloketan– eta bigarren fasean, aldiz, 70.

Lehen faseko 114 etxebizitzetatik 63 salmentarako izango zirela adostu zuten –azalera-eskubidean– eta 51, ordea, alokairurako. Azken hauek esleitzeko ikerketa bat egitea eta, ostean, Udalak kupo batzuk ezartzea adostu zuten: Arrasaten erroldatutako alokairu eskatzaileen profilak inkesta bidez aztertzea –adina, egoera soziala, diru-sarrerak...– eta horren arabera banaketa irizpide batzuk ezartzea, hain zuzen.

Baina ez da halakorik eman. Jaurlaritzako Etxebizitza Saila kudeatzen duen PSE-EEk lehen 114 etxeak jada behin-behinean esleituta daudela jakinarazi du asteon ohar bidez: erosketako 63ak 2019ko azaroan; eta alokairukoak, aldiz, abenduan.

Oharrean ere Arrasateko sozialisten buru Oscar Garciaren adierazpen batzuk jasotzen ziren. Operazioa "oso garrantzitsutzat" jotzen zuen, "herrian 114 etxebizitza publiko gehiago egongo direlako" eta "putzu horretatik arrisku egoera ezabatuko duelako". Horrez gain, operazio posible egiteko Visesaren eta Arrasateko Udal Gobernuaren artean egondako "konfiantza giroa" nabarmendu zuen.

EAJK "HARRIDURAZ" HARTU DU VISESAK "HITZA EZ BETETZEA" ALOKAIRUKO ETXEAK ESLEITZEKO ORDUAN

EAJren "harridura"

Arrasateko jeltzaleek *"harridura"* hitza erabili dute gertatutakoa definitzeko. Gobernukide diren sozialistek komunikabideetara igorritako oharraren bidez jakin dute alokairuko etxeak behin-behinean esleitu direla, Visesak eta Udal Gobernuak aldez aurretik adostutako kupoak ezarri gabe.

Lanak geldi, epeak atzeratuta

Udal iturrien arabera Visesak 2019ko maiatzaren 9an jaso zuen baimena lanak egiten hasteko, baina zortzi hilabete igaro arren lanak hasi gabe daude. Gobernuak eta Visesak akordioaren berri eman zutenean, lehen 114 etxeak 2019ko udaberrian egiten hasiko zirela iragarri zuten, eta 2021erako amaitu. Baina asteon sozialistek igorritako oharrean, 2023an amaitzea aurreikusten da. GOIENA Visesarekin harremanetan jarri da azalpen eske, baina gaur-gaurkoz ez du erantzunik jaso.

GORA ETA BEHERA

Argiak martxan daude, "aspaldiko partez"

Otalora eta Zarugalde kaleak konektatzen dituen kalezulo horretan argiek ez zuten "aspalditik" funtzionatzen. Irakurle batek jakinarazi du aste honetan berriz jarri dituztela martxan. "Beharra zegoen argiak martxan jartzeko; gauez oso leku iluna bilakatzen baita".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?
berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.

M8 ETA LAB

Bi batzar 'U30'-a prestatzeko

Asteartean M8 plataformakoak batzartu ziren eta eguaztenean bigarren batzar herritarra egin zuen greba batzordeak. Datorren asterako hainbat hitzordu ezarri dituzte: hilaren 15ean prentsaurreko masiboa, 18ean auzoz auzoko ibilbide feminista, 20an erretiratuek gaztaina jana eta informazio ematea eta 25ean Elorregira martxa, besteak beste.

Santi Cobosen kartzelako bizipenak, gertutik

Familia liskar batengatik sei urterako sartu zuten kartzelan, eta bertan pilatutako delituengatik 26 urtez egon zen preso; 51 urte ditu orain, eta duela zazpi urtetik aske dago, baldintzapean. Martitzenean Irati Topagunean hitzaldia egin zuen; besteak beste, kartzela barruan egindako ibilbide luzeari buruzko xehetasunak eman zituen.

Sampedro eta Cobos. JOKIN BEREZIARTUA

Valencia Sport-ek fitxatu du Malen Ruiz de Azua

Nobedade eta erronka berriekin hasi du Malen Ruiz de Azuak 2020a; izan ere, azkeneko urteotan ordezkatu duen Super Amara BAT taldea utzi eta Espainiako eta Europako Ligako txapeldun izan den Valencia Sport taldean izango da

Amaia Aranegi ARRASATE

Super Amara BAT taldea atzean utzi eta urtea hastearekin batera Valentzia Sport taldeko atleta da Malen Ruiz de Azua. Talde honek fitxatu du eta fitxaketaren prozesuan kasualitate puntu bat ere izan dela dio Azuak: "Urte pila bat neraman nire aurreko taldean, Super Amara BAT-en. Valentzia Sport beti egon da Espainiako onenen artean. Azaroan jarri ginen harremanetan eta nik uste dut harremanetan jartzearen arrazoi nagusienetakoa izan zela Valentzia Sport iaz Espainiako bigarren geratu zela, 25 urtetan txapeldun gelditu eta gero, eta hori inflexio puntua izan da haiendako. Ahul zeuden probei erreparatu diete eta, besteak beste, pertika-jauzia indartu nahi izan dute".

Talde indartsua da Valentziakoa, Espainiako eta Europako txapeldun izan dira eta talde berri honen kide izatea erronka da Azuarentzat: "Taldeko txapelketei begira beste erronka batzuk ditut orain. Orain arte Super Amara BAT taldea gorengo maila batean mantentzea izan da eta orain erronka bestelakoa da; ez du balio bigarren edo hirugarren gelditzea, irabazi egin nahi dute, eta presio puntu hori ere badago irabazteagatik". Urte ona egin du arrasatearrak. Pista estaliko denboraldia 4,38 markarekin agurtu zuen, Antequeran jokatutako Espainiako Txapelketan bigarren sailkatuta, eta taldekako Espainiako Kopa Iberdrolan 4,35eko saltoa egin zuen, eta hor ere bigarren sailkatu zen. Aire librean, baina, pista estaliko marka on horiek hobetzeko koska txiki hori falta izan zaio, 4,35eko marka egin zuen-eta Lurraldeen Arteko Espainiako Txapelketan, Iruñean. 2019a atzean utzita, balorazio positiboa egiten du Azuak: "Denboraldi arraroa izan da. Pista estaliko denboraldia positiboki baloratzen dut, marka pertsonala egin nuen eta Espainiako bigarren sailkatu nintzen; beraz, neguko denboraldiaren balorazio positiboa egiten dut. Aire zabaleko denboraldia, aldiz, nahiko arraroa izan zen. Espainiako txapelketa urri hasieran izan zen eta abuztuan atseden hartu behar nuela erabaki nuen, eta txapelketa horretan parte ez hartu. Beraz, uztailera arte dena ematea zen nire helburua, baina ez nuen marka hobetzea lortu. Horregatik, zapore gazigozoarekin gelditu nintzen, baina, orokorrean, denboraldi ona izan da".

Malen Ruiz de Azua, Arrasaten, entrenamendu saio batean GOIENA

Malen Ruiz de Azua Valentzia Sport taldean arituko da, baina Arrasaten entrenatzen jarraituko du eta bere bizitzak ez du aldaketa handirik sumatuko: "Kalean askotan galdetzen didate ea Valentziara bizitzera joango naizen. Baina ez, nire bizitzak berdin jarraituko du. Arrasaten Jonathanekin [Perez] entrenatzen jarraituko dut, nire bizitzak normal jarraituko du. Baina egia da noizean behin Valentzia ingurura joan beharko dudala lehiatzera bertan izaten badira lehiaketak, ez baitira zertan bertan izan".

2020rako erronkak

2020ra begira, Azulak marka hobetzeko lanean jarraituko du, baina ez dauka helburu jakinik: "Egia esan, ez nago marka zehatz batekin itsututa, marka hobetzen dudan artean pozik nago. Egia da ez naizela 38 edo 39 batekin konformatzen, berrogeita zerbaitera saltoa eman nahi dut".

Talde berri batean arituko da orain Azua, eta Super Amara BAT taldea atzean uzteak pena ematen dio: "Nahiz eta nire herriko kluba ez izan, urte asko eman ditut bertan eta taldekideekin eta entrenatzailearekin tratu oso ona izan dut beti. Oso pozik nago orain arte egindako ibilbidearekin eta etapa hau atzean uzteak pena eman zidan, orain jende berria ezagutu behar dut. Dena dela, pistan ekar ikusten jarraituko dugu eta, horregatik, nik uste dut ez dela askorik aldatuko".

"NIRE BIZITZAK NORMAL JARRAITUKO DU, EZ NAIZ VALENTZIARA BIZITZERA JOANGO"

Arrasate Borroka Arte eskolaren eskutik, arte martzial berria

'Kajukembo close combat' izeneko arte martziala ikasteko aukera egongo da Musakolako kiroldegian

Amaia Aranegi ARRASATE

Arrasate Borroka Arte eskola *kajukembo close combat* izeneko diziplina berria erakusten hasi da. Arte honen sortzailea Alacanteko Paulino Martin da, eta, lehiaketetatik urruntzeko helburuarekin, defentsa pertsonalean oinarrituta dagoen arte martzial hau sortu zuen. Munduan zehar diziplina hau erakusten eta zabaltzen egon da eta orain Arrasatera iritsi da: "Paulino Martinekin harremanetan jarri ginen, eta, berarekin diziplina honen kurtso batzuk izan ostean, Arrasateko kiroldegian *kajukembo close combat* ikasteko aukera eskainiko dugu", dio diziplina honetako Gipuzkoako ordezkariak, Iker Letonak.

Orain arte, Kenpo klaseak eskaini izan dituzte martitzenetan eta eguenetan 18:45etik 20:00etara. Hala, hemendik aurrera, diziplina berri hau sartuko dute klase horietan eta biak tartekatzea izango da helburua. Eskola hauek Iker Letonak eta Aitor Mondragonek gidatuko dituzte. Lehiaketarik gabeko defentsa pertsonalean oinarritzen den arte martzial hau 16 urtetik gorakoei zuzenduta dago.

Aitor Mondragon, Iker Letona eta Paulino Martin. IKER LETONA

Urtarrilaren 16an, 18:00etatik 20:00etara ate irekiak egongo dira Musakolako kiroldegian, arte martzial hau probatu nahi duen edonorentzako. " Arte martzial hau ezagutzera eta probatzera animatu nahi dugu jendea. Diziplina desberdina da eta jendeak hau ezagutu ahal izateko aukera eskaini nahi dugu", dio Letonak.

Mondratek zapatuan etxean jokatuko du Soloarteren aurka

Mondrate futbol taldeak zapatuan 17:30ean Musakolako kiroldegian jokatuko du partidua, ligako azken postuan dagoen Soloarte taldearen aurka. Hilabete jokatu gabe egon ostean, bueltan dira. "Santamasetako asteburuan atsedena izan genuen eta abenduaren 14tik ez dugu partidurik jokatu", dio Jon Zabala entrenatzaileak.

Gainera, bi astez ez zuten entrenamendu saiorik izan eta partidu honetarako lau saio egin dituzte: "Hamabost egun entrenamendu saiorik gabe egotea igartzen da; gainera, Gabonak izan ditugu erdian. Baina eguaztenean izan genuen azkena eta indartsu ikusten dut taldea".

Kooltur Ostegunetako kontzertu bat Arrasateko gaztetxean. GOIENA

Kooltur Ostegunetako kontzertuak, Goienan

Kooltur Ostegunetako kontzertuak grabatzen eta emititzen hasi da Goiena. Hain zuzen ere, kontzertuaren hurrengo asteko egubakoitzean emititzen dira telebistan, gaueko hamaiketan, eta gero webgunean ikusteko aukera ere badago

Amaia Aranegi ARRASATE

Kooltur Ekintzak eguenero 22:00etarako Arrasateko gaztetxean antolatzen dituen kontzertuak emititzen hasi da Goiena, telebistan. Bi kontzertu emititu ditu dagoeneko eta gaur gaueko hamaiketan hirugarrena eskainiko du. Kooltur Ostegunetako kontzertuek jatorri ezberdinetako taldeez eta musika estilo ezberdinez gozatzeko aukera eskaintzen dute. Horregatik, Kooltur Ekintzako kideekin elkarlanean, kontzertuak grabatu eta emititzen ditu Goienak. Kontzertuaren hurrengo asteko egubakoitzean gaueko hamaiketan emititzen da telebistan, eta gero *www.goiena.eus* atarian dago ikusgai.

Abenduaren 27an emititu zen lehen kontzertua, The Capaces taldearena. Bigarrena urtarrilaren 3an: Sua taldearen kontzertua emititu zen. Eta gaur, abenduaren 26an gaztetxean egon zen Brahman talde japoniarraren kontzertua ikusteko aukera egongo da. Talde honek itxi zuen aurreko urteko Kooltur Ostegunetako musika zikloa. Ibilbide luzeko eta eskarmentu handiko taldeak punk-rocka hardcorearekin nahasten du. Talde desberdin eta exotiko hau 1996an sortu zen eta 2018. urtean harrera ona izan zuen seigarren diskoa kaleratu zuen. Japonian oso ezaguna den laukote honek jarraitzaile sutsuak ditu.

Urtarrileko egitaraua

Atzo izan zen aurtengo Kooltur Ostegunetako lehen kontzertua, eta Moonshakers taldeak zabaldu zuen aurtengo Kooltur Ostegunetako musika zikloa. Moonshakers Bilboko laukotea da, 2014tik agertokietan sutsu lanean dabilena. Rocka zentzu zabalenean lantzen dute: garagea, psikodelia, punk-rocka... Dagoeneko bi disko luze kaleratu dituzte: *Moonshakers* eta *Visitantes*. Kontzertu hau hurrengo barikuan egongo da ikusgai Goiena telebistan.

EGUBAKOITZETAN 23:00ETAN GOIENA TELEBISTAN, ETA 'WWW.GOIENA.EUS' ATARIAN

Urtarrilaren 16an, Inoren Ero Ni taldea izango da gaztetxean. 2002. urtean Andoainen sortutako euskal rock musika taldea da hau. Dagoeneko sei disko kaleratu dituzte eta hurrengo ostegunean gaztetxean izango dira.

Urtarrilaren 23an, Pelax taldeak joko du; taldea laukote batek osatzen du: Iker Vazquez (bateria), Iñigo Ozaeta (baxua), Andoni Olaetxea (gitarra) eta Unai Pelayo (gitarra eta ahotsa). Gitarra doinuak ahots gordinez jantzi eta rock doinuak zabalduko dituzte urtarrileko azken kontzertuan. Izan ere, azken ostegunean, urtarrilaren 30ean, greba orokorra dela-eta ez da kontzerturik egongo.

Udazkeneko lorea, Carlos de Cos. Lehiaketako lehen saria. ARTGAZKI ELKARTEA

'Udazkena Euskal Herrian' lehiaketako lanak Kulturaten

Artgazki elkarteak antolatutako lehiaketaren bosgarren aldian parte hartutako lanak ikusgai eta salgai egongo dira

Amaia Aranegi ARRASATE

Artgazki elkarteak bosgarrenez antolatu du *Udazkena Euskal Herrian* argazki lehiaketa. Argazkien gaiak izan dira basoetako paisaiak, ibaiak, itsasoak zein hiri eta landa ingurukoak. Aurten, 62 argazkilarik hartu dute parte, eta, guztira, 171 irudi aurkeztu dituzte. Argazkirik onenak bi astez herriko hainbat tabernatan egon dira ikusgai eta salgai. Bertan, herritarrek argazkiak ikusteko eta hauek hogeita hamar euroren truke erosteko aukera izan dute.

Orain, beste bi astez Kulturaten egongo dira: urtarrilaren 11tik 25ra bitartean. Argazkien salmentekin lortutako dirua Aspanogi Gipuzkoako Haur Minbizidunen Gurasoen Elkartera bideratuko dute. Izan ere, Artgazki elkartea argazkilaritzarekin lotutako ekintzak antolatzeko sortu zen, baina ongintzazko kausekin kolaboratzeko helburua ere badute. Horregatik, ekintza honekin, dirua ematen diote elkarteari, baina baita elkartea ezagutzera eman. Izan ere, erakusketan elkartearen informazioa ere egongo da. Honez gain, Artgazki elkartea herriko beste zenbait elkarte eta talderekin elkarlanean aritzen da: Mondraitz, trikitiliariak, eskola publikoa...

Erakusketa Kulturaten

Udazkena Euskal Herrian lehiaketako bosgarren edizioan parte hartutako lanak ikusgai eta salgai egongo dira bihartik 25era bitartean Kulturateko Klaustroetan. Artgazki elkarteko bazkide Anibal Carmonak bertara gerturatzeko animatu nahi du jendea: "Erakusketaz gozatzera eta argazkiak erostera animatzen dugu jendea, kausa on baten alde da".

Abian da 2020ko Inauterietako kartelen lehiaketa

Urtero bezala, aurten ere Inauteriak iragartzeko kartel lehiaketa antolatu du Arrasateko Udaleko Kultura Sailak.

Lehiaketa honetan Debagoieneko udalerrietako batean edo Aramaioko udalerrian erroldatutako edozein pertsonak har dezake parte, eta teknika librea izango da. Karteletan ezinbestekoa izango da testu hau agertzea: 2020 Inauteriak Arrasate. Eta, era berean, jai hauen ezaugarriren bat jaso eta adierazi beharko da. Lehiaketan parte hartzeko gainontzeko oinarriak Udalaren webgunean daude eskuragarri.

Kartelak 2020ko urtarrilaren 31ko 19:00ak baino lehen BAZ-era (Biztanleen Arreta Zerbitzua) eraman behar dira, behar bezala babestuta eta euskarri gogor batekin, hondatu ez daitezen.

Lehiaketaren irabazleak 400 euroko saria jasoko du.

Debagoieneko **OSASUN ZERBITZUAK**

DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA
Arrasate / Arrasate paseialekua 15, behea / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA
Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARANBURU HORTZ KLINIKA
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA
Arrasate / San Bizente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

DURANA HORTZ KLINIKA
Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

GARAI HORTZ KLINIKA
Aretxabaleta / Iralabarri 15 / 943 53 42 63

GOROSABEL J. ALBERTO
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION
Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea / 943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA
Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO – FONALIA
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

KIROPRAKTIKA ZENTROA

BIZI KIROPRAKTIKA
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

JULEN MURUAMENDIARAZ KIROPRAKTIKA ZENTROA
Bergara / Ibargarai 41 / 688 80 16 72

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)
Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Iragarka jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

Desfibriladorea jarriko duten lekua, osasun zentro ondoan. J.I.

Larrialdietarako heziketa, eta desfibriladorea laster

"Emergentzia sanitarioak kudeatzeko programa" martxan du Aramaioko Udalak. Gabon aurretxoan egin zuten lehen sorospenen aurreneko ikastaroa, eta beste hiru egitekoak dira aurten. Programa barruan, desfibriladorea ere jarriko dute hil honetan

Julen Iriondo ARAMAIO

Gizarte Ongizate batzordeko buru Cristina Etxenausiaren arabera, urtarrila amaitu aurretik jarriko dute desfibriladorea osasun zentroaren ondoan, larrialdi egoeran erreferentziazkoa eta edonork gogoratzeko modukoa izan daitekeen lekuan.

2018ko aurrekontuetan jaso zuen Udal Gobernuak herrian desfibriladorea jartzeko eta lehen sorospenen gaineko formakuntza egiteko diru kopurua, 2.500 euro. Urte hartan ez zen egin, ordea, eta iazko aurrekontuek berriro jaso zuten gaia. Osakidetzarekin harremanetan jarri, eta lehen sorospenen aurreneko ikastaroa egin zuten abenduaren 21ean; eta beste hiru egingo dituzte aurten: Udaleko teknikariekin egingo dute bat, eta merkatariak eta tabernariak ere gonbidatuko dituzte; eskolako irakasleekin, beste bat; eta eskolako umeekin, hirugarrena, "euren adinetara egokituta, baina, adibidez, ume guztiek izan dezaten 112aren berri", Etxenausiaren arabera.

"Aramaioar gehienek epe ertainera lehen sorospenak ezagutzea da asmoa", dio.

Hamazazpi lagun lehen ikastaroan

Herritarren partetik harrera ona izan zuen lehen sorospenen gainean aurrenekoz abenduan egindako ikastaroak. Hamazazpi lagunek hartu zuten parte, eta bihotz-biriketako bizkortzea, desfibriladorearen erabilera eta eztarrian zerbait trabatuta itotzeko arriskuaren aurrean nola jokatu izan ziren landutako gaiak. Urtero egin nahi dituzte halako ikastaroak.

Abenduko ikastaroaren une bat. ARAMAIOKO UDALA

Eskolan egindako apurketak. ARAMAIOKO UDALA

Berriz ere egin dituzte hainbat apurketa San Martin eskolan

"Gogor" salatu du Udalak "guztion ondarea apurtzen ibiltzen direnen jarrera", eta zaintzea eskatu du

J.I. ARAMAIO

Umeek oporrak hartu eta Gabon ostean itzuli arteko tartea San Martin eskolan hainbat apurketa egiteko aprobetxatu du zenbaitek. Honela, zenbait kristal apurtuta agertu ziren, eta eskolako jolastokiko sabaian ere modulu batzuk apurtu zituzten.

Aramaioko Udalak "gogor" salatu gura izan ditu jarrera eta gertakariok: "Itxuraz, batzuek ez dute denbora pasatzeko modu hobeagorik! Guztion ondarea den hori apurtzen ibiltzen direnen jarrera salatu behar dugu. Guztion ardura da herria eta herrikoa zaintzea eta mantentzea". Konponketa lanak egin ditu dagoeneko Udalak.

Eskolan ere kezkatuta

Eskolako zuzendari Saioa Uriartek gogora dakar ez dela halakoak gertatzen diren lehen aldia: "Duela urte eta erdi inguru ere apurtu zituzten kristal batzuk".

Gertakarion aurrean, salaketarik ez dute jarri, baina aurrera begira nola jokatu aztertu beharko dutela aitortu du Uriartek, eta Lierni Altuna alkatearekin batzeko gogoa ere adierazi du.

ORIXOL

Egun aldaketa, eta gustura

Urte berria hasteko barik, zaharrari amaiera emateko antolatu dute oraingoan mendi irteera Orixol Mendizale Elkarteko kideek, salda eta guzti. Elkarteari izena ematen dion tontorrera joateko "talde polita" batu zirela-eta gustura agertu ziren antolatzaileak, eta baita irteera eguna aldatu izanarekin ere, emaitza ikusita.

Rosa Mondragon, proiektuaren kideetako bat, erakusketa aldamenean. J.I.

Kalea argazki-erakustoki bihurtu, eta jendea pozik

Pedro Ignazio Barrutia kaleko horma XX. mendeko hamabost argazkiz egongo da jantzita aurrerantzean, egonkorra baita Antzinako Aramaio proiektuaren barruan bertan jarri duten erakusketa. "Oso harrera ona izan du", dio Rosa Mondragonek

Julen Iriondo ARAMAIO

Izen zielako gare, garelako izango die lelo ezagunarekin bataiatzen du erakusketa Udalak hura aurkezteko argazkien aldamenean jarritako idatziak. Bertan ageri diren pertsonen "begirada zuzenak, esku zailduak, irribarre eta keinu partikularrak..." ondaretzat dituztela ere badio, baita "beraien gogo-gorputzetatik" eratorritako "bizitzaren ulerkera ere". Askotariko langintza, ohitura eta jardunak ere islatzen dituzte argazkiek: "Aramaio izan denaren katebegiak ezagutaraztea eta hauek gogoan izatea da egitasmo honen helburu nagusia".

Antzinako Aramaio egitasmoan diharduen Rosa Mondragonen arabera, Udalak 300dik gora argazki ditu jasota, duela zenbait urte ateratako beka baten emaitza: "Hortik egin da aukeraketa, eta, batez ere, kontuan hartu dena izan da kalitatea, ez baita erraza garai hartako argazkiek halako tamainan erakusteko besteko kalitatea izatea; horrez gain, nahi izan dugu auzoetako jendea agertzea, emakumearen funtzioei balioa ematea...".

Baserri girokoak, eskolak...

Aramaioren izaera historikoaren ispilu, baserri giroko argazkiak dira hainbat; beste batzuk, adibidez, auzoetako eskoletakoak, 1964ko hau, esaterako: "Uribarriko eskolan bertako zein Arexolako umeak egoten ziren". Argazki azpiko testurako informazioa argazkien jabeek eurek eman dute, kasu batzuetan; bestelako iturrietatik lortu dute, beste batzuetan.

Argazkietako bat bere testuarekin. J.I.

Bosgarren bazkari bat izango da hilaren 18ko Bertso Egunean

Antolatutako laurei zaleek emandako erantzuna dela-eta erabaki dute eskolan beste bat egitea

J.I. ARAMAIO

Herriko lau elkartetan ziren egitekoak, hasiera batean, bertso bazkariak, aldi berean, hurrengo zapatuko Bertso Egunaren barruan. Euskal Herrian bertsolaritzaren urteroko zita nagusietakoa denaren 2020ko edizioak ere, baina, sortu du zaleen interesa, eta Bertsozale Elkarteak bosgarren bazkari bat antolatzea erabaki du. 65 lagunentzako izango da, gehienez, eta eskolako jangelan egingo dute. 20 eurotan egongo dira txartelak, hilaren 12ra arte.

Elkarteak aste hasieran bosgarren bertso bazkaria iragartzeko unean, Izarra elkarteko, Uribarriko eta Ehiztari Txokoko txartelak agortuta zeuden, eta txartel gutxi batzuk geratzen ziren Zabolako saiorako –Ane Labaka eta Iñaki Viñaspre dira bertan bertsotan aritzekoak–.

Beñat Gaztelumendi. IMANOL SORIANO

Uria eta Gaztelumendi

Antolatu duten bosgarren bertso bazkarian Jone Uria eta Beñat Gaztelumendi ariko dira bertsotan. Zabolako saiorako zein eskolako jangelakorako sarrerak *www.bertsosarrerak.eus* helbidean eskura daitezke.

Del Campo eta Herrarte, trinketean txapeldunorde

Urte amaieran jokatutako Arabako Txapelketako finaletan, 22 urtez azpikoetan erraz irabazi zion Ander Martinez de Murgiak Asier del Campori. 40-17 amaitu zen partidua; bere mailaz azpitik jardun zuen Del Campok. Kadete mailan, ostera, Iñaki Cariñanosek jantzi zuen txapela, Danel Herrarte aramaioarrari 30-27 irabazita.

Del Campo eta Herrarte, dominekin. APE

Hasi dira aldatzen Pedro Ignazio Barrutia kaleko hesia

Egurrezkoa zen Pedro Ignazio Barrutia kalean aurretik zegoen hesia, eta erabat ustelduta zegoen. Honela, kalea eta erreka bereizten dituen hesia aldatu eta hormigoizkoa ari dira jartzen. Aste honetan hasi dira, eta datorrenean amaituko dituzte lanak. Excavaciones Arrasate SL enpresa ari da lanak egiten; aurrekontua 14.515,89 eurokoa da.

Hesia aldatzeko lanak. J.I.

Oinezkoen segurtasuna hobetzeko lanak, laster

Hamar bat zebra-bidetan segurtasuna hobetuko du Udalak, eta horretarako kaptafaroak, abiadura-murriztaileak eta seinale adimendunak jarriko dituzte, besteak beste, Belorrietan, Errekabarren kalean, Eroski aurrean eta Markolen

Mirari Altube ARETXABALETA

Herriko hainbat gunetan oinezkoen pasabideetako segurtasuna indartzea du helburu Udalak, eta horretarako, kaptafaroak (gauez argiztatzen diren gailu islatzaileak), abiadura-murriztaileak eta seinale adimendunak jarriko ditu galtzadaren inguruan. Udal ordezkariek adierazi dute erretiratuek osatutako Aretxabaleta Lagunkoia plataformaren ekarpenak ere hartu direla kontuan horretarako.

Lanak otsailean eta martxoan egingo dituzte honako kaleetako zebra-bideetan: Belorrieta eta Iralabarri inguruan (bidegorriaren eta Basabeazpi ikastolaren parean); Eroski supermerkatuaren aurrean; Errekabarren kalean (16 eta 22 atarien artean); Basaben (17 zenbakitik 23ra); eta Markole auzoan (futbol zelaiaren ondoan).

Udal ordezkarien esanetan, lanon helburua da ikusgarritasuna, bideko seinaleak eta irisgarritasuna hobetzea oinezkoen eta ibilgailuen trafikoaren segurtasuna bermatzeko, eta harrapaketa arriskua murrizteko.

Eroski aurrealdeko zebra-bidea. MIRARI ALTUBE

LEHEN PASABIDE ADIMENDUNA JARRIKO DUTE OINEZKOENTZAT EROSKI AURREAN

14.000 euro

Erabakiak hartu aurretik oinezkoen hamar bidegurutze aztertu ditu Udalak esandako kaleetan. Azterketa horrek zenbait arrisku identifikatu ditu, hala nola, ikuspen eta argiztapen eskasa, ibilgailuen gehiegizko abiadura, eta seinale horizontaletan eta bertikaletan dauden gabeziak. Hain zuzen, horiek konpontzeko hartuko dituzte neurriak.

Xabi Otxoa Hirigintza zinegotziak azaldu duenez, "arrisku handiagoa" duten zebra-bideei lehentasuna emango diete, "ibilgailuen eta oinezkoen trafiko intentsitate handia" jasaten dutelako. Zebra-bideen alboan ez aparkatzeko balizak ipiniko dituzte, baita kaptafaroak, abiadura murrizteko elementuak eta mugimendu detektagailuak dituzten argi-seinaleak ere.

Bide segurtasunerako planaren lehen fasearen barruan daude esandako lanak eta abenduan eman zion oniritzia Hirigintza batzordeak. 14.000 euro pasatxoko kostua izango dute, eta 2019ko aurrekontuko diruarekin ordainduko dituzte.

Pasabide adimenduna Eroskin

Hainbat dira egingo dituzten lanak. Basabeazpi ikastolatik gertu dagoen Iralabarri kaleko oinezkoen pasabidean abiadura-murriztaile bat jarriko da, eta zirkulazioaren noranzkoan ezkerraldean dagoen aparkaleku-plaza kendu egingo dute, kontuan hartuta azterketa teknikoak ohartarazten duela puntu horretan ikuspenik ez dagoela eta zenbait auto abiadura handian ibiltzen direla. Belorrietako beste bi pasabidetan bi aparkaleku kenduko dituzte, bat bakoitzean (farmazia parean eta metro batzuk beherago).

Ikusgarritasuna hobetzeko helburu berarekin, Basabe, Errekabarren (Gernika plazaren aurrean) eta Markole kaleetan beste zortzi aparkaleku kentzea aurreikusita dago. Kaptafaroei dagokienez, Belorrietan eta Markolen jarriko dituzte.

Gainera, oinezkoentzako lehen pasabide adimenduna jarriko dute, Eroski supermerkatuaren aurrean hain zuzen ere. Gailu horrek sentsore batzuk izango ditu, eta zebra-bidean oinezkoak antzematean tarteka argiztatuko dira gidariei ibilgailua gelditzeko ohartaraziz.

Bigarren fase baterako utzi dituzte udalerriko beste puntu batzuetan egingo diren hobekuntzak. 2020ko aurrekontuan, esaterako, 20.000 euroko partida gorde dute oinezkoen bidegurutzeetako argiztapena hobetzen jarraitzeko. Santa Kurtz kaleko pasabideak ere ez dituzte lehen fasean sartu, datorren urtean egingo diren saneamendu lanen baitan hobetuko direlako.

NIRE USTEZ

IKER CARRASCO MENDEZ

Extremadurera

Leongo zenbait udal Gaztelatik bereizteko mozioak onartzen hasi dira nortasun arrazoiak argudiatuz. Erkidego berriak Leon, Zamora eta Salamanca batuko lituzke. Noizbait, Leongo erresuma egungo Asturiastik Extremadurara heda zen.

Asko sinplifikatuz esan daiteke; Extremaduran asturleoneratik eratorritako hizkerak galzorian daudela, hiztun askok gaizki hitz-egindako gazteleratzat baitute etxean entzundakoa. Mendeetan zehar erakundeek, eskola barne, Madrilgoa hobetsi eta lekukoen hizkerak estigmatizatzearen ondorio.

Estremaura-n erroak ditugunok, ezjakintasun zein lotsagatik, gurasoak zuzentzearren, Gaztelakoa ez den hizkuntzaren arrastoak isilarazi dizkiegu: *toballa*, *bujero*, *naide*, *asín*, *mesmo*, *esperencia*, *dispertá*, *refalá*, *nusotro*, *emportancia*, *probalidá*... Bestetan, ordea, geuk esaten ditugu, zuzentzat, adibidez: *hais*. Edo Extremoduroren abestietan, noizean behin, hitzen bat. Talde hau bezala, agurtzen ari zaizkigu aitona-amonen hizkerak.

Gartziarena eta Telleria, Idazle Eskolako ordezkariak eta Igartuaren senideak. M.A.

Mikel Gartziarenak jaso du Karmele Igartua sorkuntza beka

'Harrak' lanaren euskara maila, idazkera eta kontatzeko era nabarmendu zituen, besteak beste, epaimahaiak

M.A. ARETXABALETA

Mikel Gartziarena donostiarrak jaso zuen Karmele Igartuaren omenezko 2019ko sorkuntza beka abenduaren 28an egindako sari banaketa ekitaldian.

Epaimahaia, "pozik"

Hamasei narrazio aurkeztu zituzten IX. lehiaketara, eta epaimahaia gustura agertu zen: "Oso pozik gaude aurkeztutako gehienak direlako lan txukunak eta argitaragarriak". Epaimahaia osatu zuten Iñaki Zubeldiak, Pako Aristik, Itziar Gomezek eta Tere Irastortzak. Eta bereziki Gartziarenaren *Harrak* lana nabarmendu zuten: "Gozamena izan da irakurtzea. Txukun idatzia da, euskara maila bikainarekin, tentsioa mantentzen du uneoro...". 2.500 euroko saria jaso du eta lana, *idazten.com* webgunean argitaratuko dute.

Lan txukunak izanik aurkeztutako gehienak, bi aipamen ere banatzea erabaki zuen epaimahaiak: bata Gasteizko Andrea Losada Gareterek jaso zuen, *Itxarongela* lanagatik; eta bestea, Idiazabalgo Amaia Telleria Mujikak (argazkian), *Elur gorrituaren egunak* lanagatik.

Joan den martitzenean dantzan egiteko komentuan elkartu zen taldea. MIRARI ALTUBE

Dantzan egiteko adinik ez dagoelako sekula

Basotxo erretiratuen elkarteak antolatuta, martitzen guztietan elkartzen da taldetxo bat komentuko kaperan dantzan egiteko, ezin gusturago elkartu ere. Hain zuzen, kapera hori kultur ekitaldietarako areto bihurtuko du Udalak datozen hilabeteetan

Mirari Altube ARETXABALETA

Agustindar mojen komentuko kapera dantza areto bihurtu dute azken hilabeteotan Basotxo erretiratuen elkarteko kideek. Martitzen guztietan (16:30) elkartzen da han taldetxo bat Marian Barragan irakaslearen esanetara, eta astean egin dute urteko lehen saioa.

Taldekide berriei zabalik

Karmele Ilarduiak eta Mari Karmen Gutierrezek bost urte inguru daroate dantza taldean. "Oso gustura gatoz; horren seinale, bost urte ostean hemen jarraitzea", diote. Eta gaineratu dute: "Oso giro polita dugu eta lagunartean ordubetetxo pasatzea ederto datorkigu".

Barragan irakasleak onartu du behera egin duela dantzari kopuruak: "Hiru talde izan genituen hasieran. Baina arrisku handiko adin tartea da, eta mokor eta belaun arazoekin hastean utzi egiten dute askok. Nik probatzera animatuko nituzke sekula etorri ez direnak, ondoetorriak izango dira".

Irakasleak gomendatu du ikasteko "gogotsu" etortzea, bereziki bikoteka egiten diren dantzen kasuan: "Jarraibideak jaso behar dira lehenengo, pausoak edo koreografiak ikasteko. Lerroan edo bakarka egiten diren dantzetan norberaren kontua da ikastea, baina bikotekidearekin hasterakoan koordinazioa oso garrantzitsua da". Dena den, zaila ez dela inondik inora gaineratu du.

Interesa dutenak komentura bertara gertura daitezke martitzenetan, eta bestela, Basotxo erretiratuen elkartera jo argibide eske (astelehenetik egubakoitzera, 11:00etatik 12:00etara).

KOMENTUKO LEHEN SOLAIRUKO LANEN ARTEAN DAGO HANGO KAPERA KULTUR ARETO BIHURTZEA

Komentuko lanak aurten

Udalaren asmoa da komentuaren lehen solairu guztia birmoldatzea; kapera izango da kultur erabilerarako aretoa eta lehen solairu horretan Basotxo erretiratuen egoitzari eta eguneko arretarako zentroari ere egingo diote lekua. "Arkupeko Zaraia aretoa txiki geratu izan da hainbatetan eta asmoa da kapera hau erabiltzea kultur kontuetarako. Erretiratuek ere erabiliko dute, noski, baina herritar guztiendako izango da zabalik", adierazi du Karmele Uribarri Ongizate zinegotziak.

Eperik ez du eman gura izan. "Proiektu arkitektonikoa orain atera da lehiaketara eta esleitu egingo da lehenengo. Ondoren etorriko dira gainerako pausoak", dio. Eta gaineratu du lehenbailehen egin gurako luketela: "Erretiratuen elkartearen egoitza oraingo eraikinetik atera behar dugu osasun etxe berria egin dezan han Osakidetzak, eta gure zain dago horretarako".

Elkoro (UDA) eta Agirre (Zaporeak), elikagaiak kamioira igotzeko gertatzen. M. SANTOS

Lesbosko errefuxiatuendako 1.465 kilo elikagai bidali dituzte

UDA eta Zaporeak elkarteek eskerrak eman dizkiete bilketan parte hartutakoei: "Sekulako laguntza da"

M.A. ARETXABALETA

UDAk eta Zaporeak-ek egindako deiari herritarrek "bikain" erantzun diote. Hala adierazi dute bi elkarteek; izan ere, 1.465 kilo elikagai jaso dituzte Greziako Lesbos uhartean dauden errefuxiatuei bidaltzeko.

Lehen helburua UDAko kirolariak inplikatzea zen: "Garrantzitsuena ez delako ekintza, kontzientziazioa baizik. Gazteak hezten ditugu eta kirolaz gain beste kontu batzuk ere badaudela erakutsi gura diegu; gu pribilegiatuak garela eta guretik kanpora beste mundu bat badagoela, esaterako", adierazi du UDAko presidente Agurtzane Elkorok. UDAko kirolariez gain, beste hainbatek ere hartu dute parte ekimenean; besteak beste, herriko ikastetxeek, hainbat enpresak eta norbanakoek.

Joan den egubakoitzean jaso zituen elikagai guztiak kamioi batek eta asmoa da datozen asteetan itsasontzian bidaltzea. Zaporeak elkarteko Maria Agirrek adierazi du Lesbosen egunero 1.200 otordu prestatzen dituztela; hortaz, "sekulako laguntza" izango dela: "Gainera, bakarrik ez daudela sentitzen dute horrela".

'Desbloqueadas' umorezko antzezlana domekan Arkupen

@r emociones Eskoriatzako Antzerki Taldeak *Desbloqueadas* antzezlana eskainiko du domekan, hilaren 12an, Arkupen (19:00). Zortzi emakumeren bidaia pertsonala kontatzen du istorioak. Norbanako bakoitzak bizitza eta motibazio ezberdinak ditu, baina bat egingo dute proiektu baten bueltan. Eta, hala, norberak dituen zalantzak, beldurrak eta oztopoak gainditzea lortuko dute guztien artean.

Patxi Ramirok zuzenduta, oholtza gainean jardungo duten aktore guztiak eskoriatzarrak dira. Etxean, Eskoriatzan, estreinatu zuten lehenengoz, eta han izandako arrakastaren bermearekin datoz Aretxabaletara.

OHARRAK

Aratusteak: bilera

Txapel Txin Egunari eta Aratusteei beste buelta bat eman gura diete eta horiek gertatzeko bilera irekia deitu dute gaurko, egubakoitza; 19:30ean da, udaletxe zaharrean.

Muru Alde: bazkideak

Muru Alde elkarteak bazkide berriendako izen-emate epea zabaldu du; horretarako azken eguna urtarrilaren 24a da.

Frontenis txapelketa

Mutilen binakako frontenis txapelketa antolatu du UDAk. Urtarrilaren 25ean eta 26an jokatuko da eta izen-emate epea zabalik dago, 21a arte: *udafrontenisa@gmail.com*.

2018ko irailean egin zen Atxorrotxeko gazteluaren festan herritarrek arku tiroan aritzeko aukera izan zuten. IMANOL BELOKI

Axtroki Arku Tiro taldea sortu berri dute

Koordinazioa, kontzentrazioa eta punteria lantzeko helburuarekin, arku tiroan ibiltzeko zaletasuna duten zenbait herritarrek sortu dute taldea. Eurak elkartu eta euren zaletasuna dena praktikatzeaz gain, herritarrei irakastea ere bada asmoa

Imanol Beloki ESKORIATZA

Arku tiroa zaletasun duten zenbait herritarren iniziatibaz sortu berri dute Eskoriatza Axtroki Arku Tiro taldea. Ez da kirol oso ezaguna, baina jarduera honen aldeko apustua egin gura izan dute zenbait herritarrek, eurek praktikatzeko eta, bide batez, kirola bera herritarren artean ezagutarazteko. Taldea eratuta, Udalarekin hitzarmena sinatzea soilik geratzen zaie, arku tiroa praktikatzeko eremu bat izateko, besteak beste.

Taldea hamar pertsonak osatzen dute, eta, Oskar Escribano Eskoriatza Axtroki Arku Tiro taldeko kideak adierazi duenez, 6-8 herritarrek interesa agertu dute, oraingoz: "Aspalditik genuen taldea eratzearen ideia buruan, eta, oraingoz hamar lagunek osatzen dugun arren, kide kopurua handitzea da asmoa. Zaletasun hau partekatzen dugunok batzea eta praktikatzea da oinarrian dugun helburua, baina herrira ere zabaldu nahiko genuke, eta ikastaroren bat edo beste eta erakustaldiren bat antolatzea ere bada etorkizunera begira buruan duguna".

Lizentzia ezinbestekoa

Taldea sortu berri, federatzea izan dela lehenengo pausoa adierazi du Escribanok: "Federatuta egotea ezinbesteko da. Gainera, arkua arma bat da, eta edozein lekutara eramateko lizentzia izan behar duzu, derrigorrezkoa da. Hori horrela, arkuaz aritu nahi duen edonork federatu baten alboan bakarrik praktikatu dezake. Honekin batera, zerbait gertatuko balitz, erantzukizun-asegurua ere badugu, taldeko beratzi kide federatuta gaudelako…".

GAUR-GAURKOZ, HAMAR KIDEK OSATZEN DUTE ESKORIATZA AXTROKI ARKU TIRO TALDEA

Arku eta geziekin dibertsioa

Abenduaren 27an bilera irekia egin zuten, arku tiroarekiko interesa zutenen herritarrei zuzenduta. Hala ere, aurrera begira, asmoa Joseba Iñurrategi pilotalekuan zapatu goizetan praktikatzea dela adierazi dute taldekideek, eta nahi duena bertara daitekeela arku tiroa praktikatzera: "Eman beharreko pausoak emanda, Udalarekin hitzarmena sinatzea geratzen zaigu soilik. Adierazi digutenez, pilotalekua 10:00etatik 13:00etara bitartean izango genuke erabilgarri; materiala ere badugu, eta gogoz gaude arku tiroa praktikatzeko…".

Informazioa jasotzeko

Eskoriatza Axtroki Arku Tiro taldeko kideek adierazi dutenez, taldean sartzeko gogoa duenak aukera du horretarako. Horrekin batera, informaziorik edo argibiderik nahi duenak *Axtroki Arku Tiro* Facebook sare sozialeko orrialdera idatzi dezake.

Buztingintza familian tailerrean batutako zenbait herritar. AITOR AGIRIANO

Familiak batuta, buztingintzara gerturatzeko saioak izan dira

Buztingintza eta Zeramika Elkarteak antolatuta, buztingintza saioak izan dituzte hiru egunetan

I.B. ESKORIATZA

Abenduaren 26an, 28an eta urtarrilaren 3an, *Buztingintza familian* izeneko egitasmoa izan da Zubiate labean. Herritarrak buztingintzara gerturatzeko asmoz antolatu dute Eskoriatzako Buztinate Buztingintza eta Zeramika Elkarteko kideek tailerra, eta antolatzaileek adierazi dute egitasmoaren helburuak bete egin dituztela.

"Oso pozik gaude Gabon egun hauetarako antolatu dugun egitasmoak izan duen harrerarekin. Haurrentzat soilik barik etxekoekin batera buztinarekin jolasteko, ikasteko eta imajinazioa lantzeko saioak izan dira", adierazi du Buztinate elkarteko Olatz Pagalday kideak.

Zazpi familia elkartuta

Horrekin batera, Pagaldayk gaineratu du zazpi familiak hartu dutela parte eta giroa ezin hobea izan dela: *"Buztingitza familian* saioak izanda, zazpi familia izan ditugu; 14 lagun, guztira. Hala, balorazio positiboa egiten dugu bertan irakasten aritu garenok. Hori horrela, aurrera begira halako gehiago egitea ez dugu baztertzen…".

GORA ETA BEHERA

I.B

Gatz Bideko zubian hesia jarri dute

GI-3310 errepidean, Eskoriatzatik Gatzagara bitartean dagoen zubian hesia jarri dute. Gatz Bidearen tramuak errepidea zeharkatzen du, eta segurtasuna bermatze aldera jarri dute.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

Berrerabilpenaren eta sormenaren alde

Inauterietara begira zenbait ekimen jarri nahi ditu martxan Eskoriatzako Udalak. Batetik, azoka txikia; aurreko urteetako mozorroei erabilpena emateko; bestetik, mozorroak egiteko espazio bat utzi nahi die herritarrei, eta, azkenik, joskintza tailerra

Imanol Beloki ESKORIATZA

Aurtengo Inauteriak iristeko denbora dezente falta den arren, zenbait jardueraren berri eman gura izan du Eskoriatzako Udalak. Ideiak jasotzeko, mozorroak egiteko laguntza emateko eta jendeak Inauterietan parte hartzera animatzeko helburuarekin antolatu dituzte.

Azoka txikia

Mozorroen berrerabilpenaren aldeko apustua eginez, azoka txikia antolatu du Eskoriatzako Udalak. Aurreko urteetako mozorroak dituztenek, batez ere etxean egindakoak edo mozorrotzeko erabili daitezkeen arropak, zapiak, osagarriak edo bestelako tresnak dituztenek, honako leku hauetan eta ordutegietan utzi ahal izango dituzte beste batzuek erabili ditzaten: urtarrilaren 20tik 24ra, 09:00etatik 17:00etara, kultura etxean; edo Bibliotekan, 17:00etatik 20:00etara bitartean.

Iaz, Inauterietako desfilea. AITOR AGIRIANO

Antolatzaileek adierazi dutenez, eramandako gauzak dohaintzan izango dira; hau da, ez dute ezer jasoko trukean, eta jasotako materiala kultur etxean jarriko da salgai, prezio sinbolikoan, urtarrilaren 30ean eta 31n, 17:00etatik 19:00etara bitartean. Batutako diruarekin, berriz, pinturak, pintzelak… erostea da asmoa, eta Inauterietako zapatuan (otsailaren 22an) areto bat egokituko da nahi duenak makillatzeko erabili dezan. Gainera, bi pertsona egongo dira makillatzen laguntzeko –10:00etatik 12:00etara bitartean–.

Mozorroak egiteko lokala

Inauterietarako mozorroa egin eta horretarako espaziorik ez duenarentzat, otsailaren 3tik 9ra bitarteko astean kultura etxean gela bat atonduko dute, jendea elkartzeko eta mozorroak egiteko.

Joskintza ikastaro-tailerra

Otsailaren 2an eta 9an, 10:00etatik 13:00etara, mozorroak egiteko joskintza tailerra izango da kultura etxean. Jostun batek laguntza eskainiko du patroiak egiteko… Prezioa zortzi euro da eta izen-ematea, aldiz, kultura etxean.

ESKORIATZA KE

Saskibaloiaz gaiz, balio ugari

Aresko Saskibaloi Eskolak Eskoriatzako Kirol Elkartearekin elkarlanean antolatuta, Aresko Neguko Saskibaloi Campusa izan da Manuel Muñoz kiroldegian urteko lehenengo egunetan –urtarrilaren 2a, 3a, eta 4a–, eta, haurrak saskibaloira gerturatzeko asmoz antolatu badute ere, beste zenbait balio transmititzeko aprobetxatu dute antolatzaileek.

OHARRAK

Aldatz taberna, itxita

Eskoriatzako Aldatz taberna –Aranburuzabala 11– mitikoa behin betiko itxi dute.

Ipuin tailerra

Urtarrilaren 15ean, 17:00etan, Luis Ezeiza Herri Eskolan, 6-12 urte bitarteko haurrentzat zuzenduta, Fernando Morillok eskainiko du *Zure barneko sorgin-ipuina piztu nahi*? izeneko saioa.

Mendi irteera

Urtarrilaren 19an, 09:30ean, plazatik irtenda –Eraña-Lete-Mendiola-Mendibitzu-Arkarazo-Eskoriatza– ibilbidea egingo dute, Eskoriatzan Feminismoa Bizitik taldeak antolatuta.

Santa Columba ermitako egokitzapen lanak amaitu dituzte. AITOR LARRAÑAGA

Amaitu dituzte Santa Columba ermitako egokitzapen lanak

Gatz Museorako harrera, informazio eta salmenta gunea izango da Santa Columba ermita

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Gatz Museorako harrera, informazio eta salmenta gunea egiteko, Santa Columba ermitaren egokitzapen lanak urriaren 13an, Gatzaren Egunean, hasi zituzten, eta lanak abenduaren amaieran amaitu berri dituzte. Hala ere, eraikinak funtzio horiek baino gehiago izango dituela adierazi du Leintz Gatzagako Gatz Museoko arduradun Aitor Larrañagak.

"Azken urteotan, gatzaren ekoizpenari dagokionez, aktibitate profesionala sortu dugu, produkzioa handituz; *Leintz Gatzitzen* egitasmoaren bitartez, herri ekimen bihurtu da; bisitekin jarraitzen dugu; Gatzaren Eguna egonkortzen ari da urteen poderioz; Santa Columban egin ditugun egokitzapenek gatz ekoizpen gunea eta museoa banatu eta ordenatzeko balio izan digute, eta *Leintz Gatzitzen* taldeak ideia eta proiektu berriak sortzeko egoitza izateko ere bide emango digu".

Garai bateko ideia ardatz

"Garai batean, gazkinen kofradiako egoitza izan zen Santa Columba ermita, eta bertan urteko gatz ekoizpenaren gainean, kostuaren gainean eta bestelakoez eztabaidatzen zuten. Hori horrela, harrera, informazio eta salmenta gunea izango dugun arren, ideia berriak sortzeko gunea ere izango da, eta horretan eragin gura dugu".

Proiektuarekin bat eginez

Gatz Museoaren proiektua harrera ona izaten ari dela ere gaineratu du Larrañagak, Foru Aldundiak, Mankomunitateak eta Eusko Jaurlaritzak begi onez ikusten dutela Gatz Museoaren bueltan egiten ari diren aurrerapausoak nabarmenduz.

Maitasunaren apologia

Ortzadar Gabilondo gatzagarrak ama du kartzelan, eta bertara egindako bidaiak, dituen emozioak-eta batu ditu. Testu horrekin bideo bat egiteaz batera, urtarrilaren 28ko Hatortxu Rock jaialdian, Los Zopilotes Txirriaos talde nafarrak *Siete Mares* kantua jotzean, idatzitako mezua irakurtzeko aukera izan zuen oholtza gainera igota.

ORTZADAR GABILONDO

Osintxuko auzotar batzuk Osintxuko plazan, 2019ko azaro amaieran. JOKIN BEREZIARTUA

Hil aurretik auzoek bizi duten egoeraz, Osintxun

Hedoi Etxarte idazleak 'Auzoak: egungo egoera ulertzeko zenbait zertzelada orokor' izenburu duen hitzaldia emango du urtarrilaren 15ean Osintxuko liburutegian (18:00): "Etxeetan gero eta jende gutxiago bizi da, eta sozializatzeko esparruak galtzen ari dira"

Jokin Bereziartua BERGARA

Auzoak: egungo egoera ulertzeko zenbait zertzelada orokor. Izenburu hori jarri dio Angiolillo liburutegiak Osintxun antolatu duen hitzaldiari. Urtarrilaren 15ean izango da, Osintxuko liburutegian (18:00), eta Hedoi Etxarte idazle nafarra gonbidatu dute hizlari lanetan jarduteko; Angiolillo liburutegiaren hamargarren urteurreneko ekintzen barruan kokatzen da hitzaldia.

"Denborak espazioa suntsitu du"

Etxartek ez du Bergara apenas ezagutzen eta, beraz, ez ditu Osintxuko bertako errealitatearen gaineko argibideak emango: "Hitzaldiaren aurretik bertakoek kontatuko didatena oso adi entzungo dut, noski, baina ni fenomeno orokorragoak kontatzera joango naiz". Etxartek dioenez, duela hainbat mendetatik landa eremuak hirietatik pentsatu dira: "Merkataritzarekin eta bereziki azken bi mendeetan teknologiarekin lotuta, aldaketak itzelak izan dira. Denborak espazioa suntsitzen duenetik, alegia; hasieran gurdiekin, gero trenarekin, eta azkenik, auto, kamioi eta hegazkinekin, gure espazioa bizitzeko moduak erabat aldatu dira. Eta horietan ezinbestean izan du eragina erabat oinez bizi ditugun lekuak; eta horien artean daude auzoak".

Gizarte gero eta indibidualistagoa

Horrekin batera, gaur egun kapitalak hiria eta hirian dagoen guztia ustiatzen duela nabarmentzen du Etxartek: "Hirian dauden pertsonen gaineko kontrola, higiezinen espekulazioa, logistika... dena kontrolatzen du kapitalak. Denda txikiak dira adibide garbiena, gaur egungo kapitalismo basatiari eustea oso zail dutenak; denden ordez merkataritza-guneak daude, auzokideen jabetzakoak ez direnak eta gertu ekoiztutako produkturik saltzen ez dutenak, salbuespenak salbuespen". Egoera horrek dakar, Etxarteren arabera, gero eta indibidualistagoa den bizitza: "Etxeetan gero eta jende gutxiago bizi da eta sozializatzeko esparruak galtzen ari dira".

Parisko eta Berlingo adibideak

Osintxura etorrita, eskolaren etorkizuna bermatzeko lanean ari dira Ponportola guraso elkartea eta auzotar batzuk. Izan ere, uste dute eskola txikia ume faltagatik itxiko balitz auzoaren etorkizunerako ere oso latza litzatekeela. Eskola txikien garrantziaz galdetuta, adibidea kontrako norabidean jarri du idazle nafarrak: "Oso kezkatuta daude Paris erdialdeko auzoetan etxebizitzak turistentzat bideratu direlako eta ratioek ez dutelako ematen haur eskolak eta eskolak betetzeko. Horrek esan nahi du auzo horiek pikutara doazela, turistentzat direla eta honezkero ez direla bizigarriak".

Parisko egoerari kontrajarrita, Berlin aipatzen du idazleak: "Gero eta zailagoa da bizitza toki guztietan, baina Berlinek baditu oraindik oso bizigarriak diren auzoak. Izan ere, zer izan behar du auzo batek bizigarria eta erakargarria izan dadin? Bizitzako garai guztietarako aproposa izatea, eta haur eskola, eskola, parkeak, tabernak, gazteendako lekuak, liburutegia... izatea; betiere, tokiaren eta kulturaren arabera".

Hala ere, Etxartek dio kalea bera ere izan behar dela erabilera publikorako tokia: "Gaur egun, tamalez, hiriguneetako toki larregitan jartzen du baloiarekin ezin dela jolastu. Hori astakeria itzela da; hori umeak onartzen ez direla esatea da".

ETXARTE: "BIZITZAKO GARAI GUZTIETARAKO APROPOSA IZAN BEHAR DA AUZO BAT BIZIGARRIA IZATEKO"

PSE-EE kezkatuta dago Deba ibaiko bazterren egoera dela eta

EH Bilduri neurriak hartzeko eskatu diote, bereziki ibaitik gertu dauden eremuetan plastikorik ez botatzea lortzeko

J.B. BERGARA

Bergarako PSE-EEk aditzera eman du asteon kezkatu dagoela Deba ibaiak herritik igarotzen den tartean inguruak duen itxurarekin. "Bergarako tartean ibai bazterrean ikus daitezkeen plastiko zatiekin eta bestelako hondakinekin, paisaia negargarria da", adierazi dute ohar bidez.

Plastiko zati bat arrama baten, asteon. E.A.

Neurriak hartzeko eskaera

Hori horrela, alderdi sozialistako bozeramaile Alberto Alonsok Udal Gobernuari eskatu dio hartu beharreko neurriak har ditzala edota abiatu beharreko kanpainak abia ditzala, herritarrak beste modu batera jardun dezaten kontzientziatzeko. Ibaitik gertu dauden eremuetan plastikorik ez botatzeko neurriak behar direla uste du Alonsok. "Gainera, lehenbailehen garbitu beharko lirateke plastiko zati horiek, berriro euria hasi eta itsasoan ez dezaten bukatu", gaineratu du zinegotzi sozialistak.

Horrez gain, Alonsok gogora ekarri du ibaien eta erreken osasunak "berebiziko garrantzia" duela ingurumenean eta ibaien zaintza araututa datorrela Europako Parlamentutik: "Lurrera botatzen den zaborra, bereziki plastikoa, hori da mundu mailan dugun kutsadura arazo itzelaren eragile nagusia; neurriak hartu behar dira".

JOSU BILBAO

Argiak pizteko pedalkadak

Gabonetako argiak modurik garbiena eta osasuntsuena erabilita piztea, hau da, dinamoen bidez eta bizikleten pedalei eraginda. Lan horretan aritu ziren urtarrilaren 4an gaztetxo batzuk, Fraiskozuri plazan; Maykolux enpresako Andoni Candamilen arabera, helburua da konturatzea eta kontzientziatzea energia garbiarekin ere argitu daitezkeela herriak eta hiriak.

"Bergararren ongizatean sakontzeko" zuzenketak

EH Bilduren aurrekontu proposamenari bederatzi emendakin aurkeztu dizkio EAJk, eta zuzenketon artean daude jaiotzak sustatzeko, hileta zibiletarako espazio bat sortzeko, Zubieta-Masterreka ardatza urbanizatzeko eta lurpeko parkinga exekutatzeko partidak

Jokin Bereziartua BERGARA

Urtarrilaren 27an egingo da 2020ko udal aurrekontua onartzeko osoko bilkura, eta, EH Bilduren proposamena aztertu ondoren, EAJk bederatzi zuzenketa aurkeztu ditu. "Bergararren ongizatea azpimarratu nahi dugu. Gure helburu nagusia da Bergara adiskidetsua, jasangarria eta integratzailea lortzea". Jeltzaleen arabera, zuzenketa horiek egiterakoan bergararren eta sektoreko eragileen eskaerak eta iradokizunak kontuan hartu dituzte.

EAJko Arregi, Agirre, Lete, Murgiondo eta Galarraga, batzokiko agerraldian. X. URZELAI

Jaiotza tasa eta hileta zibilak

Zuzenketen artean dago jaiotzak sustatzearena. 2020an jaioko direnei laguntzeko programaren barruan –adopzioak barne–, jeltzaleek proposatzen dute jaioberriaren lehen bost urteetan ardurapeko seme-alabak mantentzearekin eta zaintzearekin lotutako behar ekonomikoei erantzuten laguntzea. Hasierako proposamena hilean 300 euroko laguntza ematea litzateke, jaioberriaren lehen bost urteetan, familiaren errenta edozein dela eta, betiere, familiak Bergaran erroldatuta segitzen badu.

EAJren beste eskaera bat da hileta zibilak egiteko espazio bat sortzea: "Ezinbestekoa da ekipamendu horretarako kokapena herritarrei irekitako prozesu parte-hartzaile baten bidez aukeratzea, kokalekua eta betebeharreko baldintzak zehaztu ahal izateko". 30.000 euroko partida bat bideratuko lukete.

Zubieta-Masterreka ardatza

Bestalde, "Bergara atsegin" bati begira, Zubieta-Masterreka ardatza berriro urbanizatzeko Udal Gobernuak proposatzen dituen 200.000 euroak ez dira nahikoa EAJren ustez: "Argi eta garbi, ez da nahikoa auzoa osorik berritzeko. Uste dugu berritze-lan honi ezin zaiola zati batekin bakarrik aurre egin. Ardatz osoaren urbanizazio-jarduketaren bidez bakarrik lor daiteke Bergarako mugikortasuna hobetzea eta eremu horietako irisgarritasuna hobetzea, gutxi gorabeherako 1.800.000 euroko aurrekontuarekin. Horretarako, hainbat urtetarako partida bat gaitu daiteke, obra bere osotasunean gauzatu ahal izateko".

Lurpeko aparkalekurako partida

EAJk lur azpiko parkingaren partida hornitzen jarraitzea ere proposatu du: "Mugikortasun plana oraindik ez dagoenez, aparkalekuaren partida mantentzea eskatzen dugu, ekarpen nahikoa egitea exekuziora begira".

Amaitzeko, EAJren beste zuzenketa batzuen artean daude Bergara Guau elkarteak eskatutako maskotendako gune berdeak sortzea –eta Goiko Estazioko proiektua gauzatzea eskatzen dute horretarako–; hainbat zubi argiztatzea; zirkuitu turistikoa egitea San Pedroko bobeden inguruan; eta gaur egungo negozioen belaunaldi-transmisioan laguntzea, besteak beste.

GORA ETA BEHERA

Hainbat atzerako ispilu apurtuta Errege egunean

"Oso haserre" idatzi du herritar batek, Errege egunean bere autoko atzerako ispilua apurtuta agertu zelako. Sare sozialetan ere bolo-bolo ibili da gaia, Koldo Eleizalde kalean "gutxienez hamabost" atzerako ispilu apurtuta agertu zirelako: "Lotsagarria da herritar batzuen jarrera".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?
berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.

I.A.

OHARRAK

Jardun elkartea: euskal trivialeko irabazleak

LHko, DBHko, batxilergoko eta 18 urtetik gorako 189 partaide izan dira aurten. A kategoriako (LH) irabazleak izan dira Erik Lazkano, Telmo Balmori, Ekain Muruamendiaraz eta Paulo Elkoroberezibar; B kategoriako (DBH eta batxilergoa) irabazleak izan dira Oier Sanchez eta Mohamed Abdulah; eta C kategoriako irabazlea izan da Amaia Etxebarria Agirre.

Odola emateko aukera hilaren 15ean eta 29an

Osasun zentroan eman ahalko da odola, 18:00etatik 20:00etara. Kontaktua: *bergarakoodolemaileak@gmail.com* / 669 10 89 77.

Martxanteren saski erotikoaren zozketa

Lehen sariaren zenbakia 1.457 da –ordezkoa, 238–, eta honako hau dauka: jostailu erotikoak, olioak, edariak, masajeetarako gida, musika erotikoa, janariak eta gatzak. Bigarren sarian film erotiko sorta bat banatu dute; zenbakia 418 da –ordezkoa, 728–.

Erretiratuen eta pentsiodunen elkarretaratzea

Bergarako erretiratuek eta pentsiodunek, Gabonetako etenaren ondoren, urtarrilaren 13an ekingo diete astelehenetako elkarretaratzeei: eguerdiko hamabietan, herriko plazan.

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...
Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

BERGARA MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

Kabutzia
ARRANDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

"Sinpletasunak harritu egiten gaitu oraindik"

VALERIA GUGLIETTI ARTISTA

Zapatuan 'Zineko itzalak' lana erakutsiko du artista argentinarrak Seminarixoan: "Amaieran ikusle heldu zein gazteak saiatzen dira eskuekin itzalak egiten"

Xabier Urzelai BERGARA

Valeria Gugliettiren eskutik iritsiko da bihar, zapatua (18:00, Seminarixoa, 4 euro), *Zineko itzalak* izeneko ikuskizuna. Adin guztietarako da aproposa. "Baina ez dakit nork gozatzen duen gehien, egungo gaztetxoek ez dute-eta itzalekin jolasteko halako ohiturarik. Helduok, berriz, haurrak ginenean...", dio, barrez. Bartzelonatik erantzun dizkie GOIENAko galderei.

Zer dela-eta hasi zinen itzalekin lanean?

Hainbat influentzia izan nituen, egia esan. Gaztetako bikotelagunaren aita magoa zen, inoiz ez nuen ezagutu, baina Super 8an egindako grabaketak genituen, eta abiapuntu ona izan zen. Horrekin batera, Sergio Tajanen publikazioak nituen, Gustavo Di Sarroren gomendioak... Asko praktikatu behar izan nuen eskua hartu ahal izateko.

Kabaretean jarduten zenuen orduan.

Bai; gogoan dut bi orduko ikuskizuna egin gura izaten genuela, baina inoiz ez ginela bi ordura iristen, motz geratzen ginen. Orduan pianoa jotzen nuen... Eta, halako batean, itzalak egiten hasi nintzen eta sekulako arrakasta izan nuen. Ikuskizun berritzailea zen, eta, aldi berean, oso zaharra, guztiok ahalegindu gara-eta umetan eskuekin eta argiarekin jolastuz itzalak sortzen. Kontua da halaxe hasi nintzela, eta geroago eta ikuskizun landuagoak eskaintzen hasi nintzen.

Bada, zer da bihar Seminarixoan batuko diren ikusleek ikusiko dutena?

Itzalekin egindako ikuskizuna da, modu sinplean esanda. Zinema mutua da oinarrian, musikaz lagunduta 45 minutuko ikuskizun landua da Bergarara ekarriko dudana. Eta, gainera, ikuskizun honek lotura zuzena du zinemarekin, bertako hainbat pertsonaien gaineko parodia egingo dugu eta: Superman, Charles Chaplin, Tarzan, Dracula, El Zorro... Operako abeslari bat ere erakutsiko dugu itzalen bidez...

Valeria Guglietti, itzalekin jolasean. SOMBRASCHINAS.COM/

"45 MINUTUKO IKUSKIZUN LANDUA DA, EZ DAGO GRABAKETARIK, EZTA AURKEZLERIK ERE"

Askotan, sinpletasunean egoten da edertasuna.

Bai, ez izan zalantzarik, gezurra badirudi ere, oraindik sinpletasunak harrapatu egiten gaitu. Ikuskizunean, esaterako, argiztapena oso garrantzitsua da. Eskuekin sortutako itzalak dira, baina beste batzuetan beste figura batzuekin lagunduta egiten ditut itzalak. Hala ere, arrakastaren gakoetako bat da ikuskizun osoa ikusleen aurrean egitea, zuzenean, zelan lan egiten dudan ikusten dute bertatik bertara, eta horrek harrapatzen ditu ikusleak. Ez dago aurre-grabaketarik, ez dago aurkezlerik... Bertan egiten dut dena, eta polita da ikustea jendea zelan geratzen den txundituta. Sinplea da, baina, aldi berean, oso ikuskizun landua.

Izan ere, ez da izango erraza jendea entretenituta izatea, kontuan hartuta gaur egungo gazteendako marrazki bizidunek edo filmek ze abiadura izaten duten, ze efektu berezi, koloreak, musika...

Halaxe da, erronka ez da txikia, baina ikuskizunak erritmo polita du eta jendea ez da aspertzen, seguru egon horretaz. Ondo aukeratutako musika, itzalak, sorkuntza lana, urtetako esperientzia... Ikuskizun polita da. Amaieran, poltsikoko telefonoko linternak hartzen dituzte, eta hormaren kontra eskuekin itzalak egiten saiatzen dira eurak ere. Eta ez soilik gaztetxoak, nagusiak ere halaxe ibiltzen dira; kar, kar, kar.

Iaz liburu bat ere argitaratu zenuen...

Bai, eta zapatuan Bergarara eramango ditut zenbait ale, gura duenak erosteko eskuragarri izan dezan. Liburuan, azken batean, eskuekin eta bestelako figurekin itzalak zelan egin irakasten dut, itzalen lengoaia jaso dut liburuan, eta opari polita izan daiteke.

Abenduaren 27ko finalaren une bat; Maite Aristegi bertsotan, soinuaz. KOPLA BARIK

Puntu Puntuan taldea irabazle Bergarako bertsolari txapelketan

Urtez urte hazten doan ekimena da Bergarako bertsolari txapelketa herrikoia. Finalean ia 200 lagun batu ziren

X.U. BERGARA

Aurten taldeka jokatu dute Bergarako bertsolari txapelketa, eta finala abenduaren 27an izan zen, kartzela zaharrean. Kopla Barik bertso eskolakoen arabera, ia 200 lagun elkartu ziren final handian; Puntu Puntuan (Oxan, Maite eta Artola) taldea izan zen nagusi, Uharteko Izkirak (Patxi, Enaitz eta Redondo) baino finago ibili zen eta.

Askotariko bertsoak

Finalean askotariko bertsoak egin behar izan zituzten sei bertsolariek: taldekako lana, kartzelako lana, agurrak, publikoak emandako lau oinei kantuan erantzun behar izatea... Umore ona nagusi eta tarteka ale ederrak ere entzuteko aukera.

Ostera egiteko nahikoa motibo

Hala, bertso txapelketa arrakastatsua izan da, antolatzaileen iritziz, eta, duda barik, hori bultzada da 2020an berriro antolatzeko; horretara gonbidatzen du antolakuntzaren balorazioak, behintzat: "Oso ondo joan zen dena, eta bertaratu ziren ikusleek oso gustura egon zirela esan digute".

Eguaztenero film bat, jatorrizko bertsioan, eta azpitituluekin

ZinemaOn ekimenaren barruan urtarrilean zehar eguaztenero eskainiko dute film bat Seminarixoan (20:00etan, 3 euro) jatorrizko bertsioan eta azpitituluekin. Oraingo astean, *Les Miserables* filma erakutsi dute, hilaren 15ean *La Verité* filma emango dute, hilaren 22an *Sorry we missed you* eta amaitzeko, hilaren 29an, *Madre* izeneko filma.

Bestalde, urtarrilaren 2an erakutsi zuten Seminarixoan On Serafin Esnaolak Super 8an grabatutako irudiekin Asier Altuna *Kixi*-k, Migel Angel Elkoroberezibarrek eta Aitor Alberdik egindako filma, eta emanaldiak bergararren artean oso harrera ona izan zuen.

Lokatzako eta BKEko lagunek Gabonetako zozketak egin dituzte

Bergarako Kirol Elkarteko eta Lokatza Ziklismo Eskolako lagunek eman dituzte aditzera zeintzuk izan diren zozketetako irabazleak. BKEko zozketari dagokionez, irabazleak izan dira Fernando Jauregi, Josean Pescador, Legazpiko Najera familia eta Harri Arin. Esan behar da hirugarren sariari dagokion irabazlea ez dela azaldu. Gabonetako Lokatzako zozketari dagokionez, 6.590 izan da zenbaki irabazlea –500 euro eta Ibi dendan bizikleta–, eta 989 zenbakia izan da bigarren saritua –200 euro eta Zumelagan bi lagunendako afaria–. Irabazleak 653 72 30 63 zenbakira deitu beharko du urtarrilaren 22a baino lehen.

Mariaren Lagundia Ikastola

ZATOZ GU EZAGUTZERA

Ate irekiak

urtarrilaren 17an,
17:00-19:30

Ateak zabalik

bisita pertsonalizatuak

idazkaritza@mlagundia.org

943762540

Bilera informatiboa

urtarrilaren 29an,
18:00etan

Eskolako patioaren barrualdea itxiturari errefortzua jarrita. MAIDER ARREGI

Patioko itxitura berritua hotzetik babesteko

Herri Eskolako patioko itxitura berriaren onurak igartzen hasiak dira jada antzuolarrak. Izan ere, goitik behera itxitura egokitu dute bai kanpotik eta baita ere barrutik. Helburua patioan sortzen ziren haize korronteak saihestea izan da

Maider Arregi ANTZUOLA

2019a amaitu aurretik pare bat lan sakon egin dituzte herrian. Batetik, Herri Eskolako patioaren itxitura egokitu eta berritu egin dute. Bestetik, Udal Pilotalekuko zenbait konpontze-lan egin ditu Udalak. Bi lanek 58.000 euroko aurrekontua izan dute.

Eskolako patioko itxitura

Herri Eskolako patioaren itxitura egokitu eta berritu egin dute. Helburua bertan sortzen ziren haize korronteak saihestea izan da, besteak beste. Izan ere, neguan, hotzaren ondorioz, eskolako patioan egotea oso deserosoa zen erabiltzaileendako. "Goiko zatia soilik geneukan babestua polikarbonato delako materialaz; baina beheko partea irekita zegoen. Negu sasoian, ordea, ez zen leku egokia bertan egoteko", azaldu du Hirigintza teknikari Valen Moñuxek.

Hala, Antzuolako aparejadoreak zehaztu du itxitura guztia, goitik behera, polikarbonato materialezkoa dela. Izan ere, material hau inpaktuen aurrean oso gogorra da eta edozein baloikada jasateko gai da. Horregatik, barrutik itxiturari errefortzua jarri zaio aipatutako arazoei irtenbidea emateko.

40.000 euroko aurrekontua izan dute lanek. Hala ere, teilatuan konponketa txiki bat egiteke dago oraindik eta ondorengo egunetan egingo dute, lanei amaiera emateko.

Eta erabiltzaileei galdetuta, GOIENAri aho batez adierazi diote orain babestuago daudela eta egindako lanei esker hotzaren eta sortzen diren korronteen aurrean babestuago daudela. "Neguan ezin zen bertan geldi egon. Sekulako haize korronteak sortzen ziren bertan. Itxitura berriarekin alde ederra dago! Orain negu sasoian, bereziki, egon gaitezke patioan".

PILOTALEKUKO KANTXAN HAINBAT EGOKITZAPEN EGIN ZITUZTEN URTEA AMAITU AURRETIK

Baina itxitura berriak argitasuna kentzen duen arren, materiala gardena dela dio Valen Moñuxek.

Pilotalekuko lanak

Eta 2019a amaitu aurretik egindako bigarren konpontze-lan sakona izan da Udal Pilotalekuan egin dituzten egokitzapen lanenak.

Guztira, 18.000 euroko inbertsioa egin du Antzuolako Udalak eta hainbat lan sakon egin dituztela aurreratu du Hirigintza teknikari Valen Moñuxek: "Itogin handia zegoen eta hori konpondu egin da; armarria berritu egin da eta, gainera, armarriaren irudi berria jarri da, frontisean pintaketa lanak egin dira eta azpiko egurra berritu egin da... kantxaren behealdeko harmaila mugikorren sistema ere egokitu dute, beteak beste".

A8M lasterketaren irteera unea. IMANOL SORIANO

A8M lasterketako dortsal guztiak hiru ordutan agortuta

Antzuolako Zortzi Miliak mendi probaren zortzigarren edizioa otsailaren 16an izango da, festa giroan

Maider Arregi ANTZUOLA

Ia 14 kilometro izango dituzte aurretik Antzuolako Zortzi Miliak lasterketako 240 parte hartzaileek. VIII. edizioa otsailaren 16an izango da eta dagoeneko dortsal guztiak agortuta daude. Facebook bidez jakinarazi dute antolatzaileek. "Hiru ordutan plaza guztiak beteta... izugarria! Eskerrik asko benetan! Sentitzen dugu plaza barik gelditu zaretenengatik, baina lasterketaren kalitatea mantentzeko kopurua jarri beharra daukagu; eskerrik asko eta gogor entrenatu", iragarri dute.

10 dortsal zozketatu dira

Antzuolarren artean 10 dortsal zozketatu dira aurten ere. Hauek dira sarituak: Aitor Atxa; Markel Lete; Xabier Iparragirre; Danel Kortabarria; Iñigo Alonso; Erlantz Iturbe; Txomin Arzallus; Luis Mari Larrea; Mikel Lizarazu eta Bittor Arbulu, hurrenez hurren.

Antolatzaileek ohartarazi dute boluntarioak ere beharko dituztela lasterketa egunera begira hainbat lan egiteko eta interesa dutenek mezua bidali dezaketela *antzuolako8m@gmail.com* helbidera idatzita.

Urteko lehen odol ateratzea egingo dute martitzenean

Urtean hiruzpalau odol ateratze egiten ditu Antzuolako odol-emaileen elkarteak –lau hilean behin, gutxi gorabehera–. Gainera, orain arte ez bezala, aurrerantzean martitzenetan egingo dituzte odol ateratzeak Olaranen. Urteko lehena urtarrilaren 14an egingo dute Olaran etxean, 17:30etik aurrera –hurrengoak maiatzean eta irailean egingo dituzte–.

Odol-emaileen elkarteak odol-emaile berrien beharra azpimarratu du eta Antzuolako gazteak animatu gura ditu datorren martitzeneko odol ateratzera: "Gazteen beharra dago; izan ere, gaixotasun eta istripu egoeretan behar handia dago".

Mendiko makilen erabilera ikasteko ikastaroa

Arrola mendizale taldeak *nordic walking* edo ibilera nordikoa deritzon modalitatea ezagutzeko irteera antolatu du datorren asterako. Hala, mendiko makilen erabileran sakontzeko aukera izango dute interesa dutenek urtarrilaren 18an, zapatua, 10:30etik 13:30era bitartean. Trenbide zaharrean, Kaxeta inguruan egingo da ibilbidea.

Izena ematea derrigorrezkoa da: *arrolamt@gmail.com*-en edo Arrolako batzarkideren bati jakinaraziz. Ordaindu beharreko prezioa 10 eurokoa da. Antolatzaileek ohartarazi dute ibilera nordikoa praktikatzeko makilak antolatzaileek eramango dituztela.

'Kaxeta': "Mus-jokalari gazteak ere gura ditugu"

Abian da Antzuolako mus txapelketa eta jada lehen kanporaketa jokatu dute. Gaur bigarrena jokatuko da, Gailur tabernan, 22:30ean hasita. Izena bertan emateko aukera dago. Finala urtarrilaren 26an jokatuko da, Gorosti tabernan, 16:30ean hasita

Maider Arregi ANTZUOLA

Antzuolako XII. Mus Txapelketa hasi da eta bigarren kanporaketa jokatuko da gaur Gailur tabernan, 22:30ean. Jesus Kortabarria *Kaxeta* antolatzaileak urtero ahalegin handia egiten du, musean egiteko ohitura gal ez dadin eta jokalari berriak erakartzeko. Aurten ere pozik dago, txapelketaren bueltan batzorde polita sortu dutelako. Txapelketara parte hartzaile gazteak erakarri gura dituztela aitortu du: "Iazko parte hartzeak zertxobait behera egin zuen. Baina esan beharra daukat normalean musean jokatzen ez duten bikoteak ere etortzen direla. Eta gure helburua, hain justu, hori da: jende gaztea eta berria erakartzea. Musean egiteko ohiturari eutsi gura diogu, eta antzuolarrei animatzeko esan".

Mox tabernan jokatutako kanporaketako mus partida. 'KAXETA'

Kanporaketak hasi dira

Moxeko lehen kanporaketako bikote sailkatua da Luis Fernandezek eta Jesus Sanchezek osatzen dutena. Guztira, lau kanporaketa jokatuko dira eta finala urtarrilaren 26an Gorosti tabernan izango da. Irabazleek otsailean Gipuzkoako finala jokatuko dute. Euskal Herriko finala, berriz, martxoaren 14an Zigoitia Gopegin jokatuko da.

MUS TXAPELKETAKO FINALA HILAREN 26AN JOKATUKO DA GOROSTI TABERNAN, 16:30EAN HASITA

Finala, lau erregetara

Euskal Herriko final nagusia eta baita Antzuolako finala ere lau erregetara jokatzen dira. *Kaxeta*-k dio ez dela ohikoena joko mota hori: "Finala lau erregetara denez, aukera ematen diegu parte hartzaileei herriko kanporaketetan lau erregetara jokatzera ohitu daitezen".

Bailaran, zaletasuna

Antzuolan eta orokorrean bailaran zaletasuna egon badagoela dio. "251 bikote ere lortu nituen txapelketaren 10. urteurrenean. Zentraletik, harrituta, nola zen posible galdetzen zuten. Zaletasuna badago, baina atze-lana ere bai. Lehen, neu bakarrik aritzen nintzen; orain, taldelana da eta batzorde polita osatu dugu", azpimarratu du.

ARROLA, GOIENA ETA IKER AIZKORBE

Urte berriari ongietorria!

Makina bat ekintzaz gozatu dute antzuolarrek abendutik urtarrilera bitartean. Olentzerori eta Mari Domingiri harrera beroa egin zieten herriko gaztetxoek. Kirolaz gozatzeko aukera ere izan dute herritarrek, San Esteban krosaren eta pilotako Gabon Koparen eskutik. Urtea ederto hasi dute ere Arrolako mendizaleek, Arrola mendian salda eta txorizoa dastatuta.

Zubikarai eta Iturbe nagusi iaz

Txeme Zubikarai eta Lorentzo Iturbe izan ziren 2019ko Antzuolako mus txapeldunak.

Parte hartzeko, izena eman

Gaurko kanporaketan parte hartzeko, bikoteko 20 euro ordaindu beharko da. Bikoteek kanporaketa bakarrean parte hartu dezakete. Lau edo zortzi erregetara jokatzeko aukera izango dute jokalariek.



2019ko finaleko mus-partida. JESUS KORTABARRIA

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJIKA
HARATEGIA
Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak
Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

Gabonak ez dira aspertzeko

Eguzkitsuak izan dira aurten Gabonak, eta udazken euritsuaren ostean gustura hartu dituzte zeru urdineko jaiegunak Elgetan ere. Barruko zein kanpoko jarduerak egiteko aukera izan da. Antolatzaileak pozik dira ekintzek izandako harrerarekin

Gabon kantuak, Gabon egunean, Andra Mari plazan. L.Z.L

Bolo tiraldietako irabazleak sariekin. ELGETAKO UDALA

Umeen pilota jaialdia, Errege egunean. L.Z.

Talde argazkia Intxortan, Eguberri egunean. KANTSATZEKE M.T.

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Eskolako neska-mutikoen azoka txikiak ekarri zituen Gabonak Elgetara, abenduaren 20an. Ordutik, ekitaldi asko eta askotarikoak izan dira herrian, eta nork bere aukeraketa egin du.

Egun berean, Europako ipuinak kontatu zituen Maider Galarza ipuin kontalariak liburutegian, eta Lorea Larrañagaren gidaritzapean Gabonetako emanaldi berezia eskaini zuten herriko 30 bat musika ikaslek Espaloian. Bakarka, binaka edo hirunaka eta pianoarekin, gitarrarekin, bonbardinoarekin, biolinarekin edo soinu txikiarekin... askotariko piezak jo zituzten.

Biharamunean, abenduaren 21ean, Bilboko Gabonetako haur parkera egin zuten txangoa gaztelekutik. Hemezortzi neska-mutiko eta bi arduradun joan ziren egun-pasa.

Karta-jokoan

Abenduaren 23an bederatzi bikotek hartu zuten parte Ozkarbi eta Intxorta elkarteek lehenengoz antolatutako Gabonetako mus txapelketan.

Jose Antonio Ojanguren eta Juan Mari Arantzeta izan ziren irabazleak. Felix Sarasketak eta Paco Llamasek egin zuten bigarren. Juan Antonio Reyes *Pingui* eta Eleder Lozano sailkatu ziren hirugarren eta Mari Carmen Egiguren eta Antton Mañarikua, berriz, laugarren.

Ojanguren eta Arantzeta ondo ibili dira karta-jokoan Gabonetan; izan ere, garaile izan ziren, baita ere, erretiratuek abenduaren 26an jokatutako mahai-joko txapelketan. Musean eta briskan nagusitu ziren, gainera. Saio hartan bi bikote aritu ziren musean, zortzi briskan eta beste zortzi bikote tutean. Guztiak, erretiratuekin osatutakoak.

Ojangurenen eta Arantzetaren ostean Pello Uberak eta Javier Fernandezek egin zuten bigarren, musean. Briskan, berriz, Jesusa Iturrikastillo eta Mariasun Arruabarrena sailkatu ziren bigarren. Tute txapelketan Maximo Bolinaga eta Patxi Bouzas nagusitu ziren. Arantxa Aretxaga eta Maria Esther Telleria bigarren sailkatu ziren. Bikote onenak Debagoien mailako kanporaketan izango dira.

Olentzero eta Gabon kantak

Urtero moduan, abenduaren 23an jaitsi zen Olentzero Intxortatik. Herriko neska-mutikoekin elkartu zen plazan eta gozokiak eta musuak banatu zituen. Maala guraso elkarteak, berriz, biharamunean egin zuen Gabon eskea. Beste bizpahiru talde ere ibili ziren kalez kale kantuan.

Intxortara igoera eta boloak

Aurten ere Gabon egunarekin hamarretakoa egon da Intxorta puntan. Kantsatzeke Mendi Taldeak antolatuta hogei bat lagun elkartu ziren tontorrean mokadutxoa jan eta argazkia ateratzeko.

Bolariek ere bi tiraldi izan dituzte jaiotan herrian. Abenduaren 20an jokatu zuten lehenengoa eta 27an bigarrena. Hogei bat parte-hartzaile elkartu ziren saio bakoitzean. Lehen saioan Sebas Aranzabal nagusitu zen, lau txirlo jota. Bigarrenean, berriz, Iñaki Burunza, bost jota.

Sailkapen orokorrean Sebas Aranzabal nagusitu zen, zazpi txirlorekin. Joseba Espillak egin zuen bigarren, seirekin, eta Iña-

Bergarako Arragoa folk taldea eta Lili Arantzabal elgetarra ipuin musikatua egiteko puntuan, Espaloian. L.Z.L

Ozkarbik eta Intxortak antolatutako mus txapelketako irabazleak. OZKARBI ELKARTEA

ki Burunzak hirugarren, bost txirlo jota.

Pilota txapelketak

Pilotak ere garrantzia izan du Gabonetan. Nagusiek Urtezahar egunean jokatu zituzten finalak. Hiru norgehiagoka izan ziren. Emakumezkoetan Maitena Mañarikua eta Uxue Larrea nagusitu ziren, Janire Lazkanok eta Ainhoa Zeziagak osatutako bikoteari 7-22 irabazita. 40 urtetik beherako gizonezkoetan Jon Irazabal eta Beñat Arabaolaza izan ziren txapeldun Oskar Sarasua eta Andoni Elorza bikotearen aurkako norgehiagoka 22-20 irabazita. Azkenik, 40 urtetik gorako gizonezkoetan Enrike Elkoro eta Iban Retolaza nagusitu ziren Oskar Askasibar eta Haritz Gallastegi 13an utzita.

Neska-mutikoek ere bi saioko pilota jaialdia izan dute Gabonetan; azkena, Errege egunean. 7 eta 13 urte arteko hamahiru mutiko eta neska bat aritu ziren; hamaika eskupilotan, bat palan eta bi eskupilotan zein palan. Bukaeran, denentzat banatu zituzten sariak.

Haur parkea eta folk kontzertua

Urtarril hasieran neska-mutikoendako haur parkea eta Arragoa folk taldearen saioa izan ziren herrian. Haur parkea bi arratsaldez egon zen zabalik frontoian. Bergarako Arragoa folk taldeak, berriz, urtarrilaren 3an egin zuen emanaldia, kafe antzokian, eta 180 bat lagun elkartu ziren. Ipuin kontaketa musikatua eta folk kontzertua izan ziren. Lehen zatian herritar bi izan ziren gonbidatuak: Lili Arantzabalek jo zuen biolina eta Iban Arantzabalek egin zuen ipuinaren narrazioa.



Haurrendako parkea. ELGETAKO UDALA

14 eguzki plaka jarri dituzte Elgetako udaletxeko teilatuan

Eguzki plakek sortuko duten energia Elgetako udaletxeak kontsumituko duela adierazi du Udalak

I.B. ELGETA

Eguzki energia aprobetxatuz energia elektrikoa sortzeko eta, bide batez, energia berriztagarrien aldeko apustua eginaz, Elgetako udaletxeko teilatuan eguzki plakak jarri dituzte Gabonetan. 330 watteko 14 modulu dira jarri dituzten eguzki plakak, eta, guztira, 4.620 watteko potentzia dute. Lanen kostua, berriz, 5.970 eurokoa gehi BEZa izan dela eman dute aditzera Udaleko ordezkariek.

"Udaletxeko teilatuan eguzki plakak jartzearen helburua darabilgun argindarra ahal den neurrian bertan sortutakoa izatea da", adierazi du Iraitz Lazkano Elgetako alkateak. Horrekin batera, sortutako energia udaletxeak kontsumituko duela eta potentziaren kalkuluak udaletxearen behar energetikoaren arabera egin dituztela gaineratu du Lazkanok. Eguzki plakak jarrita, eta gauzak ondo bidean, hemendik aurrera, eguzki plakek sortuko duten energiari jarraipena eta inbertsoreari mantentzea bakarrik egin beharko diotela adierazi dute Udaletik.

Elgetako udaletxeko teilatuan eguzki plakak jarri dituzte. LARRAITZ ZEBERIO

Herritarrentzat hobaria

Eguzki plaken aldeko apustua egin gura duten herritarrentzat laguntza ere eskaintzen du Elgetako Udalak. Indarrean dagoen hobari bat da eguzkitik datorren energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatzea autokontsumorako. Hala ere, zenbait baldintza bete beharko ditu hobariak jaso gura dituenak. Informazio gehiago gura duenak *Elgeta.eus* webgunean du eskura.

Joan Frances Tisner, iaz, apirilean, Espaloian. L.Z.L.

Maiatzera bitartean lau dantzaldi zuzeneko musikarekin

Joan Frances Tisner, Aniez Perez eta Mixel Etxekopar iragarri dituzte Herrixa Dantzan ekimenaren barruan

L.Z.L. ELGETA

Urtarrileko azken domekan, hilaren 26an, izango da Biarnoko Joan Frances Tisner Espaloian. Iaz ere Elgetan izan zen Gaskoniako dantzetan aditua den musikaria. Ordubeteko dantza tailerra egingo du lehenengo, eta *bal gascon* delako dantzaldi irekia jarraian.

Martxoko azken domekan, berriz, Aniez Perez dantza aditua izango da Elgetan. Euskal Herriko eta Europako *trad* dantzaldietako dantzak ekarriko ditu Elgetara zuzeneko musikarekin lagunduta.

Apirilaren 26rako Mixel Etxekopar txirularia eta kantaria gonbidatu dute Herrixa Dantzanera. Dantza tailerra eta dantzaldia egingo ditu, eta Zuberoako kadrileak eta braleak landuko ditu. Bestelakoetan, otsailaren 23ko saioan Aratusteetako dantzak izango dira nagusi eta maiatzaren 17rako Kantu eta Dantza Eguna iragarri dute, zuzeneko musikarekin. Udalak diruz lagundutako ekimena da Herrixa Dantzan. Dantzan Ikasi egitarauarekin elkarlanean antolatu dira Tisnerren eta Etxekoparren saioak ere.

Beizurako eta Azularako bideak konponketa gehiago behar ditu

Zirkulazioa zabalik da, baina bidearen zati bat erorita dago, eta konponketak egin beharko ditu Udalak

I.B. ELGETA

Abenduan izandako euriteen ondorioz, zenbait lur-jauzi izan zituzten Elgetan. Ugariak izan dira luiziak, baita bideetara eroritako pinuak ere, eta, lan gehienak udal langileek egin ostean, bide zati bat geratzen da konpontzeko, kalte larrienak jaso zituena, hain zuzen ere.

"Hainbat luperia izan ziren abenduan, eta egiteke dagoen lana Beizu eta Azula baserrietarako bidean egin beharrekoa da. Izan ere, bidearen zati bat erori zen, eta egunean bertan autoak pasatzeko egokitu genuen ingurua, baina bidea behar den bezala uzteko denbora gehiago behar da. Hirigintza Zerbitzuak eremua aztertu du konponketa nola egin jakiteko; espero dugu lanak aurki hastea", adierazi du Iraitz Lazkano Elgetako alkateak.

Horrekin batera, gaineratu du Elgetako Udalarena dela bidea, eta, beraz, konponketa Udalari dagokiola. Hala ere, euriteez gain, bide horren erabilera desegokiak eragin duen kaltea aztertu beharko dela ere adierazi du.

OHARRAK

Autobusa 'Orain Presoak' manifestaziorako

Bihar, 15:30ean, autobusa irtengo da Elgetatik Bilbon egitekoa den manifestaziora joateko. Interesatuek Haizea tabernan eman behar dute izena.

Matrikulazio epea zabalik Haurreskolan

Urtarrilaren 7tik 13ra, biak barne. Informazio gehiagorako: *elgeta.elgeta@haurreskolak.eus* edo 943 78 82 36.

IV. Mendi Mendia Racing jaia, otsailaren 8an

Ibilgailu klasikoen topaketa, talde argazkia, bazkaria eta kontzertuak. Tartean, Ostiada Oi! taldea. Txartelak salgai El Rincon de Lola tabernan zein Bergarako Arranuan. 608 67 64 42.

Oñatiko udalbatza, aurrekontuak onartu zituzten osoko bilkuran, 2019ko abenduaren 19an. O.E.

1,8 milioi euro inbertsioetarako

Oñatiko Udalak 17,2 milioi euroko aurrekontua izango du 2020an, eta, aho batez onartu ez den arren, elkarlanerako gogoa agertu dute udalbatza osatzen duten alderdi biek adostutako hainbat proiektu urtean zehar gauzatzeko

Oihana Elortza OÑATI

Orotara, 17,2 milioi euroko aurrekontua du Oñatiko Udalak aurtengo, 2020. urterako. Aurrekoa baino %23,76 txikiagoa da, baina horrek ez du esan gura aurrekontua ona ez denik, alkatearen esanetan: "Azkena baino txikiagoa da, baina kiroletako plan osoa aurreko urtean sartu genuen. Hala ere, 1,8 milioi euro ditugu inbertsioetarako. Bestalde, kontu hartzaileak egindako kalkuluetan ikusten da aurrezki arrunt garbia milioi bat eurokoa dela, positibo, eta egonkortasuna bermatzen du horrek".

Partaidetzako proiektuak

Udalak iaz eskainitako zerbitzu eta dirulaguntza guztiak mantenduko direla adierazi zuen alkateak aurrekontuak onartu ziren osoko bilkuran, eta egingo diren inbertsioak aipatu. Esaterako, herritarrekin batera partaidetza prozesuan erabaki ziren proiektuak gauzatuko dira: "Partaidetza prozesuan jasotako proiektuak hasieratik daude jasota. Hasita daudenei jarraipena eman, eta berriak egingo dira". Hor sartzen da, esaterako, Ugarkalde auzoan dauden ziburuei estalpea jartzea. Baita 6 eta 14 urte arteko gaztetxoendako, igotzeko eta oreka mantentzeko jolasekin gune bat hornitzea, sokak, sareak eta antzerakoak jarriz (60.000 euro). Herriko hainbat tokitan banku edo eserleku gehiago jartzeko 14.000 euro dira eta beste 12.5000 euro Emakumeen Etxea martxan jarri eta herri mailako diagnosia egiteko. Industria pabiloi hutsen eta horien erabilera aukeren azterketa egiteko ere beste horrenbeste euro erabiliko dituzte.

Hirigintza eta zerbitzuen atalean, brigada indartu egingo dute, "egunerokoan herrian dauden beharrak asetzeko". Horretarako, tresna eta makinerian 34.000 euroko igoera jaso dute. San Lorentzo eta Olakua auzoetako irisgarritasun lanekin jarraituko dute, baita LED teknologia duen argiteria publikoa jartzen ere. Berezaoko bidearen egokitzapenerako 15.000 euro asignatu dituzte eta 35.000 euro oinezkoen segurtasunerako diren bitartekoendako.

Auzoetako inbertsioak mantendu egingo dira; 120.000 euro. Auzo bideak eta eliz bideak berreskuratzeko partida 30.000 eurokoa da eta 40.000 eurokoa herri onurako mendietako pistak konpontzeko. Lehen sektorearen barruan, 30.000 euro izango dira Duruko txabolak eraberritzeko eta 20.000 euro udal artzain txaboletan lanak egiteko. Landa sektorearen diagnositakoa ere egingo da eta 6.000 euro daude horretarako.

Ongizatean igoera

Ongizate Sailak %1,62ko igoera izango du aurten eta etxetik etxerako zerbitzuak hartuko du diru gehien: 820.000 euro.

Haurren eta Gazteria Sailean, kontrara, jaitsi egin da gastua, "gaztelekuaren 25. urteurrena eta ludotekako inbertsioak falta direlako". Baina aisialdi hezitzaileko zerbitzua indartzea aurreikusi dute. Gazteen jarduera soziokulturaletarako 51.000 euro daude eta 1.000 euro gutxiago emantzipaziorako laguntzetan emateko.

Kulturan, 12.000 euro bideratuko dituzte promoziorako eta 80.000 euro izango dira kultur taldeen dirulaguntza deialdietarako. Herriko eta auzoetako jaietarako dirulaguntza mantendu egingo da: 186.000 euro.

Sozioekonomia Departamentuan, "tokiko garapen eredua bultzatzen" jarraituko dute: ekintzailetasuna bultzatu Olaburu eta Olalan guneetan, merkataritza biziberritzeko plana eguneratu eta turismo ekintzetara bideratutako partida mantenduz. Euskaran, *Arnasa Gara* ekimenean sartuko da Oñatiko Udala aurten. Berdintasun atalean, berriz, emakumeendako jabetze eskolak hartuko du diru gehien: 40.000 euro.

NATUR ESKOLAKO ETA ARAOTZEKO OSTATUKO LANAK AMAITZEA, 2020RAKO BI HELBURU

Abstentzioa, positibo

Aurrekontuen bozketan abstenitu egin zen alderdi jeltzalea. Abstentzio hori, baina, positibotzat hartu zuten alderdi biek. "Guk egindako proposamenetatik lau onartu dituzte. Gehiago izatea gustatuko litzaiguke, baina beste batzuk urtean zehar landuko ditugula adostu dugu, eta ondo ikusten dugu hori", esan du EAJko bozeramaile Ainhoa Galdosek. "Euren puntu batzuk hartzeko jaitsi egin ditugu gure kopuru batzuk. Beste gai batzuk ere aztertzeko gelditu gara, eta horregatik ulertzen dugu abstentzioa", azaldu du EH Bilduko bozeramaile Izaro Elorza alkateak. Galdosek, baina, gaineratu du jarraipen "zorrotza" egingo dietela aurrekontuei eta "proposamenak egiten eta adostasunetara iristeko bideak bilatzen" jarraituko dutela.

Udalaren egoera ekonomikoari dagokionez, oposizioak bere kezka agertu zuen abenduko osoko bilkuran eta finantza plan baten beharra "ezinbestekoa" dela esan du, beste behin". Udal Gobernuak ez du plan horren beharrik ikusten, "mailegua hartu aurretik udalaren zorra zeroan" utzi zutela esanaz.

Egingo diren egitasmoetako batzuk

Argiteria publikoan LED teknologia jartzen jarraituko dute 2020an, 80.000 euro herri barrurako eta beste 20.000 euro landagunerako.

Azkoagain futbol zelaian irisgarritasun arazoak bideratzeko 20.000 euro. Kirolen Departamentuak milioi bat pasa euroko aurrekontua izango du.

Ugarkaldeko jolas parkea estaltzeko 118.000 euro. Partaidetza prozesuko iazko proiektuak bukatu eta aurtengoak egingo dituzte.

Helduendako esperientzia gelak martxan jartzeko 20.000 euro. Hezkuntzan, elkarlaneko proiektu berriendako 8.000 euro gehiago egongo dira.

Lehen sektorerako laguntzen barruan, landa sektorearen diagnostikoa egiteko gorde dira 6.000 euro. Auzoetako inbertsioa mantendu egingo da.

San Lorentzo eta Olakua auzoetako irisgarritasun lanekin jarraituko dute; 150.000 euro gorde dira aurrekontuetan horretarako.

Departamentu bakoitzaren aurrekontua

Sailaren izena	2019	%	2020	%
Komunikazioa eta Parte Hartzea	787.492,60	%3,51	544.899,20	%3,17
Gizarte Zerbitzuak	1.694.252,03	%7,54	1.721.648,98	%10
Kirola	3.728.377,00	%16,6	1.080.618,55	%6,28
Kultura	1.210.076,11	%5,39	1.216.113,18	%7,07
Barne Antolaketa	7.123.120,63	%31,72	6.909.022,76	%40,14
Sozioekonomia	534.389,80	%2,38	549.966,08	%3,2
Lurralde Antolaketa	6.116.596,82	%27,24	4.044.463,70	%23,5
Aisialdi Hezitzailea	1.263.139,82	%5,62	1.143.616,66	%6,64
Guztira	**22.457.444,81**	**%100**	**17.210.349,11**	**%100**

ITURRIA: OÑATIKO UDALA

Bost hitzaldi Euskal Herriko historia gogora ekartzeko

Urtarrila eta martxoa bitartean izango dira hitzaldiak, guztiak zine aretoan eta 19:00etan hasita

M.R. OÑATI

Gutaz; izaera gogoa, ekina lelopean antolatu dute Nabarralde fundazioak eta Oñatiko Udalak hitzaldi sorta. Guztira, bost solasaldi izango dira eta bakoitzean gidari bat izango da. Helburua Euskal Herriko historia gogora ekartzea da eta guztiak zine aretoan izango dira, 19:00etan hasita.

Hitzaldi sortari Iñigo Larramendik emango dio hasiera, urtarrilaren 14an, zeinek *Gasteiz 1200: Martin Ttipia* auzolantzerkia izango duen hizpide. Beñi Agirre izango da bigarren hizlaria, urtarrilaren 21ean, eta *Gipuzkoako historia nafarra* liburuan oinarrituko da bere solasaldia. Joseba Asironen txanda otsailaren 4an izango da, zeinek *1512ko konkista* izango duen hizpide. Asisko Urmenetak *1620 Nafarroa beheregaina* komikian oinarritutako hitzaldia eskainiko du, otsailaren 11n. Azkenik, martxoaren 10ean, eta hitzaldi sortari amaiera emateko, Ekain Martinez de Lizarduyk *Erraiak* dokumentala izango du mintzagai.

TXALOKA UDAL LUDOTEKA

Txaloka ludotekaren irudi berria

Txaloka ludoteka egungo beharretara egokitu berri dute azken hilabeteetan, eta gaur, egubakoitza, 17:30etik 20:00etara bitartean, irekiera ekitaldia egingo dute.

Ludoteka zerbitzua 3 eta 8 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago eta astelehenetik ostiralera egongo da erabilgarri, arratsaldez.

Emakumeentzako jabetze eskola abian, udaberrirako

Zortzi ikastaro eta bi hitzaldi dira, besteak beste, udaberrirako emakumeentzako jabetze eskolarako antolatutako ekintzak. Horien asmoa da emakumeen jabetze edota ahalduntze prozesuan eragitea.

Sexualitatea eta psikoerotismo femeninoa, brikolajea eta autodefentsa feminista dira, esate baterako, urtarriletik maiatzera bitarteko ikastaroetan landuko diren gaiak. Horietan parte hartzeko, aurrez izena eman behar da –ikastaroa hasi aurreko 8 lanegunetan–, eta horretarako bi modu daude: Udalaren herritarren arretarako bulegoan izenemate orria edota *www.oñati.eus* atarian dagoen formularioa betetzea. Oñatin erroldatutakoek edota aurrez parte hartu dutenek lehentasuna izango dute eta taldea osatzeko ezinbestekoa izango da gutxienez zortzi pertsonak izena ematea.



Eltzian egokitu berri duten gimnasioa, erabiltzeko gertu. ROSA LASAGABASTER

Astelehenean zabalduko dute Eltziako gimnasioa

Zubikoa kiroldegiko berritze lanak direla eta, Eltziara lekualdatu dute gimnasioa. Astelehenetik aurrera erabili ahal izango dira muskulazio gela eta baita fitness ekintzetarako beste bat ere. Bina aldagela ere egokitu dituzte; dutxarik ez dute jarriko

Maialen Santos OÑATI

Abenduaren 31 izan zen Zubikoako gimnasioa eta igerilekua erabiltzeko azken eguna, aurrerantzean kiroldegian berritze lanak egingo dituzte eta. Ordutik, kiroldegiko gimnasioa Eltziara lekualdatu eta egokitze lanetan aritu dira. Astelehenean irekiko ditu ateak Eltziako gune egokituak eta aste betez –urtarrilaren 13tik 20ra– herritar orok erabili eta probatu ahal izango ditu Eltziako gune horiek. Hortik aurrera, Zubikoako lanek iraun bitartean egin ahal izango da kirola bertan.

Muskulazio eta fitness gelak

Guztira kirola egin ahal izateko bi gela egokitu dituzte Eltzian. Alde batetik, gimnasioa jarri dute bertan, Zubikoako makineria bertara eramanda. Bestetik, fitness ekintzak aurrera eramateko gela ere jarri dute. Hain zuzen, *body tono, body balance, zumba, zumba step, zumba strong* eta gimnasia terapeutikoa egiteko baliatuko dute espazio hori –gainontzeko ekintzak Zubikoan egingo dira–. Maite Anton Udaleko Kirol zinegotziak azaldu moduan, bertako erabiltzaileendako bi aldagela ere prestatu dituzte; dutxarik, ordea, ez dute egokitu.

Sartzeko, txartelaren beharra

Oñatiko kirol zerbitzuetako abonatuak sartu ahal izango dira aurrerantzean Eltziara, baina horretarako txartel baten beharra dagoela azaldu du Antonek: "Zubikoako harreran bertan eskatu daiteke txartela, horrekin Eltziara sartu ahal izateko".

Ordaindu beharreko kuotari dagokionez, iazkoarekin alderatuta %38 jaitsi dute urteko abonamendua. Dutxatzeko aukerarik eta igerilekurik aurten ez dela izango kontuan hartuta, "proportzionalki" egindako kalkulua da. Antonek azaldu duenez, abonatuei kuota beranduago kobratuko zaie aurten: "Normalean, urtarril hasieran ordaindu behar izaten da; aurten, ordea, ate irekiak egingo ditugunez, gutxienez urtarril amaiera arte ez da ordaindu beharko", dio.

BI GUNE EGOKITU DITUZTE: GIMNASIOA ETA FITNESS GELA. BI ALDAGELA ERE JARRI DITUZTE; DUTXARIK EZ

'Mugiment' txartela, erabilgarri

Dagoeneko erabilgarri dago Debagoienean *Mugiment* kirol txartela –inguruko herrietako kirol zerbitzuak erabiltzea ahalbidetzen duena–, eta jendea hasia da, esaterako, beste herrietako igerilekuetara joaten: "Bergara eta Arrasaterekin egindako hitzarmenari esker, oñatiarrak nahi dutenean joan ahalko dira bertako igerilekuetara". Eta dio "positiboa" dela jendea beste herrietara "mugitzen" hasi izana, Oñatiko igerilekuan hasiak dira-eta berritze lanak egiten.

Nazioarteko lankidetza ereduak aztergai, solasaldia egingo dute

Eguaztenean izango da, eta Pakistango Hushe ibarreko emakumeei buruzko dokumentala ere eskainiko dute

M.S. OÑATI

Baltistan Fundazioak antolatuta, ekitaldia egingo dute datorren hilaren 15ean, eguaztena, kultura etxean. Baltistan Fundazioa nazioarteko lankidetza eredu berrien bila dabil egun, eta, horiek bilatzea helburu, orain arte egindako bideari buruz jardungo dute hizketan. Hain justu, orain arteko esperientzia oinarri hartuta gaur arte indarrean egon diren ereduen inguruan gogoeta egin gura dute. Horretaz gain, Baltistan Fundazioak Karakorumgo –Pakistan, India eta Txina arteko– ibar baztertuan egiten dituen lanen azalpen labur bat emateko ere baliatuko dute eguazteneko hitzordua.

Hasteko, film laburra

Ekitaldiari hasiera emateko, *I forgot myself somewhere* izenburua duen film laburra eskainiko dute, zeinak Hushe ibarreko emakumeen "bizitza gogorraren" ideia xume bat eskaintzen duen, Baltistan Fundaziotik adierazi moduan. Baltieraz eta ingelesez emango dute, baina gaztelerazko azpituluez lagunduta.

Film laburraren ostean solasaldiari ekingo diote, hiru parte-hartzaile izanik protagonista. Shazia Maryam Oñatiko Mondragon Unibertsitatean ikasten jardun den neska baltiar gaztea da, herrian ikasitako metodologiak Baltistanen eta Hushe ibarrean praktikan jartzeko konpromisoa agertu duena. Maryam ez ezik, giza-eskubideen eta demokraziaren aldeko borrokan "erreferentea" den Pedro Ibarra ere bertan izango da, baita Fundazioko partaide Alberto Iñurrategi mendizalea ere.

Sarrera doakoa eta interesa duen edonorentzat izango da.

Inauterietako dantzak ikasteko entseguak, dagoeneko martxan

Aratusteetan, otsailaren 22an, Oñatiko kaleetan zehar dantzan arituko dira zenbait herritar. Oñatz Dantza taldearen gidaritzapean, dagoeneko hasiak dira dantza horiek prestatzen. Astean birritan egingo dituzte entseguak, Eltzian: martitzenetan 20:00etan, eta zapatuetan 12:00etan. 16 urtetik gorako herritar guztiak daude deituta parte hartzera.

Ekain Txou pailazoak domekan eskainiko du saioa, gaztetxean

Gure Zirkuko pailazo eta malabaristak haurrei zuzendutako emanaldia eskainiko du domeka arratsaldean, 18:00etan, gaztetxean. Sarrerak aurretik eros daitezke Mizke eta Kiku goxokidendetan –3 euroren truke–, edota egunean bertan gaztetxean ere salduko dituzte. 2 urtetik beherako haurrek ez dute sarrerarik ordaindu beharko.

Dientes de Luna taldearen 'matinee' kontzertua, domekan

Dientes de Luna taldeak *matinee* kontzertua eskainiko du domekan, gaztelekuan. 12:30ean izango da hitzordua, eta sarrerak 5 eurotan eros daitezke aurrez *www.onati.eus* webgunean, edo egunean bertan –gaztelekuan–. Talde gernikarrak pop-rocka, indiea, rock alternatiboa... lantzen ditu; euskarazko zein gaztelerazko letrekin.

OHARRAK

Mendi irteera

Aloñako mendi sailak Adarra mendira egingo du irteera, urtarrilaren 19an. Hilaren 16a baino lehen eman behar da izena ohiko tokietan.

Loteria kobratzeko

Oñatiko Zurigorri taldeko loterian jokatutakoa egokitu zaie. Urtarrilaren 10ean eta 24an 19:30ean elkartuko dira Otamendin, hori kobratzeko.

Goiena Klubeko bazkidetza

%30 merkeago

Goiena Komunikazio Taldeko hedabideek lehentasunezko mezenasgo jarduera izendapena jaso zuten 2018an Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik.

Ondorioz, besteak beste, Goiena Klubeko bazkide baldin bazara edo egiten baldin bazara, **zerga onurak** ezarriko zaizkizu Goienari egin diozun ekarpenarengatik. Goiena Klubeko bazkidetza kuota **%30 merkatuko zaizu errenta aitorpena** egiterakoan.

BAZKIDE EGITEKO, DEI EGIGUZU: 943 25 05 05
EPE-MUGA: 2020KO URTARRILAREN 31.



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!


JULEN IRIONDO

JOKIN BEREZIARTUA

IMANOL SORIANO

XABIER URZELAI

FELIX SANCHEZ

GOIENA

'DESNIVEL.COM'

GOIENA

MIRARI ALTUBE

IMANOL SORIANO

Hamar hautagaiak gertu daude DKSetan herritarren botoa jasotzen hasteko

DKS'19 Urtarrilaren 28an egingo dute Bergarako Serminarixoan Debagoieneko Kirol Sarien ekitaldia. 2019an nabarmendutako ibarreko kirolariak sarituko dituzte bertan, baina egunero, isilean, kirolaren alde lanean dabiltzanen lana ere aitortuko dute

Imanol Beloki BERGARA

Hainbat urtetako hutsunearen ondoren, iaz bueltatu ziren DKS sariak, eta edizio arrakastatsua izan zen. Esaterako, nabarmentzeko datua izan zen Herritarren Sarirako 1.886 lagunek eman zutela botoa *Goiena.eus* atarian, eta aurtengo ediziorako antolatzaileek ez dituzte boto gutxiago espero. Hala, aurtengo edizioa Bergarako Seminarixoan izango da, hilaren 28an (19:00), eta martitzenean agertoki berean egindako aurkezpen ekitaldian Herritarren Sarirako hamar hautagaiak aurkeztu zituzten: "Zerrenda polita da, kirolariek ibarreko herri asko ordezkatzen dituztelako, gizonezkoen eta emakumezkoen kopurua berbera delako eta kirol jarduerei dagokienez ere denetarik dagoelako", adierazi zuen aurkezpenean hilaren 28ko ekitaldia aurkeztuko duen Xabier Urzelai kazetariak.

Boluntarioen lana eskertu

Bergarako aurkezpenean hartu zuten esku Gorka Artola alkateak, Mankomunitateko ordezkari Garazi Larreak eta Arrasateko Udaleko Kirol teknikari Aitziber Muñozek. Muñozek Herritarren Sarirako hamar hautagaiak aurkeztu zituen –ikus ondoko taula–. Artolak, berriz, anfitrioi lanak egin zituen: "Iaz Arrasaten antolatu zituzten DKSak, eta aurten beso zabalik hartuko dugu ekitaldia Bergaran. Gainera, hamar finalista horien artean hainbat bergarar daude, eta horrek ere poztu egin gaitu. Hala, Bergarako Udaletik bat egin dugu DKSek duten filosofiarekin. Bistan dago kirolariek 2019an sekulako maila dutela erakutsi dutela, baina eurak nabarmentzearekin batera horren beharrezkoak diren boluntarioen lana ekarri gurako nuke gogora", adierazi zuen.

Larreak, berriz, sariek duten bailara ikuspuntua ekarri zuen gogora: "Hastapenetatik bailara ikuspuntua izan dute Debagoieneko Kirol Sariek, eta kirol arloan bailarako jendea nabarmentzea positiboa dela ikusita hasi ziren iaz Mankomunitateko ordezkariak berriro ere honekin lanean. Iazko edizioan nabarmendu zen helburua ez zela DKS beste urtebetez bakarrik antolatzea, jarraipena eman gura zaio ekimen honi, eta aurtengoa antolatu izanak berresten du ideia hori. Mankomunitateak Debagoieneko herriak batzen ditu, eta kirolaz harago hainbat proiektu ditugu elkarrekin. Bada, positiboa da ikustea kirol arloan ere zelan hasi diren inguruko klubak sinergiak batzen, indarra pilatzen".

Gainontzeko sariak, aurrerago

Oraingoz, DKSetako epaimahaiak –medio ezberdinetako kazetariz eta kirol teknikariz osatutako lantaldea– Herritarren Sarirako hamar hautagaiak aurkeztu ditu, eta datozen asteotan joango dira gainontzeko sariak aurreratzen: "Helburua garbia da, sari bakoitzari dagokion protagonismoa eman gura zaio, guztira hamalau direlako. Hala, datorren astean Debagoieneko bederatzi udalek aukeratutako sarituen berri emango dugu, eta hamabost egun barru jakingo dugu zeintzuk diren 2019ko kirolari onenaren sarirako hiru finalistak, zein den talde onena, norendako den sari berezia eta zeinen kirol ibilbidea nabarmenduko duten DKSek", gaineratu zuen Urzelaik.

Amaitzeko, gaineratu zuten hilaren 28ko Seminarixoko ekitaldia *Goiena.eus* atariak eta Goiena telebistak zuzenean eskainiko dutela, eta Seminarixoko sarrerak gonbidapen moduan banatuko dituzte.

DKSen sari nagusiak

Guztira, hamalau sari egongo dira urtarrilaren 28ko ekitaldian. Debagoieneko herri bakoitzak bere herriko kirolari, kirol talde edo eragile bana aukeratuko du, eta, horrekin batera, beste bost sari nagusi egongo dira. Horietako bat, Herritarren Saria, boto bidez erabakiko dute kirol-zaleek.

- **Herritarren Saria.** Laboral Kutxak babestuta.
- **2019ko kirolaririk onena:** Ekide Group-ek babestuta.
- **2019ko kirol talderik onena:** Goiena Komunikazio Taldeak babestuta.
- **Sari berezia:** Erreka kooperatibak babestuta.
- **Kirol ibilbidearen saria:** Soraluce kooperatibak babestuta.

Nola eman daiteke botoa?

Herritarren Sarirako hamar hautagai aukeratu ditu epaimahaiak. Botoa *Goiena.eus* atarian eman daiteke. Botoa ematen dutenen artean, bailarako kiroldegi baterako urte osorako abonamendua zozketatuko da. Hilaren 23a da azken eguna.

Herritarren Sarirako hautagaiak:

1. AITOR UGARTE MENDI LASTERKARIA
Gazte mailako mendi lasterkari aramaioarrak sekulako emaitzak lortu ditu aurten, Espainiako kopako probak irabazita, eta baita Espainiako kilometro bertikaleko txapelketa ere. Hala, abuztuan Italian jokatutako Munduko Txapelketarako sailkatu zen, eta han ere irabazi egin zuen; horrenbestez, aramaioarra munduko txapelduna da gazte mailan.

2. AITOR ZABALETA AUTO PILOTUA
Bergarako pilotu beteranoak urteak daramatza Euskadiko Mendiko Sarian monoplazen kategorian erreferente izaten. Aurten, BMW Lola autoarekin Opakuako igoeran, Gorlako igoeran, Aiako igoeran, Gatzagako igoeran eta Urrakiko igoeran irabazi du. Albistea izan zen Udanan bigarren sailkatu izana. Lehenago ere DKS sarietan nabarmendutako kirolaria da Zabaleta.

3. BEÑAT REZUSTA PILOTARIA
Bergarakoa egun dagoen atzelari sendoenetakoa da elite mailako pilotan. 2017an Iker Irribarriarekin batera jantzi zuen Eskuz Binakako txapela, eta 2019an balentria errepikatu du, oraingoan Elezkano ondoan zuela. Hain zuzen, urtebete lehenago, 2018an, bikote hori txapeldunorde izan zen torneo berean, eta Irujorekin ere finalera iritsi zen 2016an.

5. MAIALEN AXPE ATLETA
Iazko DKSetan kirolari onenaren sariko irabazlea. Espainiako pista estaliko txapelketa irabazi eta gero –4,50eko markarekin– Europako Txapelketa absolutuan lehiatu zen, Glasgown. Han ez zen finalera sailkatu (4,25). Stockholmen, Diamond Leaguen, ezin izan zuen parte hartu, Iberiak ez zizkiolako pertikak eramatea onartu. Tokioko Olinpiar Jokoetan egotea du amets.

7. MIKEL LINAZISORO ESKALATZAILEA
20 urtez azpiko eskalatzailea bada ere, lehena izan da Espainiako Boulder txapelketa absolutuan, eta lehena Overall kategorian. Bigarren izan da Europako Boulderreko Kopan. Munduko Kopan, Chamonixen, finalerdietarako sailkatu zen (maila absolutuan) eta finalerdietarako sailkatu zen, baita ere Briançonen egindako zailtasuneko Munduko Kopan. Olinpiar Jokoetan egoteko lanean dabil.

9. OIHANA ALDAI FUTBOL ATEZAINA
Zaragozatik fitxatu zuen Realak eta apustu handia izan zen Aretxabaletako atezainarendako, bazekielako Espainiako Selekzioan erreferente den Mariasun Quiñonesekin batera borrokatu beharko zuela titular izateko. Gutxi jokatu badu ere, bere ekarpena egin du Erreginaren Kopa irabazi berri duen Realean. Denboraldi hau Eibarren hasi du, baina taldea uzteko erabakia hartu berri du.

Iaz, Martin Perezek irabazi zuen Herritarren Saria. I.S.

4. GARAZI ESTEBEZ TXIRRINDULARIA
Gazte mailakoa, pistan, Bioracer Torneoa irabazi zuen, Espainiako Kopako hainbat probatan podiumean izan zen eta Valentzian irabazi egin zuen. Europako Txapelketan, Espainiako Selekzioarekin, zortzigarren izan zen. Errepidean, berriz, Tolosan irabazi zuen, Dos Hermanasen, Ugaon, Lakuntzan eta Agurainen. Gipuzkoako Federazioak etorkizuneko Promes Saria eman dio.

6. MIKEL ARISTI TXIRRINDULARIA
Bergarako ziklistak, gainontzeko taldekideek moduan, ez du urte erraza izan, Euskadi Murias-en desagerpenaren mamuarekin egin behar izan diotelako denboraldiari aurre. Aurrerapauso bat emateko eskatu zion Jon Odriozola zuzendariak, eta bereziki abuztuan eman zuen pauso hori, Portugalgo Itzulian etapa bat eta Limousingo Tourrean beste etapa bat irabazita.

8. OIHANA KORTAZAR MENDI LASTERKARIA
Urte eta erdi min hartuta egon eta gero, elgetarra mendiko lasterketetara bueltatu da, eta maila oso onean, gainera. Euskal Herrian eta Espainia mailan hamaika lasterketa irabazi ditu, baina Zegama-Aizkorri nazioarteko proban bosgarren sailkatu izanak –euskal emakume onena izan zen– berretsi egiten du elgetarra puntako mailan dela ostera ere.

10. UXUE OSES ETA MADDALEN ETXEGARAI PILOTARIAK
Oñatiko pilotariak Emakume Master Cup txapelketaren finalera iritsi ziren promozio mailan, eta Zumarragako pilotalekuan jokatutako finalean, herritarrez betetako harmailak lagun, oñatiarrak askoz nagusiagoak ziren pilotariak menderatu zituzten, txapelak Oñatira eroanda. Infantil mailako pilotariak izanda lortu zuten txapela.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGION.
Oiartzun-Aretxabaleta
Zapatua. 15:30. Oiartzun.
Mondra-Euskalduna
Zapatua. 16:30. Mojategi
Elgoibar-Bergara
Zapatua. 16:30. Mintxeta.

ERREGIONAL PREFERE.
Antzuola-Orioko
Zapatua. 16:00. Estala.
Danena-Aloña Mendi
Zapatua. 18:00. Zizurkil.
Beasain-Mondra
Zapatua. 18:00. Loinaz.
UDA-Lagun Onak
Domeka. 16:30. Ibarra.

OHOREZKO GAZTEAK
Bergara-Anaitasuna
Zapatua. 17:45. Ipintza.
Aloña Mendi-Amaikak
Zapatua. 17:45. Azkoaga.
Aretxabaleta-Ilintxa
Domeka. 12:30. Ibarra
Mondra-Eibar
Domeka. 16:30. Mojategi.

EMAKU. OHOREZKO E.
Urnieta-Leintz Arizm.
Zapatua. 16:00. Urnieta.
Bergara-Urola
Domeka. 16:30. Ipintza.

EMAKU. GORENGO MAI.
Mutriku-Leintz Aloña
Zapatua. 16:00. Mutriku.

ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA
Scorpio-Eskoriatza
Zapatua. 16:30. Ermua.

EUSKAL LIGA
Aretxabaleta-Zirauntza
Zapatua. 17:00. ibarra.
Mondrate-Soloarte
Zapatua. 17:30. Musakol.

GIP. SENIOR EMAKUME.
Idiazabal-Eskoriatza
Zapatua. 18:15. Idiazabal.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELK.
Basauri-Fagor Indust.
Zapatua. 18:15. Basauri.
Hondar.-Ford Mugarri
Domeka. 12:00. Hondar.

EMAKUMEZ. EUSKADI.
Cons Aloña M.-Aiala
Zapatua. 17:45. Zubikoa.

GIPUZKOAKO TXAPELK.
Soraluce Ber.-Aritzbat.
Zapatua. 16:00. Labegar.

SASKIBALOIA

SANTURTZI-MU
Basauri-Fagor Indust.
Zapatua. 18:45. Santurt.

EUS. BIGARREN MAILA
Alk. Ointxe-La Salle
Domeka. 18:00. Iturripe.
Ibaizabal-Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Galdakao.

GIPUZKOAKO TXAPELK.
B. Soraluce-Bosteko
Zapatua. 18:00. Labega.

SENIOR HIRUG. MAILA
MU-Zarautz
Zapatua. 18:30. Musakol.

GIP. SENIOR EMAKUME.
Internaci.-Eskoriatza
Zapatua. 18:00. Donosti.

ERRUGBIA

EUSKADIKO TXAPELK.
Gazted-Kanpanzar ART
Domeka. 11:30. Gasteiz.

PILOTA

OÑATI
Egubakoitza. 18:45ean hasita, bost partidu.

ARETXABALETA
Egubakoitza. 19:00etan hasita, hiru partidu.

ANTZUOLA
Egubakoitza. 19:30ean hasita partidu bat

BERGARA
Zapatua. 16:00etan hasita, lau partidu.

FUTBOLA Mondrak Euskalduna azken sailkatua hartuko du

Ohorezko erregionalean, Mondrak jokatuko du asteburuan etxean, eta ligan hiru partidu baino irabazi ez dituen Euskalduna izango dute aurrean. Bergarak sailkapenaren erdialdean dagoen Elgoibarren zelaian jokatuko du eta Aretxabaletak atzealdean dagoen Oiartzunen kontra jokatuko du, Karla Lekuonan.

SASKIBALOIA MUk Santurtziren kantxan hasiko du urtea

Urtea ondo amaitu zuen Mondragon Unibertsitateak joera positibo horrekin hasi gura du 2020a, eta etxetik kanpora hasiko du urtea, atzealdeko postuetan dagoen Santurtziren kantxan. Bizkaitarrek negargarri hasi zuten liga, baina azken bi jardunaldietan horiek ere irabazi egin dute.

ZIKLO-KROSA Aimar Erostarbe Gipuzkoako txapeldun izan da

Joan den astean egin zuten Ormaiztegiko ziklo-krosarekin amaitu da Euskadiko zirkuituko denboraldia, eta Aimar Erostarbe gazte mailako ziklista oñatiarra Gipuzkoako txapeldun izan da, eta Unai Cueva txapeldunordea. Kadete mailan, berriz, Aimar Madina izan da txapeldunordea.

PILOTA Kategoria txikietako eskuz binakakoa abian da

Eskuz banakako lehia bukatuta, eskuz binakakoak hartuko dio lekukoa Errendimenduko Gipuzkoako Txapelketan. Bigarren urteko alebinak eta infantilak lehiatuko dira. Alebinetan 50 bikotek eman dute izena, eta 9 multzo osatu dituzte. Eta infantiletan 34 bikotek eman dute izena. Finalak, martxoaren 29an.

Mr. Sipp musika taldearen emanaldia Oñatiko gaztelekuko *matinee* saioan. AITZIBER ARANBURUZABALA

Kultura, aukeran, etxetik gertu

Su Ta Gar, Izaki Gardenak, Nogen, Izaskun Murgia Elkarte Lirikoaren 'El dúo de la Africana' zarzuela, 'Madama Butterfly' opera... ekitaldi horiek eta gehiago ikusteko aukera izan da 2019an Debagoieneko udalen kultura aretoetan eta gaztetxeetan

Aitziber Aranburuzabala/ Naroa Urien ARRASATE

Kultura gosea duenak Debagoienean badu non elikatu, herrian bertan edo aldamenekoan, aukera asko izan dira 2019an ere, kanpoko izen handiko askotariko artistekin eta bertako sortzaile askorekin gozatzeko.

Antolatutako guztien artean, ikusleen artean harrera handiena edo onena izan dutenen zerrenda osatu nahian jo du GOIENAk hainbat antolatzaileren atea –udalak zein gaztetxeak–; baina nola neurtu arrakasta, zenbakiei ala bestelako sentsazioei begiratuta? Hala, zenbakiez harago, "barruan gordeta" geratu zaizkien emanaldi edo artisten zerrenda osatu dute.

Seminarixoan eta kartzelan

San Martin plazan dagoen aretoa zabaldu zutenetik eskaintza handiagoa eta zabalagoa da Bergaran –Zabalotegi ere erabilgarri dago, baina motz geratzen da hainbat emanaldi edo diziplinatarako–. Antzerki arloan, konpainia ezagunak izan dira 2019an Seminarixoan; honako hauek azpimarratu ditu Maider Osa Kultura teknikariak: "Yllanaren *Lo mejor de Yllana* lanak oso harrera ona izan zuen, eta baita Vaiven taldearen *Erlauntza* eta Txalo konpainiaren *Zoaz bake santuan* lanek ere. Haurrendako ikuskizunetan Oihan Vega bergararrak eta Xabier Zabala eskarmentu handiko musikariak sortutako *Musikarium* ikuskizuna eta Glu Glu taldearen *Pinotxo* aipatuko nituzke, bereziki".

Musika arloan, uztailean Espoloian egiten duten Berumuga musika jaialdiak ere puntako musikariak eta musika beltzaren zale asko batu zituen; horrez gainera, maiatzean Seminarixoan izan zen Nogen eta eMe taldeen kontzertua, batetik, eta Bergarako Musika Bandak eta Bergarako Orkestra Sinfonikoak frontoian elkarrekin eskaini zuten Aratuste-kontzertua nabarmendu ditu Osak, eta dantza arloan, berriz, azaroan Uniquart Dance Company-k eskaini zuen *Le Spectre de la Rose* izeneko ballet dantza emanaldia.

Kartzela zaharrak ere eskarmentua du gauzak antolatzen, eta denetarikoak proposatu zituzten iaz; besteak beste, Txapa Irratiaren eta gaztetxeko liburutegiaren urteurrenek ekitaldi asko antolatzeko aitzakia eman dietela diote kartzela zaharreko asanbladako kideek: "Irratiaren 25 urteak ospatzeko, besteak beste, kontzertuak antolatu genituen eta oso jendetsuak izan ziren". Liburutegiaren hamargarren urtea ospatzeko ere jende asko batu zen. *Egubakoitzak berreskuratzen* musika egitasmo berriak ere harrera du; eta Kopla Barik Bertso Eskolak antolatzen duen Bertso Txapelketaren finala kartzela zaharrean izaten da urte amaieran, eta hori ere herrian ondo errotu den ekitaldi bihurtu da".

Oñatin jendetsuena, Su Ta Gar

Kultura Sailaz gainera, Gazteria sailak ere askotariko ekitaldiak antolatzen ditu, Santa Ana aretoan eta kultura etxean lehenengoak eta gaztelekuan, bereziki, beste sailak. Musika arloagatik galdetuta, Iñigo Ugarte gaztelekuko kideak eskaintza zabaleko urtea izan dela dio: "Eskualdekoak, herrikoak eta kanpoko taldeak izan dira; estilo askotarikoak. 2018ko urrian abiarazi genituen domeka eguerdietako *matinee* kontzertuek oso harrera ona dute; askok hilero etortzeko ohitura dute, eta zale berri asko ari dira hurbiltzen. Mr. Sipp Mississipiko abeslariaren kontzertua oso berezia izan zen, Indianakoak kuriositate handia sortu zuen eta sekulako maila erakutsi zuen. Beratu jaialdiaren barruan Athom Rumbak, Elena Setienek eta Vulk taldeak eskainitakoa ere aipatzekoa da; bereziki, azken horiena, jendea txundituta geratu zen". Parabellum taldeak ere zale asko batu zituela gogora ekarri du Ugartek, eta oi! estiloko musika jarraitzaileak ere gaztelekuan egiten duten TxantxOI! eta kontzertuetako fidelak direla gaineratu du.

MUSIKA JAIALDIAK, KONTZERTUAK ETA PUNTAKO ANTZERKI ETA ZINEMA ESTREINALDI ASKO

San Migel jaietan Foruen plazan Eibarko Su Ta Gar taldeak eskaini zuena izan zen German Meabebasterretxea Kultura teknikariaren esanetan kalean egindako urteko ekitaldirik jendetsuena, *Musikaegunak* musika zikloa ere goraipatuz, aldi berean: "Suhar abesbatzak erakutsitako maila eta batu zuen jendetza oso aipagarriak izan dira". Antzerki ikusienagatik galdetuta, ez du zalantzarik egin: "*Zaldi Urdina*, duda barik. Aretoa bete egin zen, aurrez saldu ziren sarrera guztiak. Ezin da beti aurreikusi zenbat ikusle izango diren, eta, alde horretatik, pena dut *Ele! Lorca-Lauaxeta* ikustera bakarrik 120 lagun hurbildu zirelako. Izugarria izan zen, han izan zirenentzat oso hunkigarria. Haurrentzako ikuskizunei dagokienez, herriko Ganbara faktoriaren *Koloretako munstroa* eta Potx eta Lotx pailazoen emanaldiak izan dira jendetsuenak, eta, kanpotik ekarritakoetan, Glu Glu-ren *Pinotxo* eta Sun magoarena.

Herri erdian dagoen Antixena gaztetxean ere askotarikoak izan dira; antzerki arloan, Korrikaren bueltan egin zuten antzerki laburren bira azpimarratu du Xabi Etxebarria gaztetxe-kideak: "Kultura etxearekin eta Elkar Hezi ikastetxearekin elkarlanean, 30-40 minutuko hiru antzerki egin genituen, eta jende asko bildu zen. Zineari helduz, *Napardeath* filmen emanaldiak ere politak izan zire; lau egin genituen uztailean, aire librean. Musikari dagokionez, Amoranteren emanaldia eta beste hainbat azpimarratu ditu Antixenekoak. "Amoranterena oso berezia izan zen; modu inprobisatuan Gaztetxe kanpoan egin genuen. Abenduan herriko Sharon Stoner eta Broken Legacy taldeek eskaini zutena ere aipatzekoa da, eta Beratu jaialdiaren barruan Ainara Legardonena ere bai; Gorka Suaia rap kantariarekin ederto pasa genuen beste baten...".

Arrasate

Amaia antzokian gogor hasi dute 2020a *Goazen!* ikuskizunarekin lepo betez aretoa, eta bide onean ari dira domekan eskainiko duten helduentzako *Zaldi urdinak* antzerkia ere. Iazkoa ondo bukatu zutela dio Karmelo Alberdi Kultura teknikariak: "*Utzi zure mezua seinalearen ondoren* (Ttanttaka) antzezlanak 300 ikusletik gora batu zituen; batez beste 200 lagunetik gora izaten dira gehienetan helduen antzerki saioetan".

Musika emanaldietan herrian klasikoa den Izaskun Murgia Elkarte Lirikoaren zarzuela eta azkeneko urteetan Ozenki elkartearekin antolatzen dituzten opera emanaldiak azpimarratu ditu Alberdik: "Ekitaldi horietan aretoa bete egin da. Aurten berezia izan da *Humanity at music* ikuskizuna ere bai, 600 lagune-

tik gora izan ziren, eta beste horrenbeste Mundukide Fundazioak antolatu zuen ekitaldian ere. Ikusle gutxiago –280 lagun– izan baziren ere, Izaki Gardenaken kontzertua aipatuko nuke, antzokian egin nahi genuen eta emaitza oso ona izan zen, eta baita abenduan AMAK taldeak eskainitakoa ere, 350 lagun izan ziren horretan".

Dantzaren aldeko apustua egiten dute Arrasatekoek sarritan, eta euskal zein nazioarteko puntako artista asko gonbidatzen dituzte. Iaz askotariko diziplina eta estilo batzen dituzten *Martin Zalakain* eta *Adrenaline* lanek, adibidez, 300 lagunetik gora batu zituen bakoitzak; baina pena dut, Argentinako *Poyo Rojo*-k 200 lagun inguru bakarrik bildu zituelako."

Amaia antzokitik kanpo ere askotarikoak antolatzen ditu Udalak: udazkenean, Kulturate Akustikoa; udaberrian, musika klasikoari eta abesbatzei tokia egiten dien Musikaldia, eta uztailean, Udazabal. "Azken jaialdiek ere harrera ona izan dute, publiko fidela dute".

Gaztetxean ere urte emankorra izan dutela diote AGAKO asanbladako kideek: "Elkartasun jaialdi asko eta kontzertu asko egin ditugu, eta, horien artean, polita izan da Never Surrender herriko taldeak aspaldiko partez eskaini zuena, eta baita santamas egunean izan zen jaialdia, ahaztu barik eguenero izaten diren Kooltur Ostegunak kontzertuen ibilbide oparo eta osasuntsua".

Goazen! ikuskizunean Amaia antzokia lepo bete zen. IMANOL SORIANO

Zinean, "etxekoenak" garaile

Debagoieneko zine areto guztietan, duda barik, *La trinchera infinita* eta *Agur, Etxebeste!* izan dira sarrera gehien saldu dituztenak. Bergarako eta Oñatiko udalek, bereziki, ahalegin berezia egin zuten filma herrian estreinatzeko eta emanaldi kopuru handiagoa eskaintzeko.

'LA TRINCHERA INFINITA' ETA 'AGUR, ETXEBESTE!' FILMAK IZAN DIRA IKUSIENAK DEBAGOIENEAN

Txikietan, eskaintza xumeagoa

Ezin eskaintza bera egin, baina guztiak saiatzen dira "onena" ematen. Aretxabaletan Fund Dantz!-en "arrakasta" aipatu dute, eta Antzuolako ordezkariek, Torresoroa aretoa itxita egotearen eraginez izan dituzten mugak, 2019a hausnarketa urtea izan dela gaineratuta".

2020an Debagoienean izango direnak

Adin eta zaletasun ezberdineko publikoa asetzeko askotarikoak izango dira aurten eskualdean.

Musika

- **Dientes de Luna** gernikarrak Oñatiko gaztelekuan, etzi, domeka, 12:30ean.
- **Strad** Jorge Guillen biolinjolearen taldea Amaia antzokian, urtarrilaren 31n.
- **Ruper Ordorika** Oñatiko gaztelekuan, otsailaren 16an.
- **Numen** Arrasateko gaztetxean izango dira otsailean.
- **AMAK eta Ain_1** taldeak Seminarixoan, martxoaren 7an.
- **'Caballeria Rusticana'** izeneko opera martxoaren 17an, 20:30ean, Amaia antzokian.

Antzerkia

- **'Zaldi urdina'** lana. Artedrama, Axut eta Dejabu Panpin Laborategia. Etzi, domeka, Amaia antzokian; eta otsailaren 8an, Seminarixoan.
- **'La Mudanza'** lana Compañia Perigallo teatro taldearen eskutik, Seminarixoan, hilaren 17an, 19:00etan.
- **'Simplicissimus kabaret'** Tartean Teatroren eskutik, Oñatiko Santa antzokian, otsailaren 21ean; eta Amaia antzokian, martxoaren 15ean.
- **'Ene ba!!'** Txalo konpainiaren eskutik, otsailaren 23an, 19:30ean, Amaia antzokian.
- **'Yo, Mussolini'** Leo Bassiren lana, martxoaren 22an, 19:30ean, Amaia antzokian.

Dantza

- **Kukai** *Gauekoak* lana egingo dute Amaia antzokian, hilaren 25ean, 19:30ean.
- **Fun Dantz!** kaleko dantzen jaialdia, otsailaren 29an, Aretxabaletako kiroldegian.

Haurrentzako ikuskizunak

- **'Hansel eta Gretel'** Amaia antzokian, otsailaren 8an.
- **'Kaskarot'** ATX taldearen eskutik, urtarrilaren 18an, Seminarixoan, 18:00etan; eta otsailaren 29an, Amaia antzokian, 17:00etan.

Bertsoak

- **Bertso Eguna** Aramaion, Bertsozale Elkarteak antolatuta, urtarrilaren 18an.

"Zabalik dagoen zauria sendatu nahi du lanak"

ANDER LIPUS AKTOREA

Artedrama, Axut eta Dejabu Panpin Laborategia konpainien *Zaldi urdinak* lanak harrera ezin hobea izan du, urriaren 11n estreinatu zutenetik sarrera guztiak agortu dituzte areto guztietan. Azaroan Oñatin egin zuten, domekan Arrasateko Amaia antzokian izango dira eta otsailean Bergarako Seminarixoan.

Zein da, zure ustez, arrakastaren sekretua?

Gauza asko elkartzen dira: batetik, aurrez elkarrekin egindako lanekin publiko bat egin dugula, eta bestetik, hiru taldeak bilduta indar handia dugula; hau da, hiru probintzietako taldeak, taularen gainean zazpi aktore... eta hedabideen laguntza ere badugu.

Igor Elortzak eta Unai Iturriagak asmatu dute gidoiarekin.

Lantalde ikaragarria dugu, 21 lagunek osatutakoa: antzezlana Ximun Fuchsek zuzendu du, Iturriagak eta Elortzak idatzitako eta ondoren Ainara Gurrutxagak moldatutako gidoia, eta ezinbesteko lankide gehiago atzean: jantziak, dekoratuak, argiak... Talde bat gara eta funtzionatzen duen formula batekin gabiltza.

MAIDER ARREGI

Taularen gainean zazpi lagun, jatorri eta ibilbide ezberdinekoak, gainera.

Hala da; eskarmentu handia duen Olatz Beobide aktorea eta zuzendaria, esaterako, batetik, eta *millenial*-ak diren beste hainbat ere bai. Bakoitza Euskal Herriko txoko batekoa da.

80ko hamarkadan Euskal Herria astindu zuen droga kontuak dituzue oinarri. Zer eta nola kontatzen duzue?

Diskoteka baten hasten da; gazte batek *zaldi urdina* droga hartu du eta bat-batean erori eta koman sartu da. Istorioa hortik abiatuta, polizia 18 urte dituen Aingeruren bila hasiko da, hark droga zabaldu duen susmoa duelako, eta gertaera horrek 80ko hamarkadan Euskal Herrian heroinagatik hil ziren gazte askoren istorioak kontatzeko bidea ematen du antzezlanak. Galdera asko planteatzen dira obran zehar; besteak beste, zein erraza den droga lortzea eta zergatik den hori. Iturri askotatik atera dugu informazioa gaurko istorioa kontatzeko asmoz, baina gure herriaren iragana ahaztu gabe. Esaten da 5.000 bat gazte hil zirela Euskal Herrian drogaren ondorioz, eta ez dago errudunik. Zauria zabalik dago, eta antzezlanarekin sendatu nahi dugu.

Euskal *thriller* moduan definitu dute adituek; bat zatoz?

Badauka puntu hori, eta zine kontzeptuekin jarraituz, *road-movie* ezaugarriak ere bai, Aingeruren bilaketan herri askotatik pasatzen delako. Simon Fussen begirada nabari da, ekintza asko, erritmo bizkorra… jendea txundituta geratzen da eta ahoz ahokoak ondo funtzionatzen du.

Barre gutxi egingo dute ikusleek, ezta?

Komediak ez du toki handirik *thiller*-etan; hala ere, badaude atal ez horren serioak ere. Antzerkiak gauzak sentitzeko eta hausnartzeko balio du eta hor jolastu nahi dugu.

Arrakastaren aparretan zaudete lan horrekin, baina nola ikusten duzu, orokorrean, euskal antzerkigintza?

Antzerkigintzan, batzuetan, arrakastatik gertu egotearen edo arrastaka ibiltzearen arteko aldea txikia da; beraz, pozik gaude, dena oso ondo doalako. Orokorrean, sortzeko denborarik gabe geratzen gara batzuetan; izan ere, euskal teatroan jarduten dugunok egoera prekarioan gaude eta lan asko aldi berean abiatzera behartuta gaude. Prekarietate horretatik indarrak ateratzen ditugu, eta une honetan, zorionez gu ondo ari gara, antzokiak betetzen, baina horrela izan beharko litzateke beti eta guztiok.

Lur –gitarrarekin–, amona Andere eta Amets –hondartzarako gauzekin–, amonaren etxean. 'LUR ETA AMETSEN HISTORIAN.EUS'

Lurrekin eta Ametsekin, abenturarako bidean

'Lur eta Amets' animaziozko pelikularen protagonistak Arrasaten egongo dira gaur, egubakoitza, 18:00etan. Euskal Herriko historiako pasadizo berezienetatik etorritako autobusak geldialdia egingo du, otsailean estreinatuko den pelikula aurkezteko

Mireia Bikuña Madrid ARRASATE

Durangon egin zuten lehen agerraldia Lur eta Amets anai-arrebek. Motxila bete abenturarekin izan ziren neska-mutikoen aurrean. Euskal Herriko historiaren pasadizo berezienetan bizi izandakoak partekatu zituzten orduan, eta orain, bizipen horiek autobus berezi batean sartuta, bira egingo dute Euskal Herriko hainbat txokotan. Ibilaldi horren lehen geldialdia Arrasaten egingo dute gaur, egubakoitza, hilak 10, Kulturaten, 18:00etan. Izen bereko animazioko pelikularen protagonistak ezagutzeko aukera egongo da. "Autobus ibiltari batekin ibiliko dira han-hemenka. Pelikula aurkezteko, antzerki-saio labur bat egingo dute. Durangoko Azokan egindakoaren antzekoa izango da", esan du produkzioaren ekoizpen arduradun Miren Berasategik. Ekitaldia irekia izango da, eta familia guztiak daude gonbidatuta.

Anai-arrebak

Begi berdeak eta ile gorria dituen neska da Lur. Abenturazale amorratua da. Ausarta eta jenio bizikoa. Anaia txiki bat dauka: Amets. Mutiko beltzarana. Ameslaria, irudimen handikoa, sortzailea eta sentibera. Bikote ederra osatzen du arrebarekin. "Bi haurrek abenturak bizi izateko duten grina hori da pelikularen oinarri nagusia. Euskal Herriko historiaren garai ezberdinetan bizi izango dituzten istorioekin osatu dugu pelikula", dio Berasategik.

Jorratzen duen gaiarengatik eta protagonisten adina ikusita, umeendako pelikula bat dela azpimarratu behar da. "Animaziozko pelikula bat da, baina ez historikoa. Gure historian gertatu diren hainbat gertaera ezagutarazteko balioko duen pelikula da", dio ekoizpen arduradunak.

Gainera, balio erantsia dauka *Lur eta Amets* filmak. Izaera didaktikoa izango du. "Ikastetxeetan hausnartzeko bideak zabalduko dituelakoan gaude. Pelikulan agertzen diren pasarte historikoen gaineko saioak egingo dituzte".

Katu mesfidatiaren laguntza

Pasarte horiek bizi ahal izateko amona Andere izango dute alboan. Izaki berezia da, magikoa, beste mundu batzuk ezagutu dituena. Pertsona mitologikoa. Hori horrela, dituen dohain bereziei esker, denboran bidaiatzeko aukera izango dute Lurrek eta Ametsek.

Pelikularen laugarren protagonista Baltaxar katua izango da. Hori ere, pertsonaia berezia. Berba egiten duen katua da, baina amama Anderek bakarrik ulertzen dio. Elkarri konpainia egin diote, etxe-katu bihurtu zenetik. Oso mesfidatia izan arren, oso lagun ditu Lur eta Amets.

Ezagutza-liburua oinarri

2015. urtean sortu zuten *Lur eta Amets, Euskal Herriaren historia* delako ezagutza-liburua, eta ostean etorri ziren haurrei zuzendutako bederatzi ipuinak eta galdera-erantzunen mahai-jokoa. "Ikastolen Elkarteak, Elkar argitaletxeak eta Katxiporretak sortutako proiektua izan zen. Umeen arten harrera ona eduki zuen, eta hori nabaritu genuen Durangon egindako agerraldian. Pelikula egin orduko umeek ezagutzen zituzten Lur eta Amets", azaldu du Berasategik.

2017an erabaki zuten ilustrazioan jasotako abentura haiek antzokietara eta pantaila handira eramatea. Bi urteko prozesu luzearen ostean, otsailaren 7an estreinatuko dute zinemareto nagusietan.

Bi urteko prozesua

LA Ekoizpenak enpresa hasi zen pelikula ekoizten, Joseba Ponceren eta Imanol Zinkunegiren zuzendaritzapean. Prozesu luzea izan da. "80 minutu pasa ditu pelikulak eta bi urte behar izan ditugu amaitzeko. Artisau-prozesua izan da. Hasteko, dirua topatu. Ostean gidoia idatzi, eta gero istorioa binetatan margotzen da, mugimendua eman ahal izateko. Animazioa, musika, efektuak, bikoizketa eta muntaia dira, hurrenez hurren, ostean egin ditugunak", esan du Berasategik. Eneko Olasagastik eta Karlos Zabalak idatzi dute gidoia.

BI ANAI-ARREBARI BURUZKO PELIKULA OTSAILAREN 7AN ESTREINATUKO DA ZINEMA-ARETOETAN

HARIRA
GOIENA TELEBISTA, EZTABAIDA SAIOA
URTARRILAREN 14AN, MARTITZENEAN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN
GOIATZ ARANAK ZUZENDUTAKO SAIOA
SOLASKIDEAK: AITOR URRUTIA (EAJ), REBEKA UBERA (EH BILDU), JULEN BOLLAIN (ELKARREKIN PODEMOS) ETA GLORIA VAZQUEZ (PSE-EE)
goiena
Zu hemen zaude.

Strad taldearen saio berezia, biolina ardatz

Jorge Guillen puntako biolin-jolea taldearekin batera izango da Arrasaten, Amaia antzokian, urtarrilaren 31n. Musika klasikoa, rocka eta flamenkoa nahasten ditu Strad taldeak, eta emanaldi berezia taularatuko du, 20:30ean hasita

Imanol Beloki ARRASATE

Ara Malikian maisuarekin batera jotzen duen Jorge Guillen biolin-joleak geldialdia egingo Amaia antzokian, hilaren 31n. Beste lau musikarirekin batera osatzen duen Strad taldearekin izango da –Tania Bernaez (kontrabaxua), Vicente Hervias (perkusioa), Joaquin Alguacil (gitarra) eta David Garcia (teklatua)–, musika klasikoa, jazza, elektronika, rocka eta flamenkoa nahasten dituen emanaldi berezia taularatzeko.

Ibai-arte Arrasateko Merkatari eta Zerbitzu Elkarteak, Ozenki elkarteak eta Arrasateko Udalak elkarlanean antolatu dute ekitaldia, eta sarrerak salgai daude urtarrilaren 2tik *Kutxabank.es* webgunean, 20 eurotan.

Punta-puntako musikaria

Jorge Guillen ospe handiko biolin-jolea da, nazioartean hainbat sari jasotakoa. 30 herrialde baino gehiagotan aritutako musikaria da, eta berriki Sevillako Cartuja Center aretoko eserleku guztiak betetzetik dator. Opera egitetik Extremoduro taldearekin rocka uztartzera pasa zen Jorge Guillen biolin-jolea, eta ordutik askotariko estiloak egiten dituen taldeak ezagutu ditu, eta hori islatzen du bere emanaldietan.

Ikuskizun arrakastatsua

Ibai-arteko presidente Jon Apraizek ikuskizun bikaina aurreikusten du, eta sarrera salmenta ondo doala ere gaineratu du: "Jorge Guillen biolin-jolearekin harremanetan jarri ginen, eta bere aldetik prestutasun handia erakutsi du Arrasaten jotzeko. Izan ere, Bilbon harmaila guztiak bete zituen, eta abenduaren 14an Hondarribian eskainitako saioa ere arrakastatsua izan zen. Hori horrela, orain arte 400 sarrera inguru salduta, ikuskizun ederra izatea aurreikusten dugu, eta antzokia betetzen bada, askoz hobeto".

DAGOENEKO 400 SARRERA SALDU DITUZTE URTARRILAREN 31KO KONTZERTURAKO

Musikaz haratago

Urtarrilaren 31ko emanaldiak 90 minutu inguru iraungo du, Amaia antzokian –20:30ean–, non 1700. urtean Vienan egindako biolin bat erabiliko duen taldeko liderrak. Hala, *El violinista rebelde* izeneko ikuskizunak biolina ardatz izango duen arren, askotariko musika estiloez gozatu ahal izango dute bertaratzen direnek. Estilo klasikotik hasi eta rock gogorrerainoko kantuak entzuteko aukera izango da, eta, gainera, ez da musika emanaldi soila izango; izan ere, biolin-jolearen monologoek ere indar handia izango dute ikuskizun errebelde honetan.

Strad taldeko Jorge Guillen biolin-jolea oholtzan. IBAI-ARTE

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko urtarrileko sariak!

Telebista LG 32"

Parte hartzeko sariaren izena: Telebista

EROSKI ARRASATE

Sarrerak

Arrikrutz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz

ARRIKRUTZ

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harremandenda.org

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoa: kluba@goiena.eus Whatsapp: KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Irabazi bi lagunendako otordua

TARTUFO JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariko Otordua atala eta hartu parte!

943 25 05 05 kluba@goiena.eus

KLUBA Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailez gozatzeko...

2020ko bazkidetza: 56€

Deitu: 943 25 05 05 • kluba@goiena.eus

goienakluba

Euskara irabazle, denok irabazle!

ZERBITZUAK

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Bergara. Zubiaurre kalean 80 metro koadroko etxebizitza salgai edo errentan. 15 urteko eraikina da. Igogailua, berokuntza sistema, hiru logela, bi komun eta bi balkoi. Erdi jantzita. Garaje itxia aukeran. Telefonoa: 635 25 54 44

102. EROSI

Bergara. Adineko bikote batek logela bateko edo biko etxebizitza erosiko luke Bergaran, beheko solairuan edota igogailuarekin. 645 72 92 87

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Logela ematen da errentan Musakolan. Nahiago dugu neska bada. 682 31 97 37 edo 669 73 61 76

4. LANA

402. ESKAERAK

Aretxabaleta. Emakume aretxabaletarra gertu nagusiei kalera laguntzeko, umeak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko. 685 73 04 83

Bergara. Bi edo hiru logelako etxebizitza behar dugu errentan hartzeko. Familia bat gara, soldatadunak. 645 72 92 87

Debagoiena. Arratsaldetan pertsona helduak edota umeak zaintzeko prest nago. 610 34 97 88

Debagoiena. Asteburuetan lan egingo nuke, etxean bertan bizi izaten. 681 12 52 48

Debagoiena. Egun osoko jardunez lan egingo nuke, baita etxean bizi izaten ere. 632 87 91 90

Debagoiena. Egunean zehar edo gauetan nagusiak zaintzeko gertu nago. Soziosanitario ikastaroa eta autoa dauzkat. Deitu telefono zenbaki honetara: 631 98 15 50

Debagoiena. Emakumezkoa lan bila. Zerbitzari, sukaldari laguntzaile, haurrak edo pertsona helduak zaintzen edo dendari bezala lan egingo nuke. 691 50 68 84

Debagoiena. Esperientzia duen neska orduka nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko prest. Telefonoa: 697 86 49 00

Debagoiena. Esperientziadun mutila gertu nagusiak zaintzeko, tabernak garbitzeko zein zerbitzari lanetan aritzeko. 638 85 43 36

Debagoiena. Esperientziadun neska gertu nagusiak zaintzeko, tabernak garbitzeko edota zerbitzari lanetan aritzeko. 654 11 15 14

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. 658 92 43 73

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten, edo bestela, zaintza lanak egingo nituzke. 632 37 65 40

Debagoiena. Etxeko lanetan, eraikuntzan eta abarrean jarduteko prest dagoen mutila lan bila. Deitu 604 14 54 57 telefonora.

Debagoiena. Etxez etxeko laguntzaile moduan esperientzia eta erreferentzia onak dauzkan mutila nagusiak zaintzeko gertu. Orduka eta asteburuetan ere bai. Baita baserrietan ere. Foru Aldundiko ziurtagiria eta autoa dauzkat. 662 43 08 54

Debagoiena. Gizonezkoa lan bila. Tornuetan eta hozteko teknikari gisa esperientziaduna. Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile lanak ere egiteko prest. Deitu 691 50 68 89 zenbakira.

Debagoiena. Nagusi eta umeak zaintzen edota garbiketan aritzeko gertu nago. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Soziosanitario ikasketak eta praktikaldia eginda. Telefonoa: 600 01 48 81

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke orduka edo eguneko jardunaz. Titulazioak eta gidabaimena dauzkat. Telefonoa: 680 87 38 66

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko gertu nago. Orduka, gauetan edo egun osoz. 632 33 19 27

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko gertu nago. Orduka, gauetan edo egun osoz. 612 52 25 15

Debagoiena. Neska arduratsua asteburuetan etxeko lanetan aritzeko prest. 680 73 19 76

Debagoiena. Neska arduratsua nagusiak eta umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko gertu. Orduka zein jardun osoz. Baita etxean bertan bizi izaten ere. 612 23 89 09

Debagoiena. Neska arduratsua orduka, nagusiak eta umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko gertu.632 25 27 26

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaintzen, garbiketan eta abarrean lan egiteko. Gauak ere bai. Ordutegi arazo barik. Telefonoa: 698 91 18 63

Debagoiena. Neska prest etxeko lanak egiteko eta pertsona nagusiak zaintzeko. Deitu 617 86 30 82 telefonora

Debagoiena. Nikaraguako mutila gertu nagusiak zaintzen, nekazaritzan, abeltzaintzan, aroztegian edota eraikuntza laguntzaile lanetan aritzeko. Baita tabernari moduan ere. 631 79 31 92

8. DENETARIK

806. GALDU

Kazadora bakera baten bila. Abenduak 31ko gabean Etxoste tabernan, utzitako kazadora baten bila gabiltza. Uste dugu, konturatu gabe norbaitek nire kazadora hartu zuela berea zelakoan. Nik beste kazadora bat daukat, L neurrikoa eta Pull and Bear dendakoa. Bila gabiltzana, S neurrikoa da eta Levis markakoa. Zerbait jakinez gero, Olaiagatik galdetu. 943 79 76 27 edo 688 63 65 72

BERGARAN *EUSKARALDIA* DINAMIZATZEKO LAN DEIALDIA

2020an bideratuko den *Euskaraldia* ekimenerako dinamizatzailea kontratatuko du Jardunek. Lan kontratua otsailetik abendura bitartekoa izango da eta lanaldia egunean 4 ordukoa. Curriculuma Jardun euskara elkartean aurkeztu edo ***jardun@topagunea.com*** helbidera bidali. Curriculuma aurkezteko azken eguna urtarrilaren 24a izango da.

Honakoa baloratuko da:

- Euskara maila egokia izatea
- Herria, herritarrak, herriko elkarteak… ezagutzea
- Euskaltzalea izatea eta euskalgintza ezagutzea
- Jendaurrean eta jendearekin harremanetarako gaitasuna izatea
- Eragiletzarako gaitasuna izatea
- Kudeaketarako gaitasuna izatea
- Komunikazio alorreko (sare sozialak, web orria, bideoen sorrera…) ezagutza izatea
- Ofimatika
- Lanerako autonomia maila altua izatea
- Ordutegi malgua izatea

Jardun euskara elkartea
Errotalde jauregia z/g
(Liburutegia). Bergara
Tel.: 943 76 36 61 • 605 71 24 69

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:
- A. Fleming, (poligonoan) 60 m², 2 logela, trastelekua egokituta 30,70 m². 160.000€.
- Bolu, 140 m², duplexa, 4 logela, terrazarekin. Bizitzera sartzeko. 405.000€.
- Abarrategi Etxea, 360 m², triplexa, baratza, garajea. Bizitzera sartzeko. 350.000€.
- Basarte, 70 m², 3 logela, bizitzera sartzeko. Garajea aukeran. 129.500€.
- Zubieta, 70 m², 2 logela, berrituta, baratzarekin, bizitzera sartzeko. 150.253€.
- Aranerreka, 170 m², duplexa, 4 logela, kota 0. Bizitzera sartzeko. 195.000€.
- Artekale, 180 m² duplexa. 4 logela, igogailua. Bizitzera sartzeko. 373.500€.
- Bolu, 65 m², trastelekua, igogailua, bizitzera sartzeko. 139.000€. PREZIO JEITSIERA.
- San Antonio, 76 m², berritzeko, igogailua jabeen kontura. 99.000€. PREZIO JEITSIERA.
- Irizar Pasealekua, 93 m², igogailua, terrazarekin, berritzeko.160.000€. PREZIO JEITSIERA.
- Zubiaurre, 50 m², 1 gela, patioa txokoarekin. 90.000€.
- Zubiaurre, 60 m², 2 logela, beogailua, mirador[illegible]. 75.000€.
- Zabalotegi, 80 m², 2 logela, igogailua, berrituta, bizitzera sartzeko. 140.000€.
- Masterreka, 75 m², 2 logela, bizitzera sartzeko. 169.000€.
- Martoko, 60 m², 2 logela, igogailua, bizitzera sartzeko. 130.000€.
- Madura, 57 m², 2 logela, berrituta, bizitzera sartzeko. 170.000€.
- Ibargarai, 54 m², 2 logela, igogailua, bizitzera sartzeko. Garaje 2 aukeran. 216.000€.
- Askarruntz, 60 m², 2 logela, trastelekua, bizitzera sartzeko. 100.000€.
- Zubieta, 70 m², 3 logela, bizitzera sartzeko, eguzkitsua. 114.193€.
- Zubieta, 65 m², 3 logela. Berrituta. Bizitzera sartzeko. 88.000€. PREZIO JEITSIERA
- Zabalotegi, 54 m², 3 logela, 2 trastelekua, bizitzera sartzeko. 90.000€.
- Osintxu, 79 m², 3 logela, igogailuarekin. Aukera ona. 70.000€.
- Osintxu, 75 m², 3 logela, trasteleku handiarekin. 63.000€. Aukera ona.
- Masterreka, 86 m², 3 logela, altzariak barne. Berrituta, bizitzera sartzeko. 150.000€.
- Masterreka, 100 m², 3 logela. Igogailua. Bizitzera sartzeko. 178.000€. PREZIO JEITSIERA.
- Koldo Eleizalde, 87 m², 3 logela, trastelekua, parking, eguzkitsua. 160.000€.
- Fraiskozuri, 100 m², 3 logela, igogailua. 198.000€.
- Matxiategi, 96 m², 4 logela, terrazarekin, igogailua. 149.500€. PREZIO JEITSIERA.
- Fraiskozuri, 100 m², 4 logela, trastelekua, igogailua. 180.000€.
- Bidekurutzeta, 130 m², 4 logela, igogailua, trastelekua. 270.000€. PREZIO JEITSIERA
- Zubiaurre, 60 m², 2 logela, bizitzera sartzeko. 65.000€.

ANTZUOLA:
- Errekalde, 94 m², 3 logela, igogailua. Eguzkitsua. 99.000€. PREZIO JEITSIERA
- Errekalde, 90 m², 3 logela, igogailua, bizitzera sartzeko 135.000€. PREZIO JEITSIERA
- Beheko auzoa, 60 m², 2 logela. Berrituta. Bizitzera sartzeko. 120.000€.
- Errekalde, 70 m², 2-3 logela, igogailua, bizitzera sartzeko. 125.000€.
- Kalebarren, 79 m² – 77m2. Berritzeko. 61.000€. - 51.000€.
- Baztinzuri, 64 m², trastelekuarekin. Berritzeko. 40.000€. PREZIO JEITSIERA
- Kalegoi, 80 m², 1go pisua 60.000€. - 2pisua + ganbara 70.000€. Berritzeko

ELGETA:
- Salbador, 75 m², 3 logela, igogailua, berogailua, trastelekua. 75.000€.
- San Roke, Duplexa, 83 m², berrituta, bizitzera sartzeko. 190.000€.

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:
- Etxebizitza Saldu/Errentan.
  Garajea Saldu/Errentan.
  Lokala Saldu/Errentan.
  Irakaskuntza eman.
  Motorra Saldu/Alokatu.
  Animaliak/Saldu.
  Denetarik/Saldu.
- Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
- Astebeteko prezioa: 20 euro
  18 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
- Astebete baino gehiagoz argitaratzeko, prezio bereziak aplikatuko dira.
- Profesionalen moduluak.
  Modulo bakarra: 25 euro (+BEZ).

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

EZTABAIDA SAIOA, POLITIKARIEKIN

'Harira eztabaida' *Martitzena, 21:00 eta 23:00*

BRAHMAN

BRAHMAN TALDEAREN KONTZERTUA

'Bereziak' *Egubakoitza, 23:00*

EGUBAKOITZA, 10

10:00	Hemen Debagoiena
11:00	Elkarrizkettap: Ainara Gurrutxaga
11:30	Hemen Debagoiena
12:30	Hiri baratzea 11
13:00	Hala bazan 2
13:30	Hemen Debagoiena
14:30	Albisteak
14:45	Harmailatik
15:15	Hemen Debagoiena
16:15	Albisteak
16:30	Kantari Gasteiz 5
17:00	Albisteak
17:15	Ahotsenea: Assata
17:45	Albisteak
18:00	Hemen Debagoiena
19:00	Kantari Gasteiz 6
19:30	Hala bazan 2
20:00	Hemen Debagoiena
21:00	Hala bazan 2
21:30	Elkarrizkettap: Iker Zabala
22:00	Hemen Debagoiena
23:00	Kooltur: Brahman

ZAPATUA, 11

09:00	Kantari Gasteiz 5
09:30	Kantari Gasteiz 7
10:00	Kantari Gasteiz 6
10:30	Hala bazan 2
11:00	Hemen Debagoiena
12:00	Ahotsenea: Assata
12:30	Urtekaria 2019
14:00	Kooltur: Brahman
15:00	Hala bazan 1
15:30	Hemen Debagoiena
16:30	Kantari Gasteiz 7
17:00	Kantari Gasteiz 6
17:30	Kooltur: Brahaman
18:30	Ahotsenea: Assata
19:00	Elkarrizkettap: Ainara Gurrutxaga
19:30	Asteko errepasoa
20:00	Hemen Debagoiena
21:00	Hala bazan 1
21:30	Hala bazan 2
22:00	Urtekaria 2019
23:30	Kooltur: Brahman

DOMEKA, 12

09:00	Hala bazan 1
09:30	Kantari Gasteiz 7
10:00	Kantari Gasteiz 6
10:30	Kantari Gasteiz 5
11:00	Kooltur: Brahman
12:00	Hala bazan 1
12:30	Hala bazan 2
13:00	Urtekaria 2019
14:30	Elkarrizkettap: Iker Zabala
15:00	Hemen Debagoiena
16:00	Elkarrizkettap: Ainara Gurrutxaga
16:30	Hala bazan 1
17:00	Kantari Gasteiz 7
17:30	Kantari Gasteiz 6
18:00	Urtekaria 2019
19:30	Ahotsenea: Assata
20:00	Hemen Debagoiena
21:00	Asteko errepasoa
21:30	Hala bazan 2
22:00	Ahotsenea: Assata
22:30	Hemen Debagoiena
23:30	Kooltur: Brahman

EGUBAKOITZA, 10

IKER ZABALARI ELKARRIZKETA

'Elkarrizkettap'

21:30/23:30

ASTELEHENA, 13

ASTEBURUKO KIROL HITZORDUAK

'Harmailatik'

21:30/23:30

GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: ***goiena.eus/telebista***
Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

EGUAZTENA, 15

GOIENA

ELIXABETE GARMENDIARI ELKARRIZKETA

'Elkarrizkettap'

21:30/23:30

EGUAZTENA, 15

'ZIRIKATZEN' LEHIAKETA

'Hemen Debagoiena'

18:00/20:00/22:00

TXUTXU-MUTXUAK



1. Urtea hasteko, Aloñara
Oñatiar talde batek Aloñarako igoera egin zuen urtarrilaren 1ean. Goiz-pasa ederra egin zuten, urte berrirako egitasmoen eta erronken gainean berba egiten.

2. Urtarrilaren 1ean, mendira
Irudiko bergarar mendizaleek ere mendian hasi zuten 2020a. Bergara-Itxumendi-Gorla ibilaldia egin zuten elkarrekin Pol-Pol taldeko beteranoek.

3. Harreman dendako otarrea
Sonia Alonso arrasatearrak irabazi zuen Bidezko Merkataritza sustatzen duen dendako saria. "Merkataritza justuago baten alde egiten duen ohiko bezeroa da", esan dute.

4. San Esteban krosaren irabazleak
Argazkian dauden Ekain Larrea antzuolarrak eta Ainara Urrutia aretxabaletarrak irabazi zuten abenduaren 26an jokatutako proba. Ehundik gora lagunek parte hartu zuten.

5. Erakusleiho lehiaketako irabazleak
Oñatiko Kimu loradendak irabazi zuen Gabonetako lehiaketa. Bigarren saria Amalur dendarendako izan zen eta hirugarrena, Andrea Azkoagarendako.

6. Tinduferako materiala
Urtarrilaren 3an bidali zuen hamahirugarren edukiontzia Hermansoloñak. Kirol materiala, bulegorako gaiak eta Osakidetzak utzitako ordenagailuak bidali zituzten, besteak beste.

Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidaliguzu argazkia!

Posta elektronikoa
Mezua bidali *berriak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak
Zatoz Goienaren ordezkaritzara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

ZORION AGURRAK

ARRASATE
Beñat Rubio Bidaburu
Urtarrilaren 13an, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo ospatu eguna! Patxo handi bat, etxeko danon partetik!

BERGARA
June Gabilondo Kapelastegi
Urtarrilaren 13an, 7 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure urtebetetzea. Muxu potolo bat aitatxoren, amatxoren eta Naiaren partetik.

BERGARA
Ibon Lete Cobo
Urtarrilaren 12an, 4 urte. Zorionak, mutil handi! Segi holako sinpatiko izaten. Patxo potolo-potolo bat, danon partetik.

ARRASATE
Iker Del Palacio
Urtarrilaren 10ean, 7 urte. Zorionak! Etxekoen partetik.



OÑATI
Naia Letamendi
Urtarrilaren 8an, 7 urte. Zorionak, polit hori! Oso ondo pasatu zure urtebetetzian. Jarraitu beti bezain alaia izaten. Patxo handi bat, etxeko danon partetik.



ARRASATE
Ane Rueda Calleja
Urtarrilaren 8an, 7 urte. Zorionak, bihotza! Zazpi urtetxo jada! Egun zoragarrixa pasatu eta milioika muxu, etxeko guztion partetik! Ikaragarri maitte zaittugu!

BERGARA
Danel Urrutia Arribillaga
Urtarrilaren 8an, 5 urte. Zorionak, politt hori! Segi horrelako jatorra eta maittagarria izaten. Ondo pasatu zure urtebetetzian eta patxo pilo bat, etxeko guztien partetik.

BERGARA
Eneko Miranda Arabaolaza
Urtarrilaren 6an, 10 urte. Zorionak, Eneko!



OÑATI
Ibai Zumalde Olariaga
Urtarrilaren 5ean, 2 urte. Zorionak, politt hori! Bi urtetxo jada. Ondo-ondo ospatu zure urtebetetze eguna eta patxo handi bat, familiaren partetik!

ESKORIATZA
Irati Etxebarrieta
Urtarrilaren 5an, 19 urte. Zorionak, Irati. Patxo handi pila bat, familiako guztien partetik. Egun polita pasatu domekan.

ARRASATE
Garazi Nin Ugalde
Urtarrilaren 5an, 8 urte. Zorionak, politx hori! Bazoietz aurrera! Egun zoragarrixa pasatu eta jaso zortzi patxo potolo, etxeko danon partetik!



BERGARA
Oihan Zubiaga Ilarduia
Urtarrilaren 5ean, 12 urte. Zorionak, mutikote! Ondo-ondo pasatu eta txintxo portatu. Patxo bana, etxekuon partetik.

ARRASATE
Izadi Zuriarrain Arcauz
Urtarrilaren 4an, 10 urte. Zorionak, maitia. Jada 10 urte. Egun zoragarria pasatu, familiako guztion partetik. Muxu handi bat.

ARRASATE
Aurora Trenado
Urtarrilaren 3an, 37 urte. Zorionak, amatxo! Muxu asko, etxeko danon partetik!



ESKORIATZA
Aiza Martin Brea
Urtarrilaren 3an, 6 urte. Zorionak, Aiza! Oso ondo pasatu zure egunean. Muxu handi bat, familiaren partetik.



BERGARA
Maialen Goikoetxea Blanco
Urtarrilaren 2an, 6 urte. Zorionak, sorgintxo! Egun politxa euki! Patxo handi bat, familia osoaren partetik.

OÑATI
Ilargi Markuleta Kortajarena
Urtarrilaren 2an, 6 urte. Zorionak, printzesa. Jarraitu zaren modukoa izaten. Asko maite zaitugu. Familiako danon partetik.



ARRASATE
Ane Aranzabal Vitoria
Urtarrilaren 2an, 10 urte. Zorionak, bihotza. Oso ondo pasatu urtebetetze eguna. Muxu handi bat, familia osoaren partetik.



BERGARA
Manex Osa Arana
Urtarrilaren 1ean, 7 urte bete dittuzu. Zorionak, *txikito*. Etxeko guztion partetik, patxo handi bat. Urtebetetze egun ederra pasa deizula eta zoriontsu eta lasai ekin urte berria!

BERGARA
Paule Sanchez Eguren
Urtarrilaren 1ean, 8 urte. Zorionak, Paule! Jada zortzi urte, printzesa! Muxu asko etxeko danon, eta bereziki, Noraren eta Juneren partetik!

OÑATI
Maddi Dorado Hernandez
Urtarrilaren 1ean, 4 urte. Zorionak, politt hori. Lau urtetxo! Egun ederra izan dezazula. Segi beti bezain alai. Maite zaitugu. Familiakoen partetik, muxu erraldoi bat.



BERGARA
Marisa Escobar Miranda
Abenduaren 31n, 59 urte. Zorionak, amama Marisa! Eskerrik asko beti gurekin egoteagatik. Pila bat maite zaitugu. Besarkada bat, Kenarren eta Alaineren partetik.

ARRASATE
Elene Zubizarreta Gorosabel
Abenduaren 30ean, 3 urte. Zorionak, Elenetxo! Jarraitxu zaren modukua izaten. Asko maitxe zaitxugu! Familixaren partetik, patxo erraldoi bat!

OÑATI
Irati Letona Zumalde
Abenduaren 29an, 9 urte. Zorionak, Irati. Urte askotarako. Ondo-ondo pasatu zure eguna, familixa danaren partetik.

ARETXABALETA
Alazne Negro
Abenduaren 29an, 9 urte. Zorionak, printzesa! Zure aitaren, amaren, Erlantzen eta Marenen partetik.

ESKORIATZA
Itziar Garaiyurrebaso
Abenduaren 29an, 61 urte. Zorionak, amama Itziar. Ondo pasatu zure eguna eta urte askotarako, familia osoaren partetik. Muxu pilo bat.

ARRASATE
Jakes Agirrebeña Arriaran
Abenduaren 27an, 3 urte.Zorionak, Jakes! Asko disfrutatu zure eguna, txapelduna! Asko maite zaitugu! Disfrutatuko dou topera, *pollito*!



DEBAGOIENA
Ekain Muñoz
Abenduaren 23an, urtebete. Zorionak, laztana. Egun ederra izan dezazula. Segi beti bezain alai! Asko maite zaituen zure familiaren partetik. Muxuak.



BERGARA
Liher Loidi
Abenduaren 22an, urtebete. Zorionak, Liher! Zure lehenengo urtebetetzean muxu handi bat, familia osoaren partetik!



OÑATI
Beñat Arana Urtzelai
Abenduaren 19an, 10 urte. Zorionak, Beñat, etxekoen eta, batez ere, Unaxen partetik. Ondo pasatu zure eguna!

OÑATI
Izei Zuloaga Aranburu
Abenduaren 18an, urtebete. Zorionak, maitte, zure lehenengo urtebetetzean.

ZUT

Z BELAUNALDIAREN ALDIZKARIA

Euskaraz

Mugikorretarako!
Bideoak, argazkiak, musika... modu bertikalean! Ez biratu mugikorra; edukiak ZUTik, bertikalean!



Gazteen gaiak
Musika, youtuberrak, erronkak, elkarrizketak, outfit onenak... Askotariko gaiak

'IXA' websaila
Formatu bertikalean egin den euskarazko lehen websaila ZUTen bakarrik ikus dezakezu.

Eta zure edukiak!
ZUTen zure bideoak, erronkak, memeak, coverrak... jaso nahi ditugu! Animatu eta bidali!

Deskargatu doan!

APP Store

Play Store

HILDAKOAK

Axun Arregi Leturiaga.
Oñatin, abenduaren 18an. 103 urte.
Concepcion Roncero Yeboles.
Aretxabaletan, abenduaren 18an. 92 urte.
Maria Pilar Martinez Abarrategi.
Arrasaten, abenduaren 19an. 92 urte.
Isabel Manso Jauregi.
Bergaran, abenduaren 19an. 93 urte.
Joaquina Carmona Gomez.
Eskoriatzan, abenduaren 19an.
Josefa Bergara Uriona.
Arrasaten, abenduaren 20an. 93 urte.
Jose Hernandez Tabares.
Bergaran, abenduaren 20an. 79 urte.
Ely Gradys Rey Marino.
Bergaran, abenduaren 20an. 93 urte.
Pedro Igartua Ugarte.
Oñatin, abenduaren 22an. 98 urte.
Jose Treceño Terceño.
Aretxabaletan, abenduaren 23an. 78 urte.
Natividad Agirre Arenaza.
Bergaran, abenduaren 23an. 92 urte.
Jesus Larrea Elorza.
Arrasaten, abenduaren 26an. 70 urte.
Santos Moreno Vicario.
Arrasaten, abenduaren 26an. 70 urte.
Ignacio Fernandez Valenti.
Arrasaten, abenduaren 27an. 58 urte.
Javier Marquinez Agirrebengoa.
Oñatin, abenduaren 29an. 91 urte.
Anttone Atxa Madinabeitia.
Arrasaten, urtarrilaren 1ean. 86 urte.
Sheila Garcia Arnaiz.
Arrasaten, urtarrilaren 1ean. 29 urte.
Jon Ander Kortabarria Saez.
Arrasaten, urtarrilaren 1ean. 25 urte.
Maria Isabel Aranguren Zelaia.
Oñatin, urtarrilaren 1ean. 96 urte.
Asuncion Garcia Herrero.
Oñatin, urtarrilaren 1ean. 92 urte.
Gerardo Iturrospe Peña.
Aretxabaletan, urtarrilaren 3an. 89 urte.
Luisa Zubizarreta Andonegi.
Aretxabaletan, urtarrilaren 3an. 92 urte.
Pedro Maria Armendariz Zubizarreta.
Eskoriatzan, urtarrilaren 3an. 81 urte.
Maria Dolores Egaña Lizarralde.
Oñatin, urtarrilaren 3an. 86 urte.
Angel Aiastui Elorza.
Oñatin, urtarrilaren 3an. 86 urte.
Luis Arrayago Ormazabal.
Oñatin, urtarrilaren 3an. 88 urte.
Carmen Arabaolaza Uriarte.
Arrasaten, urtarrilaren 4an. 81 urte.
Gurutz Arrieta Pildain.
Bergaran, urtarrilaren 4an. 86 urte.
Bonifacio Palomero Cabrejas.
Bergaran, urtarrilaren 4an. 91 urte.
Nemesio Arkauz Gaztañaga.
Aretxabaletan, urtarrilaren 5ean. 85 urte.
Catalina Arregi Usaola.
Arrasaten, urtarrilaren 5ean. 96 urte.
Jose Cortes Arana.
Arrasaten, urtarrilaren 6an. 87 urte.
Marcelina Roman Olivenza.
Arrasaten, urtarrilaren 6an. 79 urte.
Roman Lopez Rubio.
Arrasaten, urtarrilaren 9an. 84 urte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE *EGUNEZ*	
Egubakoitza, 10	FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
Zapatua, 11	ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30
Domeka, 12	ALBERTO AZKOAGA: Ferrerias kalea 1 / 943 79 15 15
Astelehena, 13	M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Martitzena, 14	FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
Eguaztena, 15	IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39
Eguena, 16	SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
BERGARA *EGUNEZ*	
Egubakoitza, 10	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 8
Zapatua, 11	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Domeka, 12	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Astelehena, 13	ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Martitzena, 14	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Eguaztena, 15	URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Eguena, 16	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
OÑATI *EGUNEZ BAKARRIK*	
Egubakoitza, 10	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Zapatua, 11	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Domeka, 12	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Astelehena, 13	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Martitzena, 14	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Eguaztena, 15	ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 1
Eguena, 16	ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 1

ARRASATE *GAUEZ EGUNERO*
(22:00etatik 09:00etara)
2020ko abuztuaren 15era arte:
RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09

BERGARA *GAUEZ EGUNERO*
(22:00etatik 09:00etara)
2020 osoan:
ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:
COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

HILETA

Roman Lopez Rubio

2020ko urtarrilaren 9an hil zen, 84 urte zituela.

Haren emaztea: Ana Mari Ormaetxea; seme-alabak: Gentzane eta Mikel Alonso, Unai eta Irantzu Lopez de Bergara, Enara eta Diego Andres; bilobak: Beñat, Maren, Uxue, Aurken, Unax eta June; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusu-lehengusinak eta gainerako ahaideak.

Bere oroimenez, azken agurreko hileta-elizkizuna, gaur, ostirala, 19:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parroki elizan izango da.
Etorriko zaretenoi, eskerrik asko familiaren izenean.

Arrasaten, 2020ko urtarrilaren 10ean.
Hilbeila Arrasate Tanatorioan izango da 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:30era

URTEURRENA

Enrique Iturriaga Lanchate

2018ko abenduaren 4an hil zen, 82 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 12an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2020ko urtarrilaren 10ean.

URTEURRENA

Rosario Olalde Biain

2018ko abenduaren 9an hil zen, 91 urte zituela.

Isabel Olalde Biain

Francisco Bikuñaren alarguna
2019ko urtarrilaren 10ean hil zen, 98 urte zituela.

Zuentzako oroitzapen guztiak, maitasunez beteak.
—
Urteurreneko meza zapatuan izango da, urtarrilaren 11n, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Oñatin, 2020ko urtarrilaren 10ean.

URTEURRENA

Ricardo Suarez Santos

2019ko urtarrilaren 27an hil zen, 75 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 12an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2020ko urtarrilaren 10ean.

URTEURRENA

Maximo Alberdi Bastarrika

2019ko urtarrilaren 3an hil zen, 68 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 12an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2020ko urtarrilaren 10ean.

OROILORE
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Jakin ezazue nahiz eta heriotz asegurua izan, zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.

Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza dut beti zuentzako.

maribi 617 44 21 55 • BERGARA

OROIGARRIA

Joaquina Carmona Gomez

(Luis Ezeiza HLHIko ikastetxeko irakasle baten ama)

2019ko abenduaren 19an hil zen.

Luis Ezeiza Herri Eskolako komunitateak bat egiten du familiaren saminarekin.

Eskoriatzan, 2020ko urtarrilaren 10ean.

OROIGARRIA

Mila Madariaga Irastorza

2019ko urtarrilaren 9an hil zen, 68 urte zituela.

Betirako gure bihotzean.

Bergaran, 2020ko urtarrilaren 10ean.

OROIGARRIA

Santos Moreno Vicario

2019ko abenduaren 26an hil zen, 70 urte zituela.

Robertoren lagunak.

Arrasaten, 2020ko urtarrilaren 10ean.

OROIGARRIA

Santi Berezibar Irasuegi

2019ko abenduaren 4an hil zen, 75 urte zituela.

Zure eskuzabaltasuna
ez dugu inoiz ahaztuko.
Beti lagunak pozik edukitzeko prest.
Gurekin eramango zaitugu.

Zure lagunak:
Atsegine, Amparo eta Pablo, Chini eta Bittor, Begoña,
Paca eta Patxi, Coro, Marije eta Agustin.

Arrasaten, 2020ko urtarrilaren 10ean.

OROIGARRIA

Sheila Garcia Arnaiz

2020ko urtarrilaren 1ean hil zen, 29 urte zituela.

Bat egiten dugu familiaren saminarekin.
Zure hutsunea asko sentituko dugu.

EPA Arrasate.
Arrasaten, 2020ko urtarrilaren 10ean.

OROIGARRIA

Maria Dolores Egaña Lizarralde

(Mila Igartua lankidearen ama)

2020ko urtarrilaren 3an hil zen.

Bat egiten dugu familiaren saminarekin.

EPA Arrasate.
Oñatin, 2020ko urtarrilaren 10ean.

ESKER ONA

Angel Aiastui Elorza

'Farretxe'

2020ko urtarrilaren 3an hil zen, 86 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.
—
Ondra meza urtarrilaren 18an, zapatua, izango da,
19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan.
Bertaratuko zaretenoi aldez aurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2020ko urtarrilaren 10ean.

ESKER ONA

Javier Marquinez Agirrebengoa

2019ko abenduaren 29an hil zen, 91 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2020ko urtarrilaren 10ean.

ESKER ONA

Maria Dolores Egaña Lizarralde

2020ko urtarrilaren 3an hil zen, 86 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Baita Debagoieneko Ospitaleko lantaldeari ere.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2020ko urtarrilaren 10ean.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo ***eskelak@goiena.eus***

- Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 176 € / Goiena Klubeko bazkideendako 156 €
- Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 155 € / Goiena Klubeko bazkideendako 137 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 10

BERGARA Taula periodikoari buruzko erakusketa
Tresna horretara era interaktiboan hurbiltzeko aukera ematen duen bilduma. Martxoaren 29ra arte ikusgai.
Laboratoriumen, 16:00etan.

OÑATI Odol-ateratzea
Urteko lehenengo deialdia.
Enpresagintzan, 17:00etan.

OÑATI Txaloka ludotekaren inaugurazio jaia
17:30ean, irekiera; 18:30ean, Aiert Alberdiren emanaldia; eta ostean, luntxa.
Ludotekan.

ESKORIATZA Sukaldaritza tailerra
Krepeak egingo dituzte nerabeek.
Gaztelekuan, 17:30ean.

ARRASATE 'Udazkena Euskal Herrian' erakusketa
Artgazkik deitutako lehiaketako erretratu onenak ikusteko aukera. Salmentako dirua Aspanogirendako izango da. Gaurtik hilaren 24ra arte.
Kulturaten, 17:30ean.

ARRASATE 'Lur eta Amets' ikuskizuna
Izen bereko pelikularen protagonistek antzerkia egingo dute, filma aurkezteko.
Kulturaten, 18:00etan.

BERGARA Zeramika erakusketa
Bustinzale Elkarteko kideen lanak ikusteko azken egunak. Gaur eta bihar.
Aroztegin, 18:00etan.

ARRASATE 'Kantujira'
Kalerik kale euskal kantak abesteko deialdia. Musikariak gonbidatu dituzte.
Portaloian, 19:00etan.

ARETXABALETA Aratusteak gertatzen hasteko batzarra
Txapel Txin Egunari eta Aratusteei beste buelta bat emateko, batzar irekia deitu dute. Eragileak eta herritarrak daude gonbidatuta.
Udaletxe zaharrean, 19:30ean.

OÑATI Goi&Bego Eta Txakurrak taldea
Kontzertua egingo dute. Debalde.
Ikatz tabernan, 21:30ean.

ZAPATUA 11

OÑATI 'Argazkigintzatik abstrakziora' erakusketa
Gaur da jaiotzez bergararra izan baina Madrilen bizi den Pedro Luis Ormazabalen margolanak ikusteko azken eguna. 12:00-14:00 eta 18:00-20:00. Jaio
Kultura etxean.

ESKORIATZA Fimo tailerra
Gaztetxoendako. Material horrekin irudiak egiten ikasiko dute.
Gaztelekuan, 17:30ean.

DOMEKA 12

LEINTZ GATZAGA Bisita gidatuak Gatz Museoan
11:30ean, euskaraz; eta 13:00etan, gazteleraz. Aurrez eman behar da izena: 943-71 47 92.
Gatz museoan.

BERGARA Txistulari bandaren emanaldia
Kontzertua egingo dute.
Udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 13:00etan.

ARRASATE 'Familian jolasean'
8 urte arteko neska-mutikoendako eta horien familiendako ekintzak.
Okendoko ludotekan, 17:30ean.

OÑATI Sotoaren irekiera
Gaurtik aurrera ohiko martxa berreskuratuko du txokoak. Merendola eta eskulan tailerrak egingo dituzte.
Soroan, 17:00etan.

OÑATI 'Ekain Txou' ikuskizuna
Ekain Ibargurenen malabarismo emanaldia, umeendako. Sarrerak, Kiku eta Mizke gozoki-dendetan, hiru eurotan.
Gaztetxean, 18:00etan.

ARETXABALETA 'Desbloqueadas' antzezlana
@r Emociones talde eskoriatzarraren lana. Zortzi emakumeren bidaia pertsonala kontatzen du istorioak. Zortzi bizitza eta motibazio ezberdin, proiektu berbera aurrera eramateko gogoarekin. Sarrerak, lau euro.
Arkupen, 19:00etan.

DIENTES DE LUNA

OÑATI Dientes De Luna taldea
Gernikako taldearen indie eta rock alternatibo doinuak ezagutzeko aukera. *Atmosfera* diskoa aurkeztuko dute bizkaitarrek. Sarrerak, bost euro.
Etzi, domeka, gaztelekuan, 12:30ean.

ARRASATE 'Zaldi urdina' antzezlana
Zaldi urdina izena duen droga berri batek eragin dio heriotza Aingeru gazteari. Horren atzean dagoena ikertzen hasiko da Polizia. Sarrerak, hamar euro.
Amaia antzokian, 19:30ean.

ASTELEHENA 13

OÑATI Ate irekiak Eltziako kirolgunean
Hilaren 18ra arte.
Eltzian, 07:30ean.

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Foruen plazan, 12:00etan

OÑATI Ate irekiak ludotekan
Txalokaren antolaketa berria ezagutzeko aukera.
Ludotekan, 17:00etan.

BERGARA Txotxongilo emanaldia
Umeendako.
Osintxuko ludotekan, 17:00etan.

OÑATI 'Mujeres de negro' erakusketa
Errioxako La Barranca memoria taldeak osatu duen bildumaren inaugurazioa. Ikusgai egongo da hilaren 18ra arte.
Kultura etxean, 18:00etan.

ARRASATE Zikloturismoko federatu txartelak egiteko
Debagoiena Zikloturista Klubaren laguntzarekin egin daitezke, euren bulegotik pasata.
Ignazio Zuloaga kaleko 10.ean, 19:00etan.

MARTITZENA 14

OÑATI Ate irekiak Eltziako kirolgunean
Hilaren 18ra arte.
Eltzian, 07:30ean.

BERGARA Sukaldaritza tailerra
Umeendako.
Ludotekan, 17:00etan.

OÑATI Ate irekiak ludotekan
Txalokaren antolaketa berria ezagutzeko aukera.
Ludotekan, 17:00etan.

BERGARA Barreterapia tailerra
Umeendako.
Angiozarko ludotekan, 17:00etan.

OÑATI Ate irekiak ludotekan
Txalokaren antolaketa berria ezagutzeko aukera.
Ludotekan, 17:00etan.

OÑATI Idazketa lantegia
2020ko lehen saioa egingo dute, Joxe Mari Iturralderekin.
Liburutegian, 18:00etan.

OÑATI 'Estimulazio goiztiarra' egitasmoaren aurkezpena
Zer den eta zertarako den onuragarria azalduko dute, besteak beste. Aurrez eman behar da izena: 943-71 82 72.
Elkar Hezin, 18:00etan.

ARRASATE Zikloturismoko federatu txartelak egiteko
Debagoiena Zikloturista Klubaren laguntzarekin egin daitezke.
Ignazio Zuloaga kaleko 10.ean, 19:00etan.

ARRASATE 'La hija de un ladrón' pelikula
Belen Funesen pelikula emango dute martitzenetako emanaldian. Eduard Fernandez eta Greta Fernandez protagonistak.
Amaia antzokian, 20:30ean.

EGUAZTENA 15

OÑATI Ate irekiak Eltziako kirolgunean
Hilaren 18ra arte.
Eltzian, 07:30ean.

BERGARA Adimen artifizialaren gaineko hitzaldia
Las persecuciones sociales y política de la inteligencia artificial izeneko hitzaldia egingo du Daniel Innerarityk.
Seminarixoan, 10:00etan.

ESKORIATZA Ipuin tailerra
Zure barneko sorgin ipuina piztu nahi? izeneko saioa egingo du

VALERIA GUGLIETTI

BERGARA 'Zineko itzalak' ikuskizuna
Valeria Guglietti taldeak familia osoarendako ikuskizuna egingo du. Itzalak izango dira protagonista Argentinako konpainiaren eskutik. Itzal txinatarrei lagun egiteko soinu-efektuak erabiltzen dituzte. Sarrerak, lau euro.
Bihar, zapatua, Seminarixoan, 18:00etan.

Fernando Morillok, 6-12 urte artekoendako, euskaraz.
Luis Ezeiza eskolan, 17:00etan.

OÑATI Ate irekiak ludotekan
Txalokaren antolaketa berria ezagutzeko aukera.
Ludotekan, 17:00etan.

BERGARA Eguaztenetako azoka
Etxeko baserritarren garaiko produktuak erosteko aukera.
Oxirondon, 18:00etan.

BERGARA 'Auzoak: egungo egoera ulertzeko zenbait zertzelada' hitzaldia
Hedoi Etxarte idazleak egingo du berba, Angiolillo liburutegiaren hamargarren urteurreneko ekitaldien baitan.
Osintxuko liburutegian, 18:00etan.

ARRASATE Literatura solasaldia
Maria Fernanda Ampuero idazlearen *Pelea de gallos* liburuari buruzko saioa, Ane Zapaterok gidatuta.
Kulturaten, 18:15ean.

ESKORIATZA 'Eskoriatza Mozambikerekin' berbaldia
Andoni Uribeetxeberriak, Oihana Arietaleanizbeaskoak eta Mari Luz Tomek egingo dute berba, gazteleraz. Irekia, herritar guztiendako.
Kultura etxean, 19:00etan.

OÑATI Pako Marin abeslaria
Mujeres de negro erakusketaren aurkezpena egingo du, kantuekin.
Kultura etxean, 29:00etan.

ARRASATE Zikloturismoko federatu txartelak egiteko
Debagoiena Zikloturista Klubaren laguntzarekin egin daitezke.
Ignazio Zuloaga kaleko 10.ean, 19:00etan.

BERGARA 'La vérité' pelikula
Hirokazu Kore-edaren pelikula emango dute. Sarrerak, hiru euro.
Seminarixoan, 20:00etan.

EGUENA 16

OÑATI Ate irekiak Eltziako kirolgunean
Hilaren 18ra arte.
Eltzian, 07:30ean.

ARRASATE Sasoibideren irteera
Garaia Parke Teknologikora.
Biteri plazan, 10:00etan.

OÑATI Ate irekiak ludotekan
Txalokaren antolaketa berria ezagutzeko aukera.
Ludotekan, 17:00etan.

OÑATI Txirrindularitza lizentziak
Aloña Mendirekin.
Elkartearen egoitzan, 17900etan.

ARETXABALETA Zinekluba
Benjamin Naishtaten pelikula emango dute. Sarrerak, lau euro.
Arkupen, 19:30ean.

ARRASATE Inoren Ero Ni taldea
Kooltur Ostegunetako kontzertua egingo dute. Sarrerak, bost euro.
Gaztetxean, 22:00etan.

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Dios mios, pero que te hemos hecho...ahora?
Zapatua: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Spy cat
Zapatua: 17:00.

BERGARA

SEMINARIXOA

Adios
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Animales en apuros
Domeka: 17:30.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Puñales por la espalda
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

La gallina Turuleca
Zapatua eta domeka: 17:00.

EIBAR

COLISEO

1917
Zapatua: 17:00.

El silencio del pantano
Zapatua: 19:45, 22:30.
Astelehena: 20:30.

Richard Jewell
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

Espias con disfraz
Domeka: 20:00.

ANTZOKIA

Espias con disfraz
Zapatua: 17:00.

1917
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ

BOULEVARD

La guerra de las corrientes
Egunero, martitzena izan ezik: 16;10, 18:15, 20:25, 22:40.
Martitzena: 16:10, 18:15, 22:40.

1917
Egunero, martitzena eta eguena izan ezik: 20:30, 23:00.
Egunero: 17:00, 19:30, 22:00.
Zapatua eta domeka: 12:15.
Egubakoitza eta zapatua: 23:00.

Frozen
Zapatua eta domeka: 13:30.
Egunero: 15:45, 18:00.

Star Wars
Egunero, martitzena izan ezik: 13:00, 16:00, 19:00, 22:00.
Martitzena: 16:00 19:00.
Egubakoitzetik domekara: 17:30m, 20:30, 23:30.

Mujercitas
Zapatua eta domeka: 12:50.
Egunero: 16:35.

Richard Jewell
Egunero, martitzena izan ezik: 19:20.
Martitzena: 21:55.

Dios mio, pero que te hemos hecho...ahora
Egubakoitzetik domekara: 12:20, 15:00.
Astelehenetik eguenera: 20:30.

Espias con disfraz
Zapatua eta domeka: 12:55.
Egunero: 15:55, 18:05.

La maldicion
Egunero: 20:15, 22:15.
Egubakoitza eta zapatua: 00:15.

Si yo fuera rico
Zapatua eta domeka: 12:40.
Egunero: 15:45, 17:55, 20:05, 22:20.

Navidad sangrienta
Egubakoitza eta zapatua: 00:25.

La gallina Turuleta
Zapatua eta domeka: 12:45.
Egunero: 15:45.

GORBEIA

El silencio de la ciudad blanca
Egubakoitza eta zapatua: 19:40.
Domeka: 12:15, 19:40.
Astelehenetik eguenera: 20:20.

La trinchera infinita
Egubakoitzetik eguenera: 19:30.

Si yo fuera rico
Egubakoitza eta zapatua: 22.30.
Domeka: 12:00, 20:00.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

Frozen
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 18:40.
Domeka: 12:00, 16:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Parasitos
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00.
Domeka: 19:15.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

Jumanji
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00.
Domeka: 12:00, 17:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Espias con disfraz
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 17:35.
Domeka: 12:15, 16:30, 17:35.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Mujercitas
Egubakoitza eta zapatua: 20:45.
Domeka: 11:45, 18:40.

La maldicion
Egubakoitza eta zapatua: 17:20, 22:30.
Domeka: 17:20.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

La gallina Turuleca
Egubakoitza eta zapatua: 16:30.
Domeka: 12:00, 16:30.

Richard Jewell
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

La guerra de las corrientes
Egubakoitza eta zapatua: 18:10, 20:20, 22:30.
Domeka: 18:10, 20:20.

KRITIKA

La vérité ★★★☆☆
Zuz.: Hirokazu Kore-eda. **Herr.:** Frantzia (2019). **Aktoreak:** Catherine Deneuve, Juliette Binoche, Ethan Hawnke.

Konpondu gabeko gauzak

ANTONIO ZABALA

La vérité Kore-edak Japoniatik kanpo, Parisen hain zuzen ere, filmatutako lehen pelikula da. Catherine Deneuvek egiten duen pertsonaia, Fabienne, bere memoriak idatzi dituen aktore famatua da. Juliette Binochen pertsonaia, Lumir, Ameriketako Estatu Batuetan bizi den alaba da. Zinema gidoilaria den alaba, senarrarekin eta alabarekin doa amarengana liburuaren gaineko ospakizunetan parte hartzera. Fabiennek zinema izarrek askotan izaten duten ukitu harroa du. Erdigune izan nahi du beti. Ama-alabak denbora luzean ez dute elkar ikusi eta elkarrizketetan, moduak mantentzen badituzte ere, antzematen da euren artean guztiz konpondu gabeko kontuak daudela. Iraganari buruzko benetako elkarrizketa dute zain.

CINES EUROPA

Kore-edaren filmetan familiaren barnean sortzen diren loturak eta sentimenduak agertzen dira. *La vérité*-n komedia kutsua nagusitzen da. Zuzendari japoniarraren istorioak, nahiz barruan sufrimendu eta drama momentuak izan, baikorrak izaten dira. Pertsonaiak zinema munduan sartuta daude.

Errealitateak eta fikzioak parte hartzen dute bien arteko harremanetan. Lan hau ez da beste batzuk bezain borobila. Pertsonaia batzuk ez daude oso garatuta, eta tramak artifizialak dira. Pertsonaiak ez dira hain gertukoak egiten. Hala eta guztiz, *La vérité*-k mantentzen du zuzendariaren argia.

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es

Zu hemen zaude.
goiena

AZKEN BERBA

ANDER ETXEBERRIA

Hobetzekoak

Arrasateko aurrekontu parte hartzaileen aukeraketa prozesua amaitu da abenduan. Helburua izan da, aurreko edizioan bezala, erabakitzea zertan inbertitu 250.000 euro. Aurten 12 proposamen aurkeztu dituzte herritarrek, baina iaz bete gabeko 101 ideiak ere hautagarri izan dira. Guztira, 725 boto jaso dira eta proiektu hauek irabazi dute: 1. Jose Luis Iñarra kalean hainbat hobekuntza egitea. 2. Santa Marina auzoan egokitzapen lanak gauzatzea. 3. Bidegorrian komun publikoak jartzea.

Hiru gogoeta datozkit. Batetik, ez al da kuriosoa herri guztiari zabalduriko ekimen batean lehen bi proposamen bozkatuenak kale/auzo konkretu batzuez loturikoak izatea? Gakoa sare sozialetako kanpainak (kanpaina itxiak) dira, herritarrari gehiegi eskatzea baita 113 proposamen irakurtzea. Bestetik, bozkatuak izan ez balira, Udalak ez luke esku hartuko kale/auzo horien premiak asetzeko? Azkenik, zenbakien joera ikusita, gainontzeko proposamenen ordua seguru iritsiko dela noizbait…

Udaleko alderdi bultzatzaileetan ez dut ontzeko asmorik nabaritu, baina eredua goitik behera (eta behetik gora) berrikusi beharra dago.

BUKATZEKO

Arrasatetik Salamancara eta artelanak lagun

Euskal Herrian jaioa, Jose Ignacio Perezek harreman berezia izan du beti naturarekin. Gaztetan basogintzan lan egin zuen eta ondo ezagutu zituen egurra lantzeko teknikak. Gaur egun, Salamancan bizi da eta eskulturaren munduan dihardu

Naroa Urien Berrio ARRASATE.

Jose Ignacio Perez Martin Arrasaten jaio zen 1963. urtean. Salamancako Frantziako mendilerroa ezagutu zuen La Albercara, bere amaren jaioterrira, egindako bidaietan, eta bertako paisaiaz maitemindu zen. Bere aita hil eta gero, 2007. urtean, hara aldatu eta Euskal Herrian ikasitako teknikak praktikan jarri zituen. Gaur egun, gaztainondo-egurrarekin eginiko eskulturen erakusketak egiten ditu Salamancako udalerri ezberdinetan eta bere azken lanetako bat Arrasateko Portaloiaren erreplika bat izan da. Azken hau laster Arrasateko Udalari oparituko dio, erakusgai egon dadin; "Arrasateko herritarrek nire lana ikusi ahal izatea ohore handia izango litzateke", dio.

Jose Ignacio Perez, bere azken eskulturan lanean. ARGAZKIAK: BITTOR CARBALLARES

Basogintzatik artera

Artista arrasatearrari gaztetatik datorkio basoarekiko maitasuna. Gazte zenean, zahartutako zuhaitzak ebakitzen zituen, partzela partikularretan. Basogintzan lanean zebilela, egurra ebaki eta forma bitxiak lortu ahal zituela antzeman zuen. Gainera, motozerrarekin asko trebatu zen eta figura zehatzak egiteko gaitasuna bereganatu zuen. Hau izan zen bere aro artistikoaren hasiera, bere lanaren egur soberakinak pixkanaka obra bihurtu zituen trintxa, zerra edo motozerra erabiliz. "Zuhaitz lehorrak ebaki eta totemak egiten hasi nintzen. Hasieran ez nekien oso ondo zer egiten nenbilen, baina laster konturatu nintzen eskulturak egitea gustuko nuela", dio Perezek.

Azken erakusketako eskultura bat.

Arrasateko Portaloia

Artista arrasatearrak euskal teknika euskaldunengana helarazi nahi du. Horretarako, Arrasateko Portaloiaren zurezko erreplika bat egin du eta Arrasateko Udalari oparituko dio, bertan jarri eta herritarrek ikus dezaten: "Herrimina izaten dut askotan, eta bat-batean Arrasateko Portaloia etorri zitzaidan burura. Lanean jarri eta zurezko eskultura egin nuen. Orain, Arrasatera eraman nahi dut, bertan nire zatitxo bat egon dadin". Gainera, Perezek euskal teknikarekin harremana mantendu du betidanik; zurezko zuzeneko tailua egiten du, euskal eta galiziar artista garaikide bikainek egin izan duten bezala.

Mezudun artelanak

Gaztainondo-zurez zizelkatutako eta errealismo oso bereizgarri eta enblematikoaren estetika duten artelanak egiten ditu Perezek. Zura lantzeko duen modua zakar gisa definitzen du; izan ere, transmititzen duen mezuari garrantzi handiagoa ematen dio egiten duen moduari baino. Horren adibidea da bere azken erakusketako gaia, herri indigena garaikideetan begirada geureganatzea bilatzen duena. "Orokorrean, gaiak ideal internazionalistetan oinarritutakoak izaten dira. Martin Txirinok eskultura pasioa zela zioen, eta Pablo Vargallok eskultura abstrakzioa zela. Nik biak nahasten ditut", azaltzen du artistak.